

**GRADU AMAIERAKO LANA  
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**ATZERRIKO HAUR ADOPTATUAK ETA ESKOLA**

**2022 – 2023 IKASTURTEA**

**Kirol eta Hezkuntza Fakultatea UPV/EHU**

**Zuzendaria**

Saioa Larraza Arnanz

**Egilea**

Ane Merino Rodríguez

## Laburpena

Oro har, atzerriko haur adoptatuei buruzko informazio gutxi dago (eskoletan, irakasleei zuzendutako formazioan, etab.) Kontuan hartuta oso garrantzitsua dela kolektibo ahul horren egoera behar bezala ezagutzea, lan honetan azterketa bat egiten da guraso adoptiboen eta adoptatutako haurren bizipenak bilduz. Era berean, haur horiek beren ezaugarri fisikoengatik jasaten duten diskriminazio eta arrazakeria aztertzen dira. Horretaz gain, adopzioak alderdi sozial, emozional eta akademikoan sortutako eraginak ere aztertu ditugu; hala nola, autoestimua arazoak, atxikimendu-nahasmendua (“trastorno del apego” deritzona), trauma, etab. Hori guztia behar bezala bideratzeko, eskolak zer nolako inplikazioa izan beharko lukeen eztabaidatzen da, ume adoptatuen premiak bermatzeko, baita beren familienak ere.

## Resumen

Dada la escasa información en torno a los niños extranjeros adoptados (a nivel escolar, a nivel de formación del profesorado, etc.) y considerando la importancia que tiene visibilizar la situación de este colectivo, este trabajo realiza una investigación sobre el tema a través de la recogida de testimonios de padres y madres adoptivos y niños adoptados sobre sus vivencias. Así mismo, se examina la discriminación y racismo que sufren dichos alumnos por sus rasgos físicos. Por otro lado, analizamos las consecuencias emocionales, sociales y académicas que la adopción ha tenido en estas personas: por ejemplo, problemas de autoestima, trastorno del apego, trauma, etc. Para poder encaminar la situación, se discute la implicación que debería tener la escuela para satisfacer las necesidades tanto de los alumnos como de sus familias.

## Abstract

Given the scarce information on foreign adopted children (at school level, teacher training level, etc.) and considering the importance of making the situation of this group visible, this work carries out an investigation on the subject through the collection of testimonies of adoptive parents and adopted children about their experiences. It also examines the discrimination and racism suffered by these students because of their physical features. On the other hand, we analyze the emotional, social and academic consequences that adoption has had on these people: for example, self-esteem problems, attachment disorder, trauma, etc. In order to address the situation, we discuss the involvement that the school should have in order to meet the needs of both the students and their families.

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
<b>2. Justifikazioa</b>	<b>4</b>
<b>3. Helburuak</b>	<b>6</b>
<b>4. Marko teorikoa</b>	<b>7</b>
<b>4.1 Kultura-artekotasuna egungo gizartean</b>	<b>7</b>
<b>4.2 Ume adoptatuak</b>	<b>8</b>
<b>4.3 Arrazakeria eskolan</b>	<b>15</b>
<b>4.4 Arrazakeria ume adoptatuengan</b>	<b>16</b>
<b>5. Datu bilketa</b>	<b>19</b>
<b>5.1 Parte-hartzaileak</b>	<b>20</b>
<b>5.2 Prozedura</b>	<b>20</b>
<b>6. Emaidzak</b>	<b>21</b>
<b>6.1 Gazte adoptatuak</b>	<b>21</b>
<b>6.1.1 Adopzio aurreko urteak</b>	<b>21</b>
<b>6.1.2 Guraso biologiko eta adoptiboekiko atxikimendua</b>	<b>22</b>
<b>6.1.3 Eskolatzea</b>	<b>22</b>
<b>6.1.4 Arrazakeria</b>	<b>23</b>
<b>6.1.5 Osasun mentala</b>	<b>24</b>
<b>6.2 Guraso adoptiboak</b>	<b>24</b>
<b>6.2.1 Adopzio prozesua</b>	<b>24</b>
<b>6.2.2 Egokitzapena eta atxikimendua familian</b>	<b>25</b>
<b>6.2.3 Eskolatzea</b>	<b>26</b>
<b>6.2.4 Arrazakeria</b>	<b>26</b>
<b>6.2.5 Osasun mentala</b>	<b>27</b>
<b>6.3 Parte-hartzaileen arteko konparazioa</b>	<b>28</b>
<b>7. Ondorioak</b>	<b>29</b>
<b>8. Erreferentziak</b>	<b>33</b>
<b>9. Eranskinak</b>	<b>36</b>

## 1. Sarrera

Gradu amaierako lan honen gaia aukeratzeko momentuan, atzera begira eta graduan zehar landutako guztia kontuan harturik, laugarren mailan egindako kultura-artekotasuneko minorra asko gustatzeaz gain, bai akademikoki eta bai pertsonalki oso aberasgarria izan zela konturatu nintzen. Izan ere, egin beharreko lanei esker, esperientzia oso politak bizi izan genituen. Horregatik, bide horretatik jarraitu eta gai askoren artean, “Arrazakeria eskolan” izan zen aukeratu nuen gaietako bat. Aipatutako minor horren harira, “Proyectos” irakasgaien bizitakoa kontatu nahiko nuke. Kultura-artekotasunari buruzko lan bat egitea proposatu ziguten eta horretarako, nire taldeak Gasteizko Adurtza auzoa aztertzea eta ikerketa bat egitea pentsatu genuen, kaleko jendeari elkarrizketak eginez. Galderak, kultura-artekotasunari buruzkoak ziren, noski; hala nola, “egoera arrazistarik ikusi al duzu noizbait?”, “gaur egun jendea arrazista dela uste duzu?”, “uste duzu kultura desberdinak dituzten pertsonak talde berdinean batzen direla?”, “gaur egun diskriminazioak existitzen direla uste duzu?”, “bizi izan duzu egoera arrazistarik?”. Nahiz eta gutxi gora behera erantzunak nolakoak izango ziren aurreikus genezakeen, erantzun gehienak baiezkoak izan ziren. Horregatik, gure ondorioa hurrengoia izan zen: Adurtza auzoan arrazakeria eta diskriminazioa ematen da hemengo kultura ez duten pertsonengan. Hau da, jendeak sufritzen jarraitzen du eta nahiz eta mikro-diskriminazioa edo mikro-egoera arrazistak izan, arazo bat izaten jarraitzen du.

Eskolan dagoen arrazakeriari dagokionez, hainbat arrazoi egon daitezke horrelako egoerak emateko. Lan honi buruz nire inguruan ditudan kultura desberdinetako pertsonekin izandako elkarrizketetan hurrengo hitza errepikatu zen: adopzioa. Bi kontzeptu hauek erlazionatzea oso interesgarria izan daiteke; izan ere, eskolan izan dudan esperientzia kontuan harturik, horrelako hainbat kasu ezagutzen ditudala esan dezaket. Zehazki, Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte, beti izan ditut inguruan horrelako egoerak, baina inoiz ez dut historia horietan murgiltzeko aukerarik izan. Hala ere, hau guztia behar bezala aztertu behar dugula pentsatzen dut, bi gaiak indibidualki oso gogorrak dira eta biak batzen direnean, haurrarentzako ondorio kezagarriak ekar ditzakete. Eta nahiz eta profil hau duten pertsonen emozioak eta sentimenduak zeintzuk izaten diren jakin edo imajinatu dezakegun, lan honetan jarrera horiek gehiago aztertuko ditugu.

Nire ibilbide akademikoaz gain, graduan zehar burututako Practicumak ere honekin erlazionatu ditzaket. Hala nola, lehenengo eta bigarren praktiketan, horrelako kasuak topatu nituen bai adoptatuak ziren haurrak eta bai atzeritik etorritako familia eta ume asko. Practicum I; 2 urteko haurrekin eta II; hiru urteko haurrekin, Gasteizen egin nituen eta biak eskola publikoetan, beraz, kultura-aniztasuna eta adopzioa gertutik bizitzeko aukera izan nuen. Zorionez, ume hauek ez ziren egoera latzak sufritzen ari, irakasleak ez zituelako jarrera arrazistak ezta bazterkeriak onartzen, baina badakigu leku guztietan ez dela hori gertatzen. Adibide batzuk jartzearren, alde batetik, 2 urteko gela

horretan, haur adoptatu bat zegoen eta nahiz eta oso txikiak ziren, pixkanaka, ipuinekin, familien eredu desberdinak eta azal kolore anitzeko pertsonak ikusten hasi ziren. Bestetik, 3 urteko haurrekin, askok jada hitz egiten zutenez, haiekin elkarrizketak izaten saiatzen ginen; izan ere, gela honetako kultura-artekotasun maila altuagoa zen eta bazekiten aniztasuna existitzen zela.

Horrela, lan honetan mota hauetako galderak erantzungo ditugu: “zein egoera topatzen dugu gaur egungo Euskal Herriko gizartean?”, “non antzeman daiteke arrazakeria?”, “haurrak arrazistak al dira? “eta helduak?”, “hezkuntza mailan arrazakeria topatu dezakegu?”. Etorkizuneko irakasleak izango garenez, ezinbestekoa da geletan izango ditugun egoerak ezagutzea. Bestetik, esan bezala, eskoletan aurkituko ditugun kasuen artean, etnia desberdineko haurrak dauden moduan, haien familia biologikoarekin bizi ez diren ikasleak ere izango ditugu. Eta haratago joaten bagara, seguru aski, Euskal Herrikoak ez diren eta gainera, adoptatuak diren umeekin lan egingo dugu. Nahiz eta pertsona bakoitzaren egoera bakarra den, oso garrantzitsua da hauen aurrean jarrera egokia eta arduratsua izatea, baina, askotan, ez da horrela izaten. Horretarako, “nola sentitzen dira atzerritik adoptatuak izan diren haurrak?”, “zein nolako jarrerak izaten dituzte?”, “zeintzuk dira haien beharrak eta nahiak?”. Galdera horien erantzunak ezagutu beharko ditugu. Eta horrekin batera, umea ere ulertu eta egoera honek eragin edo sortu ditzakeen traumak ere aztertu beharko ditugu. Zer egin dezakegu guk irakasle bezala? Nola ulertu ditzakegu haurraren sentimendu eta emozioak? Aldatu al dira duela urte batzuetako eta gaur egungo ideiak eta praktikak?

## **2. Justifikazioa**

Aurreko atalean, nire bizipen pertsonalei esker horrelako gaia aukeratzea erabaki nuela azaldu dut, baina oraingoan, hezkuntza mailan, adopzioa eta arrazakeri gaiak zergatik landu behar diren eta zergatik diren garrantzitsuak ikusiko dugu.

Hasteko, marko teorikoan ikusiko dugun moduan, kultura aniztasun handiko gizartean bizi gara. Beraz, elkarbizitza eta ongizatea ziurtatu eta ezaugarri fisiko desberdinak dituzten pertsonen arazorik gabe haien artean nahasteko, ezinbestekoa da txikitatik gorputz guztiak desberdinak direla ulertzea, baina, aldi berean, guztiok eskubide berdinak ditugula. Azpi-gai honek lotura zuzena du gure lanaren gai nagusiarekin; izan ere, egunerokotasuneko alderdi hau landu ezean, bazterkeria eta arrazakeri egoerak emateko aukera gehiago egongo dira. Honen adibide argia da hasieran aipatu dugun ezaugarri fisikoekin erlazionatuta dagoen arrazakeria. Ortiz, Pumarejo, Lloréns eta Godreau-k (2009) azaltzen duten moduan, gaur egun bazterkeria sustatzen duen arrazoietakoz batzuk azalaren kolorea, ilea, janzkera, etab. izaten dira, batez ere haurrengan. Izan ere, helduagoak garenean, ezaugarri fisikoetan baino, besteek dituzten ideologiak erreparatzen ditugu gehienbat. Haurrek, oraindik, ez dute hori ulertzeko gaitasunik, beraz, begi bistan dagoena gustatzen zaien ala ez aukeratu

eta helduek esaten dutena errepikatzen dute soilik. Arrazakeri mota honen ondorioak ez dira batere onak, guztiz kontrakoa baizik; ahozko erasoak eta fisikoak dira gehien errepikatzen direnak. Azken hauek, lanean zehar ikusiko dugun moduan, eskoletan entzun ditzakegun komentarioak dira, batez ere ikasleen artean. Horregatik, oso garrantzitsua da haurrei geletan kultura desberdinei buruz hitz egitea, atzeritik etorritako haur adoptatuak etortzerakoan arrazakeri egoerak saihesteko (Ortiz, Pumarejo, Lloréns eta Godreau, 2009). Nazioarteko adopzioen kasuan, horrelakoak gertatu daitezke bai ezaugarri fisiko jakinak dituztelako eta bai adoptatuak direlako.

Etnia desberdinek dituzten ezaugarriekin jarraituz, izaki guztiei zeharki edo zuzenean eragiten gaituen faktorea landuko dugu: kultura. Gai honi buruz, Cardona, Giner eta Chinerrek (2013) diote, gure gizartean murgildu eta integratzeko zailtasun gehiago dituztenei ez zaiela erraztasunik ematen; izan ere, ezaugarri komunak ditugunean (fisikoak eta kulturalak), gehiago gerturatzen gara pertsona horiengana eta aldiz, dibertsitatea dagoenean, zuzenean baztertzeko joera dugu; arrazakeri kulturala, hain zuzen ere. (Cardona, Giner eta Chiner, 2013). Honen eskutik, arrazakeri biologikoa dugu; zein, ezaugarri fisikoetan oinarrituz, desberdintasunak daudelako pertsonak baztertzen ditugun (Cardona, Giner eta Chiner, 2013). Vegak (1996) ere, beste arrazakeri mota aipatzen du, hizkuntza arrazista. Hau da, euskalkian edo hizketa-ereduetan oinarritutako diskriminazioa da (Vega, 1996). Adibide batzuk, “es un trabajo de chinos/negros” edo “pareces un gitano así vestido” dira. Kasu honetan, gai honi buruz eskolak diskurtsoak botatzen ditu soilik, baina ez du ezer egiten familiak eta haurrak integratzeko, ez da praktikara eramaten. Hortaz, lehen aipatutako hiztegia zuzentzea ere oso garrantzitsua izango da; izan ere, egunero entzuten ditugun ezaugarri horiengatik da arrazakeria bukatzen ez dela (Vega, 1996).

Laburki, atzeritik adoptatutako haurrei buruz hitz egitea eta gai hau jorratzea ezinbestekoa da gizartean talde baztertua delako eta ez ditugulako entzuten. Hau da, ez dira kontuan hartzen eta beraz, lanketa honi esker, ahotsa ematea lortuko dugu. Oso garrantzitsua da egoera hauek ezagutzea ezjakintasun handia dagoelako eta haur hauek heziketa berezia behar dutelako eta askotan, ez dakigu zer egin haien jarreraren aurrean. Gainera, izeberg-aren punta soilik ezagutzen da eta ez atzetik datozen zailtasunak, trastornoak edota nahasmenak. Horrekin batera, esan dugun moduan, sufritzen duten arrazakeria ere kontuan izan beharko dugu. Eta zer lotura du honek adopzioarekin? Aurrerago ikusiko dugunez, adopzioa internazionala denean, haur horiek bere jaioterriko ezaugarriak izango dituzte eta batez ere fisikoak direnean, nekez ezabatu ahalko ditu. Horregatik, eskolan egiten diren bazterketa arrazoen artean, kultura desberdinekoak eta adoptatutako haurrak direlako izaten da.

### 3. Helburuak

GrAL honetan zehaztu ditudan helburuek haien arteko nahiko lotura estua dutela esan dezakegu, betiere azken asmoa haurren ongizatea bilatzea izanik. Orokorrean, irakaslearen rolari zuzenduta dagoen lana dela uste dut, ondoren gure ikasleen aurrean erantzun egokia emateko helburuarekin. Gainera, Haur Hezkuntzako graduko azkeneko lana denez, etorkizunean eskolan zein, oro har, hezkuntzan arituko diren edozein profesionalentzat baliabide aproposa izan daitekeela uste dut.

Lehenengo helburua eta garrantzitsuena eta ezer egin baino lehen egin beharko genukeena, haurra psikologikoki ulertzea izango litzateke. Bizitzako edozein arazo-egoera dugunean bezala, aurretik kasua ezagutu behar da eta oraingoan ez dugu gai makala esku artean, horregatik, lehenik eta behin, umeak buruan izan ditzakeen ideiak, galderak, beldurrak, sentimenduak, trastornoak, atxikimendua, etab. zeintzuk diren ezagutuko ditugu lan honetan. Ikusiko dugun bezala, sufritzen duten haurrek, orokorrean, ezaugarri berdintsuak dituzte, nahiz eta haur bakoitza bakarra den. Hau guztiagatik, lan honen lehenengo xedea da aztertzea eta ulertzea atzeritik adoptatutako haurrak psikologikoki nola dauden edo nola egon daitezkeen, bizi-esperientzia zaila jasan duten aldetik.

Bigarrenari dagokionez, jada helduon paperean murgilduz, behin haurra azertu eta ulertu dugula, batez ere sufrimendu eta sentimendu gogorrek dauden egoeren aurrean zer egin beharko genukeen jakitea da. Lan hau batez ere egin nahi dut eskolaren papera zein den eta zer egin beharko litzatekeen ezagutzeko. Hau da, irakaskuntzari falta zaion informazioa biltzea eta erantzun bat ematea, nahiz eta esatetik egiterako ibilbidea nahiko zaila eta luzea den. Horregatik, lan honen helburuetako bat izango da baliabideak, eskolaren eta irakaslearen egitekoak, mugak, lehentasunak, neurriak, etab. zeintzuk diren aztertzea.

Hirugarren erronkan, lanaren edukiari dagokionez, sentsibilizazioa eta enpatiari buruz hitz egin nahiko nuke gizartea kontzientziatzeko. Sarreran esan dudana bezala, adopzio eta arrazakeriaren gaiak nahiko tabu dira eta horregatik, ezjakintasun maila oso altua da. Alde batetik, gaur egungo gizartea arrazista dela ez da inorentzako sekretua, geroz eta gorroto egoera eta jarrera gehiago baitaude. Eta bestetik, adopzioaren gaiarekin gertatzen dena are kezagarriagoa dela uste dut; izan ere, esan bezala, adoptatu nahi duten guraso askok, eskolak zein haur adoptatuaren irakasleek ez dute izan ohi informazio zein prestakuntza nahikorik.

Azkenik, ez-ohiko egoera bizi izan duten haurrei ahotsa ematea da nire helburua. Hau da, haien esateko dutena entzutea, aztertzea eta erantzun egokia ematea. Ezingo dugu ezer aldatu ez baditugu haien iritzi eta bizipenak ezagutzen. Gainera, haurren esperientziak ez ezik, gurasoenak ere

entzutea interesgarria izan daiteke. Modu honetan, ahotsik ez duten pertsonen mikrofonoa emango diegu hitz egin dezaten.

## **4. Marko teorikoa**

### **4.1 Kultura-artekotasuna egungo gizartean**

Kulturaz ari garenean, bi modutara ulertu dezakegu; alde batetik, lana, ikasketa eta kanpo faktoreengandik bereganatzen dugun informazioa edo ezagutza eta bestetik, ideia, pentsamendu eta ohiturek osatzen duten multzoa (Giménez, 2005). Lan honetan, guk bigarren esanahi horri helduko diogu, gaur egungo gizartean eta hortaz, eskolan, topatu ditzakegun etnia desberdinek dituzten kulturei, hain zuzen ere. Gizartea bezala, kulturak ere heterogeneoak dira eta nahiz eta haien artean batzuetan berdintasunak egon daitezkeen, bata bestearekiko oso desberdinak dira. Kulturaz hitz egiten dugunean, identitatea ere aipatu behar dugu ezinbestean. Gure identitatea osatzen dugunean, material kulturaletik sortzen dugu, gure inguruan dagoen kanpo faktorea (Giménez, 2005).

Eguno gizaritari erreparatzen badiogu, azken urteotako migrazioaren ondorio nabarmenena da gure artean kultura desberdinetako pertsona gehiago topatzea. Horrela, fenomeno hori azken urteotako euskal hezkuntza-sisteman islatu da. Irakasle bezala, oso garrantzitsua da gure gelan aurkituko dugun egoera zein den ezagutzea. Migrazio esperientzia guztiak ezberdinak eta bakarrak diren arren, eskolan topatuko ditugun egoerak hiru taldetan multzoka daitezke: atzerrian jaiotako atzerritar nazionalitatedunak; atzerrian jaiotako espainiar nazionalitatedunak eta azkenik, Espainian jaiotako atzerritar nazionalitatedunak. Bakoitzaren egoera berezia da eta faktore asko dira haurren identitatean eragiten dutenak; hala nola, zenbat urterekin migratu duen, zenbat denbora daraman beste herrialde batean bizitzen, zein den bertarako kultura, etab.

Edonola ere, komeni da hemen gogoraraztea kultura-artekotasuna landu beharko litzatekeela ikastetxe guztietan eta ez soilik etorkinak dituztenetan (Goenechea, 2015). Espainiak duen gizartea kultura anitzekoa da eta gizarte kohesionatu bat eraiki nahi badugu, eskolan jarri beharko ditugu oinarriak.

Baina, zer nolako ezaugarriak dituzte beste kulturetako gazte hauek? Egia da pertsona bakoitza bakarra dela eta kasu guztiak desberdinak direla, baina badaude Barquínek (2010) zerrendatzen dituen komunak diren hainbat ezaugarri. Alde batetik, hizkuntzari dagokionez, askok ez dakite Euskal Herrian hitz egiten den hizkuntzetako bat: euskara. Kasu okerrenetan, euskara ez jakiteaz gain, gaztelania ez hitz egitea ere gerta daiteke. Bestetik, badaude inoiz eskolaratu ez diren



edo modu prekarioan egin duten haurrak, horregatik hemengo eskoletan hasten direnean, ez dituzte gelako arauak ulertzen. Eta azkenik, egoera ekonomikoari dagokionez, askok zerotik hasi behar dute egoera ezegonkorra dutelako. Horrez gain, akulturazio-estresa ere kontuan hartu beharrekoa da; alegia, beste herri batera doan pertsonaren sufrimendua edota, beste hitz batzuetan, bizitako esperientzia guztiek eragiten duten ezinegona (Barquín, 2010). Etorri baino lehen jatorrizko herrialdean zuten guztia uzteko egindako esfortzua eta bidaiari buruz ari gara zehazki.

Eskola eremura bueltatuz, immigranteen kontzentrazio handiena eskola publikoetan topatu dezakegu, eskola “ghetto” gisa ezagutzen dena, kanpotik etorritako ikasle gehienak bertan biltzen direlako (Barquín, 2010). Horrek ondorio argiak ditu; alde batetik, beste eskoletan hainbeste dibertsitaterik ez izatea eta bestetik, atzerritar jatorridunak haien artean bakarrik erlazionatzea, bertakoekin harremanik izan gabe, eskola-segregazioa areagotuz (Goenechea, 2015). Datuak aztertzen baditugu, atzerritarrak diren 10 umetatik 8 eskola publikoetara bideratzen dituztela konturatuko gara. 2012.urtean adibidez, Espainiara heldu ziren haur atzerritarrak modu honetan banatu ziren: %82,3 eskola publikoetan, %13,7 itunpekoetan eta %4, berriz, pribatuetan (Goenechea, 2015). Horrek guztiak kohesio eta errendimendu soziala oztopatzen duela ondorioztatzen du autoreak; izan ere, ezin izango dira hemengo gazteekin erlazionatu, arrakasta akademikoa eta sozialki integratzea zailduz. Gainera, bertako eta atzerriko umeen arteko interakzio falta horrek egungo gizarteak dituen aurreiritziak elikatzen jarraitzen du, eta ondorioz, integratze-prozesua moteldu dezake (Barquín, 2010). Ezagunak dira gurea artean askotariko aurreiritziak; besteak beste, euskara eta euskal kulturaren inguruko jakin minik ez dutela, jarrera itxia dutela eta hezkuntza kalitatea jaisten dutela.

## **4.2 Ume adoptatuak**

Aurreko atalean, hainbat arrazoiengatik beste lurraldeetatik hona (familiarekin edo bakarrik) bidaiatu duten ikasleei buruz hitz egin dugu, baina, badago hirugarren ikasle multzo bat: atzerritik adoptatutako haurren, hain zuzen ere. Hurrengo lerroetan, haur hauek zein ezaugarri dituzten eta eskolan zer nolako jarrerak izan ditzaketen aztertuko dugu. Esan beharra dago ere, adopzioaren inguruko argitalpenak oso urriak direla, ikerketa gutxi egin dira. Hala ere, konturatuko garenez, gaiarekin sentsibilizatuta dauden profesional guztiek ideia eta helburu berdintsuak dituzte, baita eskolan egin beharrekoak zeintzuk izan beharko liratekeen ere.

Hasteko, datu zehatzei erreparatzen baditugu, 2016. urtera arte estatu mailan 4.000 adopziozko familia inguru zeudela jakingo dugu, horietatik %80 nazioarteko adopzioak (Ochando, Peris, Millán eta Loño, 2007). Interesgarria da aipatzea guraso gehienek nazioarteko adopzioa aukeratzen dutela nazionala baino; izan ere, modu honetan, familia biologikoak haurra bilatuko ez

duela eta hauekin arazoak izango ez dituztela ziurtatzen dute (Ochando, Peris, Millán eta Loño, 2007). Horrez gain, azken hogeitaz urteetan, 5.000 ume baino gehiago adoptatuak izan direla jakingo dugu; Euskal Autonomia Erkidegoan soilik (Albes, 2017). Adopzio kasu bakoitza bakarra egiten duten hainbat aldagai daude; hala nola, adopzio-adina, adopzioaren aurreko historia eta adopzio mota, nazionala edo nazioartekoa (Albes, 2017). Kasu honetan, Albesek (2017) dio adopzioen kasu gehienak, %80, positiboak direla, baina badagoela bizi-zikloaren edozein etapan zailtasunak dituzten haurren eta nerabeen ehuneko bat eta horretan oinarrituko gara gu, hain zuzen ere.

Adopzio-familiei dagokionez, egia da orokorrean guraso-gaitasun fidagarriak dituen eta seme-alaben egoerarekiko konpromiso handia duen kolektibo bat direla (Albes, 2017). Honekin esan nahi da, adoptatzen duten heldu gehienak kontziente direla haurraren bizipenak zeintzuk izan diren eta etorkizunari begira iragana hobetzen saiatzen dira. Haurraren ongizatean hainbat faktorek eragiten dute eta horien arabera, haurraren garapena egokia ala ez izango da (Espino, Casino, Llinares, 2014). Hala nola, Lucianok (2012) faktore arriskutsu eta babes mekanismoei buruzko teoria azaltzen du. Teoria horren arabera, gehiegizko eragin negatiboek haurraren ongizatea arriskuan jartzen dute eta garrantzitsua da zenbait neurri edo “aseguratzailer” erabiltzea bizi izan ditzaketen egoera latzak leuntzeko. Batez ere adopzio internazionalan, faktore genetiko, gurasoengandik bereganatutako bortxaketa edo substantzia toxikoak, bizipenak, etab. daude.

Adoptatzen duten familiek helburu zehatz batzuk izatea ezinbestekoa da. Espino, Casino eta Llinaresek (2014), helburu terapeutikoei buruz hitz egiten dute; hau da, familia barruan egon beharko diren xedeak, betiere haurraren eta gurasoen ongizatea bilatuz. Lehenengoa, haurraren ibilbidea ezagutzea da, hau da, haurraren jarrerak hobeto ulertzeko, bizitakoa zer izan den jakitea egokia izan daiteke. Bigarrena, aurrekoarekin lotuta, haurraren helburuak zeintzuk diren eta bizitzan zer nahi duen ezagutzea da. Hirugarrenik, barruko eta kanpoko faktoreek eragin ditzaketen sentimendu latzei buruz hitz egitea. Eta laugarrenik eta azkenik, aurreko guztia egiteko, komunikazio ona eta esanguratsua sortu eta izatea haurra eroso sentitzeko.

Bestetik, adoptatzen duten gurasoen beldur eta zailtasunei buruz hitz egiten du Magantok (2005). Haietzako bideratuta dagoen informazio guztiaren artean, batez ere helburu nagusia haurraren eta familiaren arteko erlazioa ahalik eta onena izan behar dela dio. Oinarrizko komunikazioa izatea oso garrantzitsua da eta behin haurra emozionalki adierazten denean, haien errua ez dela argitu behar diegu. Hau da, haurrek horrelako esperientzien berri ematen digutenean ez dugu haserrerik, tristurarik, amorrurik edota nahasterik adierazi behar. Aldiz, haien errua ez dela esan eta informatzen jarraitu behar ditugu. Horrekin batera, ahalik eta sendotasunik handiena erakutsi behar dugu. Baliteke haur bat baino gehiagok bizi ari den egoerarengatik bere buruari errua botatzea edota bere burua zigortzea, baina hori guztiz saihestu behar dugu. Nahiz eta gurasoek ere, irakasleek bezala,

haien galderak eta beldurrak badituzten, lotura sendoa sortzea ezinbestekoa da. Horretarako, aurretik aipatutako helburuak lortu behar ditugu azken xede nagusi hau lortzeko

Harremanaren gaiarekin jarraituz, batez ere haurren gurasoenganako jarrera zein zen kontuan hartu behar dugu. Frustrazioaren sentimendua hau batez ere, egunerokotasuneko jardueretan ematen da; izan ere, ordura arte haurrak izandako ohiturak, lagunak, ingurua, etab. desberdinak izango dira eta egokitu egin beharko dira. Horrez gain, beldurra ere izatea ohikoa da; izan ere, haien guraso biologikoak bezala izateko beldur dira, haien iraganera bueltatzeko, hain zuzen ere (Ochando, Peris, Millán eta Loñok, 2007). Hala ere, nahiz eta haurrak hau guztia sentitu dezakeen, denbora eta harreman egokiari esker, haurra ondo egokitzeko aukerak asko dira. Guraso adoptatuekiko sor daitezkeen atxikimendu motei buruz ari garenean, familiek sortzen duten harremanaren arabera izango da. Orokorrean, atxikimendu seguru eta ez-segurua desberdindu ditzakegu eta ez-seguruen barruan, hiru mota daude: saihekorra, anbibalentea eta desantolatua. Gure kasuan, hasieran haur hauek izango duten harremana, ez segurua izango da; izan ere, autoestimu gutxi izango dute, ez dute konfiantzarik izango, ezin izango dute haien sentimenduak adierazi, harremana oraindik osatu beharko da, etab. Baina, pixkana-pixkana, aurrerago ikusiko ditugun zereginak betetzen diren bitartean, atxikimendu ez-seguru hori seguru bihurtuko da.

Haurren segurtasunarekin jarraituz, ikuspegi sistematiko batetik, familia berezko ezaugarriak dituen gizarte-sistema natural gisa ulertzen da (Espino, Casino eta Llinares, 2014). Hala nola, arau eta paper multzo baten garapena, negoziazio-moduak komunikatzeko eta arazoak konpontzeko eredu espezifikokoak dituen botere-egitura bat, talde eta erakunde gisa dituen izaerari dagozkion funtzioak hedatzeko. Gainera, sistema horren barruan, gizabanakoak elkarri lotuta daude barne-laguntza emozional iraunkor eta elkarrekiko baten bidez eta leialtasun bidez, zeinen indarra denboran alda baitaiteke baina familiaren bizitzan zehar mantentzen baitira (Espino, Casino eta Llinares, 2014). Beraz, hiru autore hauek, Román eta Palacios (2011) aipatzen duten haurrari egonkortasun emozionala ziurtatzeko behar den familiaren segurtasunari izugarritzko garrantzia ematen diote.

Irakasleak haurren garapen emozionalean duen zeregin garrantzitsuaz hitz egiten digute Román eta Palacios (2011); erlazio positiboak eredu bihurtu eredu negatiboak gutxieteko. Besteak beste, sentsibilitatea, eskuragarritasuna, onarpena eta egonkortasuna sustatuko duten interakzioak sustatzea; haurrenganako beraren konfiantza sustatzea; taldean integratzen saiatzea eta besteengan konfiantza izaten laguntzea; familia-aniztasuna irakaskuntza-proiektuaren parte izatea; haur bakoitzaren eskola-testuingurua egokitzeko erritmoa errespetatzea; adopziozko familiekiko komunikazio eta lankidetzaren onak sustatzea, etab. (Román eta Palacios, 2011).

Haur bat adoptatzen denean, bai nazionalki edo internazionalki, bai familiak eta bai haurrak egokitzeko prozesua behar dute eta lasaitasunez eta pazientziaz landu behar da (Ochando, Peris, Millán eta Loño, 2007). Kontuan izan behar dugun alderdi bat da gurasoak adoptatua izango den haurra baina kontzientziatuago daudela. Hau da, haiek badakite haur baten gurasoak izango direla eta denboraldi luzez, pentsatzeko eta ideia osatzeko aukera izan dute, egoera kanpotik ikusteko hain zuzen ere. Baina haurrak ezin du hori egin, eta behin tramitea eginda dagoela eta adoptatzeko eguna heltzen denean, beste helduen besoetara pasatzen dela konturatzen da. Normalean, kasu hauetan, frustrazio sentimendua izatea ohikoena da; izan ere, inguru ezagunetik ezezagunera igarotzen da (Ochando, Peris, Millán eta Loño, 2007). Hala ere, gurasoen papera ondo ulertzea garrantzitsua da; izan ere, beste gurasoek ez dituzten zereginak dituzte; hala nola, zerotik hasitako harremana sortzea, haurrak dituen beldurrak, sentimenduak, etab. onartzea... Gainera, orain arte adopzio prozesuan ez dagoen eta aipatu ez dugun alderdi bat falta da, haurdunaldia, non haurra eta amak lehen kontaktu zuzena duten maitasun harremana ematen den. Hori ez gertatzeak ere lehen aipatutako zerotik hasitako harremana sortzeko momentuan, zailtasun gehiago ekar ditzake. Beraz, laburki, artikuluetan aipatzen diren helburu gehienak haurren eta gurasoen harremana ahalik eta hobereana lortu nahi dute; izan ere, etxean egoera ona baldin bada, hortik kanpo egoera ere onuragarria izateko aukera gehiago daude. Gainera, familiaren papera eskolarekin ere oso lotuta dago eta horregatik aurrerago ikusiko dugun bezala, oso garrantzitsua izango da guztiok batera lan egitea.

Haur adoptatuarengan familiako eta komunitateko kide izatearen zentzua oso ahulduta eta deslegitimizatua dago (Mugica, 2012). Hau da, haur adoptatuek beren familia biologikoari buruz duten ideia zein nolakoa den kontuan hartu behar dugu. Alde batetik, egoera ulertzen eta onartzen badute ez dute arazorik izango; izan ere, haiek izan duten familia legal berriarekin ondo moldatuko dira. Baina, aldiz, ez badute ulertzen eta haien familia biologikoari errua botatzen badiote, familiaren irudia oso txarra izango dute. Hau, etorkizunari begira, nahiko kezkarria da ondorengo harremanetan eragingo duelako: maitasunaren ideia, maitasuna eman eta jasotzean, laguntzeko orduan, harremantzeko orduan... Honekin lotuta, haurrek haien ingurua berea ez dela nabaritu dezakete (Mugica, 2012); izan ere, haiek dira berriak, haiek dira etorri direnak. Ezinbestekoa da ingurune egokia sortzea eta adoptatuei behar duten atentzio guztia eskaintzea.

Alde batetik, haur hauek izan ditzaketen jarrerak ezagutu baino lehen, Albes-ek (2017) dio aurreko aldagaiez gain, ezaugarri pertsonalak, garapen-eremu desberdinen maila, gaitasun kognitiboak, emozionalak, gizarte-arlokoak eta abar gehitu behar dizkiogula. Haur hauen jarrerak hobeto ulertzeko, garapen pertsonalean eragin dezaketen hainbat faktore ikusiko ditugu; hala nola, adin goiztiarrean abandonatzea, abusuak, zaintzarik ez izatea, jaio aurreko aldiak, etab. Kasu honetan, profil hau osatzen duten haurrengan ez dira premia afektiboak eta segurtasunezkoak bete eta horren ondorioz, ez dute emozionalki babestuta nabaritzeko aukerarik izan eta horregatik, intseguritate

handia dute (Albes, 2017). Hau kontuan hartzea oso garrantzitsua da; izan ere, irakaslearen rolean ikusiko dugun bezala, harremanak egiterakoan haurren jarrera ulertu beharko dugu, behar duen laguntza eskaintzeko helburuarekin.

Aipatutako atxikimenduaren gaiarekin jarraituz, gure gizartean dugun egoera hurrengoa da. Populazioaren %70ek atxikimendu seguruz gozatzen du eta %30ek berriz, atxikimendu intseguru desberdinak sufritzen dituzte (Barody & Marquebreucq, 2009); hala nola, anibalentea, ebitatiboa eta nahastua. Azken hiru hauek hainbat arrazoiengatik ematen dira; abandonu egoera baten ondoren edota sufritutako tratu txarregatik. Ez dugu ahaztu behar, haur hauek adoptatuak izan baino lehen umezurztegi edo harrera-etxeetan hezi direla haien lehenengo urteetan eta ez dakigu zein nolako tratua jaso duten (Garai, Lasarte, Tresserras & Corres, 2022).

Haur adoptatuak haur abandonatuak direla esaten dugu. Horregatik, abandonuaren traumarengatik haur gehienek duten nahasmendua, atxikimendu-nahasmendua edo “trastorno del apego” (TA) da. Nahasmendu hau ondo azaltzen dute Garai, Lasarte, Tresserras & Corres (2022). Kasu honetan, egileek egin duten ikerketan oinarritzen da gizartean ahotsik ez duten familien sufrimendua eta esperientziak entzun eta aztertzean. Horretarako, blog eta post-ak arakatu dituzte, ondoren, arazo larri honi erantzuna emateko helburuarekin. Euren emaitzetan hauek dira gehien errepikatu diren gaiak: trauma eta atxikimenduaren nahasmendua. Honekin batera, Espainian TAduten haurrei ez zaiela behar duten arreta guztia eskaintzen salatzen dute eta horrez gain, eskolak ere ez daudela prest aipatzen dute.

Orain arte, haur adoptatuek izan ditzaketen ezaugarriak babesgabetasun sententzia, sufrimendua eta adaptazioa direla aipatu dugu, baina badaude atzerriko jatorria duten haur adoptatuek dituzten ezaugarri komunak. Robledok (2012) berak biltzen dituen ezaugarriak bi taldetan banatu ditzakegu, akademikoki eta sozialki. Alde batetik, hezkuntza mailan, arreta-eza, motibazio gutxi izatea, gelako arauak eta jokabideak onartzeko zailtasunak izatea, diziplinarik gabeko haurrak dira, autonomia falta, talde-lanetan lan egiteko zailtasunak dituztela esan dezakegu. Bestetik, eremu sozialean, berriz, jarrera oldarkorak eta informazioa ulertzeko eta adierazteko zailtasunak nabaritu ditzakegu. Hala ere, banandutako bi talde hauek oso erlazio zuzena dute; izan ere, eskolan ere lagunak egin behar dituzte eta irakasleekin harreman du behar dira. Beti bezala, haur bakoitza bakarra da eta ez du esan nahi guztiek ezaugarri hauek izan behar dituztenik, baina egia da haien egoeratik, emozionalki eta kognitiboki negatiboki eragiten dutela.

Adopzioetan aditua den Monzónek (2020) azaltzen du haur hauek abandonua jasan dutela eta familia biologikoaren presentzia sinbolikoa kudeatzeko familian dagoen beharra, jatorriaren bilaketa barne dagoela. Hau da, nahiz eta egoera desberdinak izan, guztiek partekatzen dituzte sentimendu

berdintsuak eta oso garrantzitsua da hauek kontuan hartu eta baloratzea. Horrekin batera ere, azaltzen du oso ohikoa dela haur adoptatu batek bere garapen-prozesuan gorabeherak izatea edo arlo batean bikaina izatea eta beste batean ez, edo eskolara iritsi aurretik oso egokitua egotea eta gero disruptibo bihurtzea (Monzón, 2020).

Aurrekoaren harira, haur adoptatuek patroi berdintsuak jarraitu ditzakete; hala nola, haien emozioak adierazteko arazoak izatea, helduengan konfiantzarik ez izatea (aurretik haien gurasoek abandonatu dituztelako), erdaraz “hipervigilancia” esaten ziona, antsietatea eta TDAH. Horrez, gain, autoestimu baxua eta dituzten harremanetan abandonatuak izateko beldurra ere izan daitezke (Garai, Lasarte, Tresserras & Corres, 2022). Haurrak txikitatik autoestimua, esentzia eta izaera eraikitzen hasten dira eta horregatik oso garrantzitsua da prozesu hau errespetatzea eta babestea. Haur adoptatuek berriz, gehiago sufritzeko eta prozesu honetan oztupoak izateko aukera gehiago dituztela esan dezakegu; izan ere, diskriminazioaren ondorioz, autoestimua oso baxua da (Albes, 2017), besteak baino gutxiago balio dutela sentitzen dute eta aldatu ezin den zerbaiten aurrean gutxiagotasun eta ezintasun sentimenduak jasaten dituzte (Mugica, 2012). Aldi berean, badaude beren autoirudia eta gorputzeko ezaugarriak baztertzen dituztenak eta horretarako, atal horiek aldatu nahi dituzte, modu honetan testuinguruaren araberakoak izan daitezken (Mugica, 2012).

Bestetik, haur adoptatuek izan ditzaketen jarreraren artean, hauek dira esanguratsuenak. Lehenengo, harremanak sortzeko eta individualizatzeko unean, heldutasun eta garapen txikiagoa izan dezakete. Bigarrenik, autokontrolari dagokionez, emozioak kudeatzeko eta erregulatzeko gaitasuna txikiagoa da; hala nola, nahastu, hauetatik deskonektatu, frustrazioekiko pasibotasuna adierazi, etab. izaten dira jarrerarik ohikoenak. Gainera, honekin lotuta, batez ere nazioarteko adopzioetan, hizkuntzarekin zailtasunak daudenean, nekez adierazi ditzakete haien sentimenduak eta hori oztupo oso handia izan daiteke haurraren garapenarentzako. Hirugarrenik, kontrolarekin jarraituz, egoera, azterketa eta zereginen aurrean autonomia eta orden gutxiago izateko joera dute. Hala ere, laguntzarekin baldin bada, nahi dutena lortzeko aukerak dituzte kasu gehienetan. Laugarrenik eta azkenik, izaerari erreparatzen badiogu, autoestimu gutxi, mesfidantza eta bizi-ezkortasuna izaten dute, bizi izan duten guztiagatik, ez dute bizitzarekiko perspektiba positiborik eta arazo-egoerak kudeatzeko ezgaitasuna ager dezakete (Albes, 2017).

Azkenik, aurrekoarekin jarraituz eta bukatzeko, deigarri izan daitekeen ideia bat aipatzen du Mugica (2012), biktimak diren haur hauek, etxeko langileekiko edo inguruko beste haur batzuekiko jokabide arrazisten protagonista izan daitekeela, hain zuzen ere (Mugica, 2012). Hau da, beste hitzetan, haurrak berak sufritzen duen guztiaren ondorioz, besteei ere horrela sentiarazteko beharra agertzea gertatu daiteke. Honek logika guztia du; izan ere, haien sufrimendua deskargatzeko modurik

errazena besteei berdina sentiaraztea izan daiteke eta horregatik, patroi berdina jarraitu dezakete haien familia edo lagunekin adibidez.

Haur adoptatu eta atzerritarren egoera aztertu eta gero, hauek ulertzeko hainbat puntu azaltzen dizkigu Robledok (2012). Lehenik eta behin, ingurune berri batera egokitu behar direla hartu behar dugu kontuan eta nahiz eta haur bakoitzak modu batean edo bestean erantzun dezakeen, askok jarrera desegokiak eta arraroak izan ditzakete. Horregatik, oso garrantzitsua da haurrekin hitz egin eta eroso sentiaraztea. Bigarrenik, askok, aurretik bizi izan duenarengatik, agresibitatea azalera dezakete, baina gu, irakasle moduan, lasaitasuna adierazi eta haurra baretzen saiatu behar gara. Horretarako, hizkuntza aproposa erabili, lasai hitz egin, bere espazioa eskaini eta lasaitasun ariketak egin ditzakegu. Hirugarrenik, osasun mentalari dagokionez, aldaketak ez dituzte ondo hartzen; izan ere, haien familien egoera gogoratzen dute eta asko sufritzen dute. Laugarrenik eta garrantzitsuenetarikoa, kontuz ibili behar gara familia ereduarekin, ezaugarri kulturekin, hizkuntza/hiztegiarekin, etab. Egoera berezia bizi duten umeekin gaude eta irakasle moduan asko zaindu behar dugu gelan erakusten duguna.

Nahiz eta haur adoptatuek bizi izan duten esperientziengatik izan ditzaketen traumak haien garapenerako oztopoak izan daitezkeen, Albese (2017) zerrendatzen dituen haur hauen indarguneak eta trebetasunak ere aipatzea interesgarria dela uste dut. Hau da, nahiz eta guk dituzten trabak eta zailtasunak aztertzen ari garen, gaitasunak ere ezagutzea komenigarria da. Izan ere, haurtzarora sortutako traumen ondorioak garunari kalte egiten dioten arren, honek badu ezbeharrak gainditzeko gaitasuna.

Aurretik, jarrera desegokiak izaten dituztela aipatu dugu, baina egia da ere, plastikotasun eta egokitzeko gaitasuna ere badutela (Albes, 2017). Beren erresilientzia-gaitasunari esker, beren garapenean indarberritu daitezke eta inguru eskakizunetara egokitu. Horretarako, nahiz eta askotan ezin ditugun ikusi, haur hauek egiten dituzten ahaleginak oso handiak dira. Horrez gain, munduarekiko duten grina, interesa eta jakin-mina oso handia da (Albes, 2017). Horrekin batera ere dio, besteekin sozializatzea, lagunak egitea, gizartean egiten diren ekintzetan (eskolan, adibidez) esku-hartzea eta abar egitea gustatzen zaiela, batez ere helduen onarpena izateko eta ondorioz, kide izatearen zentzua garatzeko. Gainera, hezkuntza-arloari dagokionez, eskolara joateko eta ikasteko gogoia ere badute, nahiz eta egunero barne borroka gainditu behar duten (Albes, 2017).

Ikusi dugun bezala, nahiz eta haur hauekin lan handia egin behar den, oso garrantzitsua da ere haien behar eta nahiak kontuan hartzea haien ongizatea eta garapena geroz eta hobetuz izan dadin.

### 4.3 Arrazakeria eskolan

Erljio, ideologia eta pentsamendu askotarikoak ditugun gizartean bizi gara eta ezberdintasun horiek egoera arrazista eta xenofoboak ekarri ohi dituzte berarekin. Hori izango da lan honetan landuko dugun gaietako bat, bazterkeria eta arrazakeria.

Arrazakeriaren definizioari dagokionez, nahiz eta hainbat mota dauden, laburki eta orokorrean, gainerakoen arraza edota etnia baztertzen dituen eta berea nagusia dela bultzatzen duenaren ideologia da (ACNUR, 2018). Ez dugu xenofobiarekin nahastu behar; izan ere, xenofobia eta arrazakeri terminoak askotan ez dira ondo erabiltzen (ACNUR, 2018). Alde batetik, xenofobo esaten diogu atzeritik etorritako pertsona guztiak baztertzen dituen pertsonari. Hau da, kasu honetan ez gara kulturetan oinarritzen, baizik eta soilik beste leku batekoa izateagatik, nazionalitate berdina ez izateagatik, xenofobia den pertsona horrek baztertzeko joera du. Arrazakeriari buruz hitz egiten dugunean, bere arrazagatik, azalaren kolorearengatik, jatorri etnikoagatik edo hizkuntzagatik pertsona bat baztertzeari deritzogu. Hau da, izaki bat gorrotatzea eta normalean, pertsona batek beste batetik duen nagusitasun sentimendu irrazionala ematen da.

Etnia eta arrazei buruz hitz egiten dugunean, oso garrantzitsua da kontuan hartzea badagoela arrazak existitzen ez direla eta etnia hitza erabili beharko litzatekeela baieztatzen duen teoria. Hala nola, ezaugarri fenotipiko ezberdinak dituztenak sailkatzeko momentuan (Dominguez, Sandoval eta Islas, 2021), hain zuzen ere. Desberdintasun hauek begi bistakoak diren ezaugarriak direla esan dezakegu, behagarriak diren ezaugarriak, hain zuzen ere; hala nola, begien eta azalaren kolorea. Pertsona baten fenotipoa konposizio genomikotik eta ingurumen-faktoreetatik abiatuta zehazten da (Albes, 2017). Alde batetik, etniak alderdi kulturelei egiten die erreferentzia, herentzia-kulturala duten pertsonak hain zuzen ere. Hau da, hizkuntza, erlijio, arbaso, ohitura, etab. berdinak dituzte eta horregatik, identitate sozial komuna osatzen dute. Arraza faktore biologikoetan oinarritzen da, belaunaldiz belaunaldi pasatzen diren ezaugarrietan; hala nola, azalaren eta ilearen kolorea. Bi hauek desberdintzen ditugun momentuan, konturatu gaitezke, ezin ditugula gizakiak arrazaren arabera baztertu ezta sailkatu. Horregatik, etnia hitza eta ideia erabiltzea hoberena izango litzateke, modu honetan, batez ere eskolan, hurrengo belaunaldiek ikasiko baitute etnia desberdinak daudela eta guztiak errespetatu behar direla modu berdinean, betiere etnia horiek giza eskubideak errespetatzen badituzte.

Bi gai horien barruan, diskriminazio hitza ere sar dezakegu. Diskriminazioa elementu bati, kasu honetan, pertsonari, edo talde bati besteengandik desberdintzen dien ezaugarriak izateagatik, tratu desberdin eta bereizgarria ematean datza (Cear, 2014). Hala nola, aipatzen ditugun ezaugarri hauek,



kultura, genero, adin edo maila sozialekin zerikusia izan dezakete. Lantzen ari garen gaiekin lotuta, arrazakeria, xenofobia eta adopzioa izan daitezke bazterkeriaren arrazoietakoa bat.

Hezkuntza munduan aurkitu dezakegun arrazakeriari erreparatzen badiogu, lehenik eta behin argi izan behar dugu oso adin txikiko haurrak berez ez direla arrazistak. Hau da, bi urteko haur batek ez dio bere lagunaren azalaren koloreari jaramonik egingo eta berarekin jolastuko du nolana ere. Honekin esan nahi dudana da arrazakeria ez dela hain adin txikietan garatzen, baizik eta helduagoak garenean hasten da. Hau da, Enesco, Giménez, Navarro eta Del Olmok (1999) ondorioztatu zuten 3 urteko haurrek haien izaera deskribatu behar zutenean, arropen koloreak aipatzen zituztela azalaren kolorea esan ordez. Aldiz, 4 urte dituztenean, jada kolorea azalarekin erlazionatzen hasten dira eta etnia batekoa edo bestekoa direla konturatzen dira.

Honen harira, Terrének (2002) dio eskolak duen oinarritzko lehenengo akatsa curriculumak dela. Kasu honetan, atzerriko kulturek duten ikusezintasunak errekonozimendu eza dakar ondorio bezala eta horrekin batera, gabezia pedagogiko larria. Bi ondorio larri dakar horrek: alde batetik, ikasleek oro har giza aniztasunari buruz duten ezagutza murriztea eta bestetik, gutxiengoan autoestimuarik kalte egitea, identifikatzeko irudi positiborik ez dutelako. Bi arrazoi garrantzitsu dira kultura arteko hezkuntzaren ikuspegitik, suposatzen baita giza aniztasuna hobeto ezagutzeak atzerarazi egiten dituela ikasleen aurreiritziak eta autoestimua handitzeak lagundu egiten duela ikasle gutxiengoan hezkuntza-errendimendua murrizten.

#### **4.4 Arrazakeria ume adoptatuengan**

Kultura desberdina izateagatik bizitzen diren arrazakeria egoerei adopzioa gehitzen badiogu, bazterkeria eta diskriminazioa gehiago sortzeko arrazoi gehiago ematen ari dizkiegu erasotzaileei. Alde batetik, haiekin bizi diren helduak ez direlako guraso biologikoak eta bestetik, besteengandik desberdintzen dituzten ezaugarri fisiko eta kulturalak izaten dituztelako, atzeritik etorri baldin badira hain zuzen ere. Kasu honetan, bi baldintzak betetzen dituzten eta abusu hauek sufritzen dituzten haurren egoerak nolakoak diren ezagutuko ditugu.

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, kultura desberdinak dituzten haur adoptatuen tasa igo egin da azken urteetan, hortaz, eskoletan ere, hauen presentzia nabaria da. Horrela, arrazakeriarekin batera, badago ume adoptatuei zuzenean eragiten dien arrazakeria. Kasu horietan, askotariko erasoak jasan behar izaten dituzte; hala nola: “zenbat kostatu zaizu?”, “zure benetako semea/alaba da?” (adoptatua izan den haur baten aurrean egindako galderak) edo “abandonatu egin zintuzten tontoa zarelako eta ez zintuztelako maite” (ikaskide batek beste gelakide adoptatu bati esandakoa) etab.

(Mugica, 2012). Haur adoptatuek horrelako komentarioak entzuten dituzte parkean, eskolan, kalean edo bestelako espazioetan. Eta ez da helduen kontua soilik, haurrek ere, kanpoko faktoreengatik, horrelakoak esaten dituzte.

Zer nolako eragina dute komentario horiek haurrengan? Mugicak (2012) eta Albese (2017) ondo azaltzen duten bezala, bizipen horiek haur adoptatuaren autoestimua eta auto-irudia kaltetzen dute. Ondorioz, haur adoptatuak biktima gisa erasokor erantzuten du borroka edota jarrera suntsitzaileekin. Honekin ondorioztatu dezakegu haurrak ez daudela prest eraso horiei aurre egiteko; hau da, ez dute autodefentsa egiteko baliabiderik. Horrez gain, haur adoptatuen jarrera hobeto ulertzeko, Mugicak (2012) dio, adoptatzen ditugun ia haur guztiek beren adopzio-esperientzia bizi dutela, beren ingurune hurbilena ulertu gabe. Ez dute aurkitzen norekin partekatu/hitz egin beren abandonu eta adopzio esperientzien inguruko sentimendu eta bizipenak.

Eskolari dagokionez, kritika latza egiten diote Garai eta bestek (2022). Alde batetik, eskolak haur hauek ulertzeko duten ezgaitasuna kritikatzeko dute. Hau da, eskola erakunde bezala eta irakasleek sentsibilitate gutxi dutela diote; izan ere, ez dira babestuak ezta seguruak sentitzen. Hala ere, hezkuntza arloko profesionalen artean, informazio asko falta dela eta ezjakintasun handia dagoela onartzen dute; ez da aitzakia, errealitatea da. Horrela, irakasleei oinarrizko hiru balore eskatzen dizkiete: pazientzia, iraunkortasuna eta pertseberantzia. Horrekin batera, euren ikerketaren arabera, familiek faltan botatzen dute baliabideak edo materiala eta sostengu emozionala, haur hauek ulertzeko. Bukatzeko, hezkuntza inklusiboa ere aipatzen dute, lehen esan dugun bezala, denak kontuan hartzea eta bakoitzaren beharrak asetzen saiatzea. Honekin lotuta, bullying-a azalartzen da, eskolan protagonista den gaia, hain zuzen ere. Kasu honetan, arrazakeri itxurako bullying-a dugu esku artean (Garai et al., 2022).

Robledok (2012) ere, eskoletan oso formakuntza gutxi edo ezer dagoela kritikatzeko du. Hau da, egindako inkesta batean, irakasleen %65ek formazioa behar zuela onartzen zuten, gaiaren inguruan gehiago jakin eta haien lana ondo egin nahi dutelako (Robledo, 2012). Aipatzen dugun formakuntza edo espezialitate honetan, gutxieneko eduki hauek zerrendatzen dira (Robledo, 2012). Hala nola, adopzio internazionalarentzako behar bereziak izatea eta egoera berezi hauen aurrean esku-hartzeko oinarrizko ezagutzak izatea, haur adoptatuek izandako abandonuaren ondorioak zeintzuk diren ezagutzea ere garrantzitsua da, atxikimenduaren teoria ezagutzea eta hezitzaileak eta haur adoptatuek izan dezaketen harremana zein izan daitekeen jakitea, hezkuntza estrategiak zeintzuk diren jakitea, eskola eta gela haurraren ongizatea sustatzeko eremu bezala ikustea, etab.

Eskolak dituen egin beharrekoen artean, irakaslearen rola oso garrantzitsua da, haien eredu nagusienetarikoa garelako. Baina askotan, informazio eza dagoela errealitate bat da eta horregatik da

haur adoptatu eta atzerritarren aurrean askotan ez dakigula zer egin edo nola jokatu. Lehenik eta behin, gelaren aurrean bere sentimenduak, beldurrak, frustrazioak, etab. azaleratzen laguntzea da. Hemen, parentesi txiki bat ireki nahiko nuke; izan ere, ez du aipatzen, baina hau jolasen bitartez egin daiteke. Adibidez, unibertsitatean ikasitako jolas bat, hitz solteen bitartez istorio bat egitea datza. Hau da, irakaslea hitzak esaten joango da eta haurrek aldi berean ipuina sortuko dute. Aurreko zeregina ondo egiten badugu, posiblea izango da haurrek hitz horiek haien errealitatearekin erlazionatzea. Nahi gabe, haurrak hitz horiek entzutean, iraganean edo orainaldian errazago bizi ari dena askatzeko modu polita izan daiteke; betiere giro lasaia dagoen bitartean. Bigarrenik, gelan ikasten diren kontzeptuei dagokionez, familiaren eredu desberdinak ikustea ezinbestekoa izango da, ez bakarrik haur adoptatu horrek, baizik eta gelako haur guztiek. Hala nola, kasu honetan bezala, biologikoki bere familia ez diren gurasoak izatea, adoptatu duten guraso homosexualak izatea, beste etnietako gurasoak izatea, etab. Hau ere baliagarria izango da, inguruko haurrek bere egoera uler dezaten. Hirugarrenik eta azkenik, kulturari dagokionez, gelan lantzen diren lurraldeen kulturak aprobetxatuz, haur adoptatu horrek duen kultura onartu dezan saiatu behar gara. Horrek oso ondo funtzionatzen du gaur egun eskola askotan egiten den proiektuen bidezko metodologiarekin (Espino, Casino eta Llinares, 2014).

Esan bezala, nahiz eta egiteko oraindik asko dagoen, eskola eremuen adopzio eta arrazakeri gaiak lantzen ditugunean, badaude ideia komun asko, adibidez, haur adoptatuen pribatutasuna oso garrantzitsua dela (San Román, 2012). Hau da, hainbeste haurrekin gelan gaudenean, irakasle moduan, ezinbestekoa da adoptatuak izan ez diren haurrei jakinaraztea galdera zehatz batzuk ezin direla egin. Hala nola, “zergatik haur horren amak ez zuen maite?” edo “zergatik pertsona hori ez da bere benetako ama?”. Gu, helduok, berehala nabaritu dezakegu galdera mota horien agresibitate maila oso altua dela, baina haurrek ez dute modu horretan ikusten. Horretarako gaude gu ere, galdera horiek gelan zergatik ezin direla egin azaltzeko. Honekin erlazionatuta, Román eta Palacios (2011) haurraren segurtasun psikologikoari buruz hitz egiten dute. Hau da, lehen ikusi ditugun galdera mota horiek haurraren osasun mentalean asko eragin dezakete; izan ere, nahikoa dute adoptatua eta gainera beste leku batekoa izateagatik duten motxilarekin. Gainera, adoptatutako haur askok zoritxarreko esperientzia goiztiarrak bizi izan dituzte, abandonuak eta tratu txarrek markatutakoak. Horren ondorioa, haren garapen emozionalari oso modu negatiboan eragitea da eta mesfidantzan oinarritutako buru-loturak sortzen dituzte (Román eta Palacios, 2011). Honen harira, haurren komentarioak zuzentzeko hainbat iradokizun egiten dituzte; hala nola, “egiazko ama/aita”, “berezko semea/alaba” esan beharrean, “ama/aita biologikoa”, “seme/alaba biologikoak” esan dezakegu. Gomendio hauek, beste hitzetan, limiteak dira eta 2-7 urte bitarteko adinean oso garrantzitsuak dira haurraren jarrerak kontrolatzeko (San Román, 2012).

Haurren ongizatea sustatzeko eta baieztatuzko, eskolek hainbat helburu, erronka eta egitekoak dituzte haien egunerokoan. Zehazki, bai adoptatutako ikasleek, bai beste leku batzuetatik familiekin

iritsi direnek, dibertsitatea eta aniztasuna eskaintzen diote eskolari eta estereotipo desberdin horiei esker, biharko gizartea nolakoa izango den hobeto ulertzeko balioko die (San Román, 2012). Eskolako liburategietan dauden material eta liburuei erreparatuz gero, gehienek familia tradizionalak eta kaukasiar motako pertsonaia zuriak baino ez dituztela ohartuko gara. Gizartea aldatu egin denez, beharrezkoa da berritzea, umeez bizi garen mundu globala berrikus dezaten. Etxean zein ikastetxean, liburuek eta hezkuntza-materialek etnia desberdinetako pertsonaiak erakutsi beharko lituzkete, haurrek identifikatzeko rol desberdinak garatuz. Horrez gain, beharrezkoa da eskolan istilu xenofoboaren aurrean tolerantziarik ez izateko politika bat ezartzea eta guztiok eskubide eta aukera berberak izango dituzten izango dituzten gizarte bat lortzeko lan egitea (San Román, 2012). Era berean, kultura-aniztasuna guztiok aberasten gaituen zerbait bezala ospatzeaz gain, garrantzitsua da funtsezkoa azpimarratzea.

Eskolaren ildotik jarraituz, eta kulturaren gehiago zentratuz, Robledo (2012), Espino, Casino eta Llinares (2014) eta Albese (2017) askotan erreparatzen ez diogun faktore bat aipatzen dute: hizkuntza. Hauek diote batez ere adopzio internazionala denean, haur hauek duten zailtasun handienetarikoa hizkuntza dela. Honekin batera ere, leku berri honen hiztegia jakiten ez dutelako, diskriminazio eta arrazakeria egoerak ematen direla. Beraz, dena lotuta dagoela esan dezakegu. Gaiarekin jarraituz, egoera honetan dauden umeez, adibidez Euskal Herrian gertatzen den bezala, haien hizkuntzarekin zerikusirik ez duen beste batekin topatu daitezke, kasu honetan euskara.

Bukatzeko, eraso arrazistek, xenofoboek eta besteen intolerantziak gatazkak sortzen dituzte familia, eskola eta gizarte ingurunearekin (Mugica, 2012). Hau nahiko normala dela esan dezakegu; izan ere, askotan entzun izan dugu haur adoptatuek familiarengan duten jarrera ez dela hobereana. Baina, zergatik? Haiek ez daudelako guztiz ondo, sufritzen ari dira. Helduok ere askotan jarrera hori izaten dugu emozionalki gaizki gaudenean; hala nola, besteekin haserretzen gara, ez dugu ondo erantzuten, ez dugu jarrera positiboa besteekiko... Modu batean edo bestean barruan dugun guztia botatzen saiatzen gara eta askotan jendearen kontra egiten dugu.

## **5. Datu bilketa**

Orain artekoan, ume adoptatuen ohiko ezaugarriak aurkeztu eta aztertu ditugu. Horri orain atal enpirikoa erantsiko diogu; esan dugun guztia betetzen den baieztatzeko asmoz eta egoera hauek gertutik ikertzeko. Horrela, ume adoptatuen azalean jarriko gara, protagonistei zein euren guraso adoptiboek elkarriketak eginez. Jarraian aurkeztuko da ikerketa honetan erabilitako lagina eta metodologia.

## 5.1 Parte-hartzaileak

Guztira 6 pertsona elkarrizketatu ditut. Ume adoptiboetara dagokienez, 21-22 urteko hiru gazte izan dira protagonistak, mutilak hirurak. Guraso adoptiboen taldea ama batek eta bikote diren senar-emazteek osatzen dute. Ondorengo taulan jasotzen dira xehetasunak.

Kodea	Taldea	Adina	Generoa	Jatorria	Bizilekua	Adopzio adina (urteak; hilab.)
A1	A (ume adoptatua)	21 urte	Mutila	Bulgaria	Zumarraga	2;5
A2	A (ume adoptatua)	22 urte	Mutila	Kolombia	Zumarraga	6
A3*	A (ume adoptatua)	22 urte	Mutila	Bulgaria	Vitoria - Gasteiz	3;4
G1	G (Guraso adoptiboa)	Ezezaguna	Emakumea	Kolombia	Vitoria - Gasteiz	7
G2	G (Guraso adoptiboa)	Ezezaguna	Emakumea	Bulgaria	Vitoria - Gasteiz	3;4
G3	G (Guraso adoptiboa)	Ezezaguna	Gizonezkoa	Bulgaria	Vitoria - Gasteiz	3;4

\*Oharra: A3 parte-hartzailea G2 eta G3ren seme adoptiboa da.

## 5.2 Prozedura

Elkarrizketak lehenengo gazteei egitea erabaki nuen; izan ere, nire adineko pertsonekin hitz egitea errazagoa izango zela uste nuelako. Ez zen oso zaila izan adoptatuak izan diren neska-mutilak aurkitzea; egindako elkarrizketak jada ezagutzen nituen pertsonen egindakoak direlako, A3ren kasuan izan ezik.

Hasteko, gai nahiko delikatua denez, lehenengo kontaktua atsegina eta konfiantzazkoa izatea erabaki nuen; beraz, horretarako, elkarrizketatu bakoitzarekin zuzenean geratu nintzen haiek erabakitako leku seguru eta lasai batean. Honekin batera, lanari buruzko informazioa eman nien haien esperientziak non bukatuko zuen jakin zezaten. Elkarrizketak bakarkakoak izan ziren eta guztiek bi ordu iraun zuten gutxi gora behera. Dinamikoak izan zedin eta aurrez aurre geundela aprobetxatuz, haien ahotsak grabatu nituen ondoren, lanaren bukaeran ikusi daitekeenez, informazio guztia transkribatzeko. Noizean behin, galdera-erantzuna behin eta berriz ez izateko, momentuan egin nitzakeen komentarioak edo gehigarriak botatzen nituen, modu honetan ere, haientzako lagungarriak ziren arnasa hartzeko eta beste apunte batzuk egiteko.

Bi galdetegi sortu ziren, bat gazte adoptatuentzako eta bestea guraso adoptiboentzako. Lehenengo ereduak, 6 atal ditu eta guztira, 40 galdera egin zaizkie hiru gazteei eta berriz, bigarren ereduak 5 atal dituenek, galdera gutxiago erantzun behar izan dituzte helduek, 26 hain zuzen ere. Galderen kantitatearen aldeak ez du inolako esanahirik; izan ere, bi taldeak garrantzitsuak dira, informazio elkar-osagarria eskainiko duten aldetik.

Parte-hartzaile guztiak euskara-gaztelania elebidunak zirela kontuan hartuta, galderak gaztelaniaz eta euskaraz planteatu ziren; haien esku zegoen hizkuntza batean edo bestean erantzutea. Gazteen kasuan, hirurek erantzun zituzten gaztelaniaz, erosoago sentitzen zirelako eta gurasoek berriz, denek euskaraz egin zuten galdetegi osoa. Elkarrizketatu guztiak galdera guztiak zintzotasunez erantzun zituztela aipatu beharra dago. Inork ez zuen trabarik jarri eta ongi eta gustura sentitu zirela aipatu zuten bukatutakoan.

## **6. Emaitzak**

Gazte adoptatuei (1. Eranskina) eta guraso adoptiboiei (2. Eranskina) egindako galderak desberdinak direnez, emaitzen berri emateko ondorengo atalak bereizi dira:

### **6.1 Gazte adoptatuak**

#### **6.1.1 Adopzio aurreko urteak**

A1 Bulgarian jaioa da eta bi urte eta erdirekin adoptatu eta Espainiara etorri zen. Familia adoptiboarekin elkartu baino lehen, ume askok bezala, hango umezurztegi batean bizi zituen bere lehenengo bi urteak. Gehienei gertatzen zaigun moduan, ez du bizipen horiei buruzko oroitzapenik; beraz, ez daki zein nolako harremana zuen hango haur eta helduekin. Hala ere, haurtzaroari buruz hitz egiten duenean, oso normala izan dela dio, “hemen jaio den edozein haurrena bezalakoa”, hain zuzen ere.

A2ren kasuan, nahiko hazita adoptatu zuten, sei urterekin, hain zuzen ere. Hori dela eta, adopzio aurreko urteei buruzko informazio gehiago emateko gai izan da eta bere oroitzapenak ez direla oso atseginak dio. Izan ere, haur batek ikusi behar ez lituzkeen egoerak eta substantziak ikusi zituela onartzen du elkarrizketan. Besteak ez bezala, A2 harrera-etxe batean egon zen hiru urtez, baina hori baino lehen, bere senideen esku desberdinetatik igaro zen denboraldi batez. Han, beste haur batzuekin bizi zen eta haien tutoreekin. Azkenean, jada adoptatua izan zenean, Euskal Herrian bizi zuten esperientzia nahiko positiboa izan zela kontatzen du.

A3 Bulgarian jaioa da, hiru urte eta lau hilabeterekin etorri zen bere bikiarekin, biak izan zirelako guraso berdinek adoptatuak. Honek, A1k bezala, umezurztegi batean igaro zituen bere bizitzako lehenengo urteak, beste haur eta helduekin denbora eta espazioa partekatzen. Hala ere, berriz gertatzen da, oso goiz adoptatu zutenez, ez duela ezer gogoratzen, baina, bere susmoa da ez zutela helduengandik behar zuten arreta guztia; izan ere, ez du maitasunezko egoerarik gogoratzen, adibidez.

### **6.1.2 Guraso biologiko eta adoptiboekiko atxikimendua**

A1ri guraso biologikoei buruz galdetzen zaionean, ez dituela ezagutu eta ez dituela ezagutu nahi esaten du. Izan ere, haiek ez dira bere benetako gurasoak eta bere iritziz, ez da bidezkoa haien bizitzan agertzea bientzako oso egoera arraro eta deserosoa izango litzatekeelako. Berriz, familia adoptiboarekin duen erlazioari dagokionez, betidanik oso babestuta sentitu da eta oso harreman ona du bai amarekin eta bai aitarekin, nahiz eta bananduta egon. Elkarrizketan zehar, gurasoekiko konfiantza handia duela azaleratzen du eta betidanik haiekin edozein gauzaz hitz egiteko aukera izan duela dio.

A2k ez ditu bere guraso biologikoak ezagutu, baina, ezagutu nahian dabil, “baina oso zaila izaten ari da tramitea egitea” dio. Arrazoia da ia haur adoptatu guztiek duten abandonuaren trauma sendatzea eta bere familiako senideen aurpegia ikustea. Etxeko egoerari buruzko informazioa eskatzen zaionean, gurasoekin zuen hasierako harremana bikaina zela dio, baina nerabezaro garaian, gatatzak eta arazoak hasi zirela onartzen du, bai amarekin eta bai aitarekin. Baina, behin krisialdi denboraldi hori bukatu zenean, sendotuta eta konfiantzaz beterik atera zirela kontatzen du poz-pozik.

A3ren familia biologikoari dagokionez, bere ama biologikoa ezagutzeko grina zuen eta udan ezagutzeko aukera izan zuen, baina bere bikiak, berriz, ez du ezer jakin nahi. Egia esan, elkarrizketan zehar behin eta berriz bere ama biologiar buruz hitz egiten zuen, bizitako esperientzia kontatuz. Bere hitzetan, behar handia zuen berarekin egoteko eta harreman bat sortzeko, gainean zuen pisua kentzeko hain zuzen ere. Egungo guraso adoptiboekiko harremana ez da gustatuko litzaiokeen bezalako; izan ere, komunikazioa oso eskasa da, konfiantzarik ez dago eta egoera ez da hobetzen, okertu baizik.

### **6.1.3 Eskolatzea**

A1ren kasuan, eskola publikoan ikasi zuen eta bere hitzetan, gelan aniztasun handia zegoen. Hau da, bera ez zen atzerritar bakarra eta ezaugarri fisiko desberdinak zituen haur bakarra. Hala ere, hizkuntzarekin primeran moldatu zen hasiera hasieratik eta horregatik ere oso azkar integratzea lortu zuen. Horrez gain, bera txikitatik oso pertsona irekia eta hiztuna izan da eta ez du inoiz lagunak egiteko arazorik. Gainera, bere esanetan ez zuenez traumarik, ez zuen arreta berezirik behar.

A2k ere eskola publikoan ikasi zuen eta herriko eskola zenez, gela guztia familia modukoa zen. Hau da, guztiak ziren lagunak eta kuadrilla bat ziren azkenean. Gainera, bera ere hizkuntzarekin ondo moldatu zen lehenengo momentutik eta horrek komunikatzeko eta lagunak egiteko erraztasun handia eman zion.

A3ri eskolari buruz galdetu zaionean, asko sufritu duela errepikatzen du behin eta berriz. Honek, aurrekoek ez bezala, arrazakeria bizi izan du (bere azal kolorea A1 eta A2rena baino ilunagoa dela nabarmendu behar da): beste leku batetik etorri zelako eta adoptatua delako, hain zuzen ere. Nahiz eta besteek bezala eskola publikoan ikasi, bertaratzen ziren familiak oso euskaldunak ziren, hemen jaiotakoak hain zuzen ere. Gainera, elkarrizketetan murgiltzeko arazoak zituenez, lagunak izateko ahalegin asko egin behar izan zituen. Horrela, baztertuta sentitzen zen besteek ez ziotelako integratzen laguntzen. Irakasleek gainera, beste alde batera begiratzen zuten eta ez ziren sufrimendu hori gelditzen saiatzen.

#### **6.1.4 Arrazakeria**

A1ek dio “zorte” handia izan du alderdi honetan. Arreta gehien deitzen duena da arrazakeriarik sufritu ez duela; ez eskolan, ez kalean eta ez familia barruan. A1ek uste du bere azalaren kolorea oso iluna ez denez, beste jendearekin nahasteko zortea duela eta horregatik, eskolan, ez duela inoiz horrelako arazorik izan.

A2k, A1ek bezala, bere hitzetan, gelako lagunei esker arrazakeria bizi ez zuela ziurtatzen du, ez eskolan, ez medikuan... Hala ere, nahiz eta bere eskolan oso ondo integratu zen, beste ikastetxeetako haurrek botatako komentarioak aipatzen ditu; hala nola, “vete a tu país”, “chocolate” eta bestelakoak. Gaur egun ez ditu kontuan hartzen eta egoera hori arrazista izan zen arren, orain arte ez dituela gehiago bizi esaten du.

A3ren esperientzia ezin da beste gazteenarekin konparatu. Kasu honetan, oso txikitatik arrazakeri egoerak bizitzea tokatu zitzaioela kontatzen du. Gelako “liderren” ahotik arrazakeriarekin lotuta dauden komentarioak entzun behar izan zituen; “niño chocolate”, adibidez eta eskolak eta batez ere irakasleek ez zituzten ez A3 ezta bere gurasoak ere lagundu. Soilik akademikoki laguntzeko prest egon zirela gogoratzen du. Arrazakeriaren gaiarekin jarraituz, familian ere asko sufritu zuela dio; izan ere, bazeuden adopzio egoera onartzen ez zuten eta baztertzen zuten hainbat senide. Bere zailtasun kognitiboengatik ez ezik, ezaugarri fisikoengatik ere begiradak nabaritzen ditu. Hau da, familia barruan inork ez dio inoiz ezer esan, baina jarrerarekin dena esaten ziotela baieztatzen du.



### **6.1.5 Osasun mentala**

Alí traumaren inguruan galdetuta, orainaldian soilik pentsatzen duela eta horregatik bere guraso biologikoei buruz ezer jakin nahi ez duela dio, beraz, osasun mentalari dagokionez, gehiegi sufritu ez duela errepikatzen du behin eta berriz. Gainera, aurretik ikusi dugun moduan, arrazakeri eta bazterkeria egoerak sufritu ez dituenek, ez du motxilan beste haur adoptatuek eraman dezaketen nahasmen eta trastornorik. Hala ere, aipatzen du nahiz eta arrazakeria bizi ez duen, bere identitate sexualagatik egoera homofoboak bizi dituela eta nahiz eta gehiegi ez eragin, egoera deserosoak izan zirela kontatzen du.

A2ren kasu honetan, osasun mentala eta familia nahiko lotuta doazela ikus daiteke; izan ere, kontatzen du nahiko sufritu duela nahiz eta txikia zenetik integratua egon, lekuz kanpo sentitzen zelako, etxean batez ere. Honek azaltzen du adoptatuak heldu bihurtzen diren heinean, geroz eta galdera gehiago etortzen zaizkiela burura; hala nola, “zergatik gertatu zait hau niri?”, “nola izango litzateke nire bizitza adoptatua ez banintz?”, etab. Bizipen eta gaiei buelta asko ematen dion pertsona dela onartzen du eta horrek ez dio lagundu tokatu zaion egoerari erraz aurre egiten. Horri buruz ere asko hausnartu duela dio, baina, azkenean, onartzea eta aurrera jarraitzea erabaki du.

Osasun mentalari buruz galdetu zaionean, A3k dio txikitatik, A2k bezala, bere buruan galdera asko bueltaka izan dituela eta abandonuaren traumak hor jarraitzen duela onartzen du, bere egunerokoan eragiten duela dio, harremanetan batez ere, bere lagunekin eta gurasoekin; hain zuzen ere. Sendatu ez den eta barruan dagoen frustrazioa jarrera txarretan adierazten duela esaten du; hala nola, abandonua, bizitako arrazakeria, bazterkeria, ezjakintasuna, etab.

## **6.2 Guraso adoptiboak**

### **6.2.1 Adopzio prozesua**

G1 amaren kasuan, bere senar ohiarekin batera haur bakarra adoptatzea erabaki zuten; izan ere, berak esaten duen moduan, bere ideia betidanik haur bat hartzea izan zen, ez biologikoki izatea. Beraz, asko ikertu ondoren, Kolonbiako zazpi urteko haurra ekartzea erabaki zuten. Berak esaten du haur adoptatu bat bi biologiko izatea bezala dela; izan ere, hauek dituzten abandonuaren trastornoarengatik eta dituzten hutsuneengatik, lan handia egin behar da eta diru asko behar da hori guztia hobetzen joateko. Adopzioaren prozesua egiteko, Kolonbiaz gain, beste herrialde batzuk ikertu zituzten baina azkenean, hor egiten zen tramitea nahiko legala zela konturatu ziren. Haurrari dagokionez, oso azkar eraiki zuten harremana; nahiz eta haurra hasieran nahiko beldurtuta sentitu. G2 eta G3 gurasoek bezala, adopzioari buruzko gauza gehiago eta errealagoak jakitea nahi izango zukeen adoptatu baino lehen, ez delako esaten diguten bezain erraza.

G2 eta G3 bikoteak bi haur adoptatzea erabaki zuten, anaia biologikoak zirenak; izan ere, biak batera etortzen baziren, bata besteari babesa eman eta elkar lagunduko zutela uste zuten. Haiiek eskatzen zuten gauza bakarra bi haurrak osasuntsu egotea zen eta beste guztia berdina zitzaien; hala nola, mutila ala neska bazen, azal kolorea, jatorria; etab. Lehenengo hainbat argazki ikusi zituzten eta nahiz eta adoptatu aurretik hainbat zalantza suertatu zitzaizkien, haien ezaugarri fisikoengatik sufrutuko zuten arrazakeriarengatik, aurrez aurre ezagutu zituztenean baiezkoa esan zuten dudarik gabe. Adopzioari buruz galdetzen zaienean, oso idealizatuta zutela onartzen dute eta aldeztu aurretik benetan zer izango zen jakitea gustatuko litzaikeela azaltzen dute.

### **6.2.2 Egokitzapena eta atxikimendua familian**

G1en semeak familia adoptiboarengandik izandako harrerari buruz hitz egiten duenean, ez du ezer larririk azpimarratzen; izan ere, denek onartu zuten txiki-txikitatik. Honek eta bere senarrak oso harreman estua eraiki zuten haurra oso txikia zenetik, adoptatua izan zen lehenengo momentutik eta hori gaur egungo erlazioan islatzen da. Esan bezala, bananduta daude, baina gazteak ez du arazorik bata edo bestearekin kalitatezko denbora igarotzeko eta bikotearen artean komunikazioa dagoenez, edozein arazoren aurrean batera borrokatzen dute. Honek esan nahi du gurasoek eta semeak lan ona egin dutela harreman segurua eta sendoa, konfiantza eta errespetua lortzeko. Hala ere, G1k dio 23 urteko bere seme adoptiboak badituela beste arazo mota batzuk; abandonuarekiko beldurra, adibidez.

G2 amak dio bere familia eta bere senarrarena nahiko desberdinak direla, horregatik, haien semei desberdin tratatu zieten. Kasu honetan, amaren familia, batez ere amonak asko zaindu zituen bi bikiak eta maitasunaz gain, jostailuak eta materiala oparitzen zuen ahal zuen bakoitzean. Etxean, ama zen batez ere akademikoki gehien laguntzen zuena eta horregatik, hainbeste denbora haiekin egoteagatik eta bere jarrera oso lasaia denez, gaur egun, bere semeekin harreman estuagoa izatea lortu duela dio. Hau da, edozein gauza gertatzen zaiela, lehenengo amari esaten diote eta ondoren aitari. Amaren ustez, haur hauek gurasoekin denbora gehiago igaro behar lukete eta haiek momentu horretan ez zekiten zein garrantzitsua zen kalitatezko denbora eskaintzea, konfiantza eta harreman sendoagoa lortzeko.

G3 aitak dio bere semeek ez dutela bere familiarekin kontakturik ezta harremanik ere. Beste hitzetan, esan du, bere familian dauden beste kontuengatik, ez dutela harreman sendoa sortzeko aukerarik izan. Gaur egungo egoeraz galdetzen zaienean, nahiko kaxkarra dela onartzen du; gaur egun ez dute gehiegi hitz egiten, ia beti eztabaidan daude eta arazoak daude ez dutelako sostengu ekonomikorik. Laburki, bere hitzetan, haiek osasuntsu mantentzea da bere helburu nagusia; hau da, ondo jatea eta ezer txarrik ez gertatzea, lagunekin hitz egiteko ahalmena garatzen laguntzea, etab.

Seme adoptiboak txikiak zirenean ere, bere zereginak horiek zirela esaten du. Gainera, batez ere aitak, ez du ulertzen zergatik duten jarrera hori haiekin, haiek izan direlako dena eman dietenak.

### **6.2.3 Eskolatzea**

G1en semeak ez zuen hizkuntzarekin arazorik izan eta lagunak egiteko ere, nahiko malgua izan zela kontatzen du. Hala ere, aurrerago, heldutzen joan zen heinean, haur hauek nahiko bakartiak direla ohartu zen eta oso lagun gutxi izaten bukatu zuela konturatu zen. Esan bezala, nahiz eta akademikoki arazorik ez izan, atzean zuen motxila (nahasmen emozionala) nahiko nabaria zen, baina tutoreek eta irakasleek zer egin ez zekitela dio. Eskolari buruz galdetzen zaionean, beraz, haur hauei heziketa berezia eskaini ordez, ohiko ikasletzat hartzen dituztela dutela dio. Horregatik, irakasle formatuak behar direla esaten du, haur hauek ulertzeko gai diren tutoreak behar dituztela; bidelagunak, hain zuzen ere. Batez ere, ama honek alde emozionalari buruz asko hitz egiten du; hau da, alderdi sozio-emozionala gehiago zaindu behar dela nahiz eta akademikoa ere garrantzitsua izan. Adin horietan batez ere, asko sufritzen da eta emozionalki ondo zaintzen eta arazoak detektatzen ez baditugu, ondorioak ekar ditzake.

G2 amak eskolari buruzko anekdota bat kontatzen du, bitxikeri moduan eta guk ikus dezagun nola badauden ondo planteatuta ez dauden ariketak. Egun batean haien amen argazkia eramateko eskatu zitzairen, haurdun zeuden momentuaren argazkia, hain zuzen ere. Noski, ama honek ez zuen horrelako argazkirik, ez zirelako bere seme biologikoak. Horregatik eta egoera hauek bideratzen ez dakitelako, haur hauen egoera kontrolatzen jakingo duten eta egoeraz informatuta eta formatuta egongo diren irakasleak behar direla diote bi gurasoek. Ama adoptiboa, pedagogoa denez, semeen irakasleei materiala eskaintzen zien, baina ez zen haien interesekoa.

G3 aitak gogor salatzen du eskolak izandako jarrera. Hau da, haien semeen egoera zein zen ikusirik, ez zuten ezer egin, ez zituzten lagundu. Eta horrez gain, oztopo gehiago jartzen zituztela kontatzen du; izan ere, ez zituzten haurrak ulertzen eta baliabide faltengatik, kurtso batetik bestera pasatzea nekez lortu zuten. Gainera, haur hauen egoera berezia zela azaltzen saiatzen ziren bakoitzean, ezetz esaten zuten eta beste ikasleei eskaintzan zieten heziketa eta baliabide berdinak izango zituztela errepikatzen zieten. Gainera, arrazakeriaren gaiarekin ere asko sufritu zuten, eskolak beste alde batera begiratzen zuelako.

### **6.2.4 Arrazakeria**

G1en semeak, arrazakeriari dagokionez, sufritu duela onartzen du, lanean zehar ikusi ditugun komentarioak entzun behar izan dituelako bere azala eta jaioterriarengatik. Berak esaten du gizarteak,

ohiko egoeratik desberdintzen den oro baztertzen duela eta bere semea, adoptatua eta kanpotarra da, beraz, bazekien gizarte gaixo honetan zer gertatuko zitzaien.

G2k dio, bere semeen itxurari dagokionez, haien azal kolorea iluna zela eta ijitoen eta errumaniarren ezaugarriak zituztela konturatu zirenean, hor hasi ziren lehenengo aurreiritziak, etxean. Izan ere, haiek diote bazekitela zenbat sufrituko zuten gure gaur egungo gizartean. Horrez gain, nahiz eta eskola publiko batean ikasi zuen, hona bertaratzen ziren familia ia guztiak euskaldunak ziren; hau da, gehienak Euskal Herrian jaiotako familiak ziren, beraz, ez zegoen beste lekutako jende gehiegirik. Esan bezala, bere azalaren kolorearengatik “chocolate” deitzen zuten, guztiz baztertzea lortu zuten arte. Baina ez bakarrik haurren erabakiarengatik, askotan klasekideen gurasoak ere egoera horien atzean zeuden; adibidez, urtebetetzeetan ez zituzten etxetara gonbidatzen, lan taldeak egiteko orduan ez zituzten kontuan hartzen... lagun guztiak galdu arte.

G3k, berriz, familian sufritutakoa kontatzen du. Berak esaten du senide askok, haien semeak ziren moduarengatik arraro begiratzen zituztela eta nahiz eta gurasoen aurrean komentariarik ez egin, begi bistakoa zen ez zituztela osotasunean onartzen; begiradengatik, hain zuzen ere. Gainera, akademikoki ere zailtasunak zituztenez (hizkuntza, arreta, maila intelektuala), familiako beste senideek lortu zutena ezin zutenez, baztertu egin zituzten denborarekin.

### **6.2.5 Osasun mentala**

G1en kasuan, gaur egun 22 urte dituen bere semea oso goizetik hasi zen terapian eta gaur egun jarraitzen duela dio, baina horri buruz aurrerago hitz egingo dugu. Bere semeari buruz hitz egiten duenean, beste pertsonetikiko desberdina dela dio; baina ez bakarrik bere semea, baizik eta adoptatuak izan diren guztiak dira desberdinak. Hau da, haur hauek dituzten nahasmena eta hutsuneak eta traumak, orokorrean, bere guraso biologikoekin bizi diren hurrek ez dituzte. Hala ere, honen harira, osasun mentalari buruz galdetzen zaionean, orain arte aipatu ez den gaia ateratzen da, bere buruaz beste egitea, suizidioa beste hitzetan. Haur hauek oso bakartiak direla dio eta denbora asko bakarrik daudela esaten du. Dituzten arazo hauekin, bere semeak noizbait hori egingo duen beldur da. Horrekin batera, eskolan eta gizartean, dituzten ezaugarriengatik, baztertzen dituzte; izan ere, normaltasunetik ateratzen den oro, arraroa da eta baztertu egiten da.

G2k eta G3k elkarrizketa hasieratik argi uzten digute haien semeak hainbat arazo kognitibo dituela; hala, nola, atzerapen intelektuala eta “trastorno del apego” deitzen diotena. Gainera, diagnostikatutako atzerapen horren ondorioz, gelakideek zituzten elkarrizketak ezin zituen guztiz ulertu, ez zuen besteek zuten maila akademiko berdina, etab. Horrekin batera, harremanetan ere azaroak dituela esaten dute, G1en semea bezala, abandonuarekiko beldur izugarria du eta ez du

besteengan konfiantzarik. Hau guztia lantzeko, psikiatra zerbitzu publikora bertaratzen da, baina honek ez du ezertarako balio. Izan ere, hiru hilabete behin ematen diote zita. Guraso hauek diote asko sufritu dutela haien semearen egoerarengatik eta oraindik ere egunero, pazientzia handia izan behar dutela onartzen dute.

### **6.3 Parte-hartzaileen arteko konparazioa**

Gazte adoptatuen eta guraso adoptiboen elkarrizketen berri atalez atal eman eta gero, horien arteko berdintasun eta desberdintasunak landuko ditugu ondorio moduan.

Lehenik, haurren berdintasunei dagokionez, gehien errepikatu den hitza abandonuaren trauma da. Logikoa, haien familiek abandonatu zituztela kontziente baitira, bakoitzak bere arrazoiengatik, baina abandonatu dituzte. Eta hemen parentesi txiki bat ireki dezakegu; izan ere, hirurek esaten dute haien adopziozko gurasoak direla benetako gurasoak, eta ez biologikoak. Horrekin batera, ia guztiek dituzte harremanetan arazoak, asko sufritzen baitute lagunak edo bikotea aldentzen direnean edo haserretzen direnean, utziko dituela pentsatzen hasten direlako.

Sentimendu honek sufritu duten arrazakeri eta bazterkeriara eramaten gaitu. Denek ikasi dute eskola publiko batean, non suposatzen den inklusibitate eta dibertsitate zabalagoa dagoen; baina kasu batzuetan ez da horrela izan. Batzuetan ez da arrazakeriarik eman, beste batzuetan mikro arrazakeria egon da arrazoi nagusia azalaren kolorea izanda, eta bestean berriz izugarritzko arrazakeria ikusi dugu, bai eskolan eta bai familian ere. Hala ere, kasu guztietan familiak beti asko maite izan du semea. Eta eskolaren jarrera egoera hauen aurrean, guztietan izan da berdina; hala nola, arrazakeri eta adopzioaren gaia “tabu” izan dira, bakar batek ere ez baitu gogoratzen gelan aipatutako hitz bakar bat ere ez. Horrez gain, inork ez du eskolan laguntza psikologikorik (psikologoa, terapeuta, jarraipena...) izan, eta izan badu, gurasoek ordaindu dutelako edo osasun publikoak ezarritakoa izan da. Azkenean, guztiek, tokatu zaien egoera onartu dutela diote, nahiz eta hasiera batean beldurra eta intseguritatea izan duten, eta gaur egun ere izaten jarraitzen duten galderak, etab. Pixkana ulertzen joan dira, egoera honekin bizitzen ikasi arte. Azkenik, prozesu honetan gehien errepikatu diren sentimenduak, tristura, intseguritatea eta beldurra izan direla esan dezakegu.

Bigarrenik, desberdintasunak aztertzen baditugu, berdintasunak baino askoz gutxiago direla konturatuko gara. Adoptatuak izan aurreko oroitzapenei buruz hitz egiten dugunean, bi kasu desberdinu ditzakegu; alde batetik, Kolonbian, harrera-etxea dute, eta bestetik, Bulgarian, umezurztegian uzten dituzte haurrak. Bietan haurrek ez dute behar duten atentzioa eta maitasuna eskuratzen, baina batean edo bestean bizitzeak esperientzia desberdinak ditu. Honekin lotuta, orokorrean gazteek trauma oso nabarmenak dituztela azaleratu dute elkarrizketetan, A1ek izan ezik, arrazakeriarik bizi izan ez eta osasun mentalari dagokionez, arazorik ez duela esaten duena. Ez dugu

tresnarik hori benetan hala den baieztatzeko; dena dela, kontuan hartu behar da maiz, errealitateak min egiten duenean, gezurra esatera behartzen gaituela.

Hirugarrenik eta gurasoen ikuspegira etorrira, hirurek pentsamendu oso berdintsuak dituztela ikusi dugu. Adopzioaren kontzeptuari buruz, hirurek berdina komentatzen dute: oso idealizatua dagoen prozesua da eta adoptatu baina lehen, esperientzia errealak eta gardenak entzun behar direla, lan zama handia dakarrelako. Gainera, ez instituzioak eta ez eskolak ez du laguntzarik eskaintzen eta jasotzen bada, oso eskasa da; hala nola, osasun publikoa. Honekin esan nahi dena da gizarteak eta hezkuntzak ez dituztela haur hauek ulertzen eta horrez gain, normalitatetik ateratzen direnez, baztertzen dituzte; izan ere, hirurek diote haien semeek hurrengo ezaugarriak dituztela: “trastorno del apego”, abandonuari beldurra, harremanetan zailtasunak, etab. Beste hitzetan, adopzio prozesutik sortutako arazo emozionalak.

Gainera, haien semeek arrazakeria bizi dutela diote, eskolan komentario berdintsuak entzun behar izan dituztela. Eta ez haien semeek bakarrik, baizik eta haien lagunengandik ere komentarioak entzutea tokatu zaie; hala nola, “¿Cómo se te ocurre adoptar?”, “¿Tú sabes dónde te metes?”, etab. Hala ere, guztiek maite dituzte haien semeak eta ez dira ezertaz damutzen.

Laugarrenik, desberdintasunak ere badaudela esan dezakegu. Nabarmenena aurreiritzien gaia izan daiteke. Esan bezala, G1 eta G2 bikoteak, haurrak ezagutu zituztenean, aurreiritziak izan zituztela onartzen du, beraiek lehenengo arrazistak izanez. Berriz, bigarren ama, G3k ez zuen horrelakorik pentsatu, bere izaera desberdina delako edota adoptatu nahi zuela oso seguru zegoelako. Gainera, gurasoekin jarraituz, bi familien harremana nahiko desberdina dela konturatzen gara. Terapiarik jaso ez duten familian, haien artean dagoen komunikazioa oso eskasa da eta ez da sendotzen, apurtzen baizik. Gazteen jarrerak ez du etxean laguntzen eta gurasoek ez dakite nola konpondu eta ahal duten moduan erantzuten dute. Bananduta dagoen amaren kasuan berriz, bere semearekin duen harremana oso estua eta sendoa dela azaltzen du; izan ere, biok batera joan dira terapeutarengana eta laguntza profesionalarekin, konfiantza eta komunikazioa izaten ikasi dute. Mutilak behar duen bidelaguna da ama eta aita ere bai.

Laburbilduz, orokorrean, atzerritik adoptatutako hurrek patroi berdintsuak dituztela ikusteko aukera izan dugu eta ez bakarrik gazteek, gurasoek ere pentsamendu antzekoak agertzen dituzte. Honekin, nahiz eta haur hauek besteengandik desberdinak diren, guk, irakasle moduan, bidelagunak izateko eta egoera hauek egoki aurrera bultzatzeko lan egin behar dugula esan dezakegu.

## **7. Ondorioak**

Lan honekin atera dugun ondorio nagusia da hezkuntzan zein gizartean ez zaiolabebar besteko garrantzirik ematen haur adoptatuaren ongizateari. Pertsona batek haur bat adoptatzen

duenean, beste lurralde batekoa izateko aukera handiak daude; eta alde batetik atzerritarra izatea eta bestetik adoptatua izateagatik hurrek diskriminazioa bizi dute egoera askotan. Hau da, oso ohikoa da umeak bazterkeria sufritzea bere jatorriagatik soilik edo adoptatua delako, baina badaude kasuak non biak batera batzen diren. Eta ez hori bakarrik, elkarrizketatutako gurasoek zioten moduan, begi bistakoak ez diren desgaitasun kognitiboarengatik ere baztertu egiten dituzte, ez-ohiko jarrerak dituztelako, gizarteak ez ditu nahi.

Bigarrenik, bai hezkuntza mailan eta bai sozialki, adopzioaren gaia zailtasun gehien dituen gaienetariko bat dela esan dezakegu. Izan ere, protagonistak diren haur hauek dituzten ezaugarriak eta egoera honi aurre egin behar dieten gurasoek dituzten oztopoen eraginez, nekez lortzen dute prozesu arrakastatsua izatea. Horrekin batera, aurreko ataletan ikusi dugunez, haur gehienek dituzten jarreraren aurrean eskolak ez daki ondo nola jokatu, badakigu zeintzuk diren haien jarrerak, baina zaila da sentimendu eta emozioak ageri diren egoeretan esku-hartzea. Hainbat autorek azaldu duten moduan, egoera honetan dauden hurrek sufrimendua, frustrazioa, tristura, haserrea, babesgabatasuna... sentitzen dute, izan ohi duten traumarengatik. Gainera, ikusi dugun moduan, nahiz eta adopzioa eta immigrazio kasuak azken hamarkadan ugariagoak izan diren, gizarteari sorrarazten dion arazo eta inplikazio maila altuarengatik, maiz baztertu egiten den gaia da.

Hirugarrenik, eskolak haur adoptatu eta atzerritarra den horri laguntza eta baliabide gehiago eskaini beharko litzioke akademikoki aurrera jarraitzeko eta nahi ditugun helburuak lortzeko. Haur txikiek oso azkar ikasten dutela esaten da, baina beti ere haien egoeretara moldatuta dauden material egokiek; jolasak, liburuak, ipuinak, fitxak edo pelikulak. Modu honetan ere, emozioak, harremanak, sentimenduak, arauak, limiteak, etab. jorratzeko aukera izango dute. Beste aukera bat ere logopedak eta psikologoak ezartzea izan daiteke; hau da, kasu hauek ondo landuko dituzten profesionalak gelara ekartzea. Egia da beti ezin direla horrelako baliabideak eskaini, baina garrantzitsua da erreminta horiek hobetzea eta ahalik eta azkarren esku-hartzea.

Ildo horretan, oso esanguratsua da Murtzian garatu duten “Zaintza-eskola” izeneko ekimenari erreparatzea, hezkuntza mailan adibide gisa izan beharko genukeen proiektua baita. “Zaintza-eskolak” haurtzaroan adbertsitateak sufritu dituzten haurrei zuzendukdaude, aipatutako zailtasunak dituzten haurrei. Bertan parte hartzen duten profesionalen lehenetsua dagelako ingurune babestua sortzea eta segurtasuna adieraztea, haur hauek biziko duten trantsizioan gazteak zaintzea etaharremanak sortzeko baliabidemoduan erabiltzeakomunikazioa, besteak beste. Irakasleek konexioa izan behar dute hurrekin, erresilientziaren ideia landuz, emozioen lanketa eginez, etab. (Marín, 2022). Horrez gain, haurren familia ere kontuan hartzen dute eta horrekin batera, intentsitate txikiko arazo sozialetan zaindu behar ditugula diote. Laburbilduz, burura etortzen zaigun hitza inklusibitatea dela esan

dezakegu, haur hauek nahiz eta “desajuste” emozional eta zailtasun kognitiboak izan, kontuan hartu behar ditugula eta haien bidelagunak izan.

Laugarrenik eta azkenik, aurrekoaren harira, komunikazio bideak ireki behar dira, diskriminazio esperientzia horiek gertatu aurretik gazteek hitz egin dezaten; hau da, bizipen hauek kontatzeko prestatu behar ditugu. Beste hitzetan, guk irakasle bezala dugun zereginetako bat haurrekin komunikatzea dela esan dezakegu. Elkarrizketatutako amek zioten moduan, gazte hauek ez dute konfiantzazko irakaslerik, ezin dute sentitzen dutena azaleratu. Oso garrantzitsua da harreman estua sortzea eta haiek gu konfiantzazko pertsonak bezala ikustea. Hau ez da modu erraz batean lortzen eta aurretik lan handia egin beharko dugu. Honen harira, Barquín (2015) dio gelan adibidez, kulturak lantzen ari direnean, haur immigranteen istorioak, haien kulturak, hizkuntza, erlijioa, etab. entzuten saiatu ohi gara baina, haien lekuan jarritz gero, bizipen gogorak direnean, zaila izaten da hori guztia kanporatzea. Horregatik, oso garrantzitsua da ingurune hurbila sortzea eta esperientzia guztiek berdin balio dutela irakastea (Barquín, 2015). Beste hitzetan, ikastetxea, lagunak, senideak, etab. “antena” gisa erabiltzeko prestatu behar dira. Haurrak barruan duen guztia adierazi dezan, oso garrantzitsua da seguru eta gustura sentitzea, bestela, ez du ezer esango. Beste hitzetan, hau ez badugu lortzen, Mugicak (2012) dioen bezala, ez dira prest egongo horretaz hitz egiteko, prebenitzeko eta modu asertiboan jarduteko.

Lan honetan aztertutako artikuluko guztietan gurasoen garrantzia aipatzen da, hain txikiak garenean gure erreferenterik nagusienak direlako hain zuzen ere. Horregatik, eskolak eta etxeok batera lan egin behar dutela uste dut; izan ere, modu honetan, haurren ongizatea sustatzeko aukera gehiago izango ditugu. Alde batetik, irakasle moduan, gelan giro goxoa izan dezagun, kultura desberdinei, adopzioari eta familia mota desberdinei buruz hitz egin beharra dagoela agerikoa da. Nire ustez, nahiz eta gaur egungo egoera onera aldatu den, oso txikitatik erreferente desberdinak izan beharko genituzke; hala nola, bi ama/aita dituen umea, ezaugarri oso anitzak dituzten haurrak, etab. Hitz gutxitan, aniztasuna zer den irakatsi. Eta hori egiteaz gu arduratu behar gara, errealitate eta ideia sorta zabala eskaintzea aurrerago topatuko duten errealitatea ezagutzen joateko.

Hezitzaileon rolaekin jarraituz, irakasleok beste zeregin bat ere badugula uste dut, entzutea hain zuzen ere. Lanean zehar aipatu dugu, askotan, hurrek ez dutela inguruan euren sentimenduak edo ideiak kontatzeko inor eta horregatik, gu izan gaitezke eskolan aurkitu dezaketzen sostengua. Gainera, behar bezala informatzen bagara, haurren kezkek entzuteaz gain, haien egoera espezifikoean gehiago murgiltzeko eta esku-hartzeko aukera gehiago izango ditugula uste dut.

Gainera, gure gaur egungo gizarteari kritika egin nahi diot. Lan hau egin eta gero, guk, hezitzaileok, ardura handia dugula konturatu nahiz baina ez guk bakarrik, gizartea osatzen duten pertsona orok dugu erantzukizuna. Izan ere, haurrak ez dira arrazistak jaiotzen, gizarteak egiten ditu



arrazistak. Horregatik, denok batera lan egin behar dugu, talde batek egiten duen lana beste batek suntsitzen badu, ez dugulako ezer lortuko. Hala ere, esan nahiko nuke, oinak beti lurrean izan behar ditugula. Kontziente izan behar gara horrelako lan bat egin eta gero, ez dugula mundua aldatuko, baina gutxika gauzak lortzen joan gaitezke, bai irakasle, bai eskola eta bai guraso moduan. Askotan ez dugu gehiegi pentsatzen, eta ez gara kontziente zer nolako eragina duten gure jarrera eta hitzek haurren garapenean. Horregatik, lehenengo gu geu prestatu behar gara gero haurra oinarri horren arabera hezteko; hau da, heldua da haurraren mailara jaitsi behar dena, umeak helduarenera igo ordez.

Bukatzeko, haur adoptatuek dituzten trastorno, nahasmendu eta zailtasunak ere aipatu nahiko nituzke. Elkarrizketatutako gurasoek zioten moduan, adopzioa oso idealizatua egon ohi da eta sufritzen duten bazterkeria bakarra arrazakeria dela pentsa daiteke. Horrez gain, lan honek ere balio izan du ikasteko ume adoptatuek dituzten indarguneak. Izan ere, haur izaten jarraitzen dute eta edozein haurrek dituen ezaugarriak dituzte; hala nola, jakin-mina, intriga, lagunak egiteko gogoia... Beraz, nahiz eta lanean zehar haur hauen zailtasunak eta gabeziak aztertu ditugun, azkenean gaitasunak ere badituztela ikusteko aukera izan dugu.

## 8. Erreferentziak

ACNUR, (2018). *Xenofobia y racismo, diferencias y cómo afectan a nuestra sociedad*.  
Webgune honetatik berreskuratuta:

[https://eacnur.org/blog/xenofobia-y-racismo-diferencias-y-como-afectan-a-nuestra-sociedad-tc\\_alt45664n\\_o\\_pstn\\_o\\_pst/?tc\\_alt=47342&n\\_o\\_pst=n\\_o\\_pst&n\\_okw=\\_\\_c\\_52693938160&gclid=Cj0KCCQiA6NOPBhCPARIsAHAY2zDUKi7iPTeFuj-msP-T7uT\\_XgU9rUNAAurQ-FM-ZZWr6lqnfkxdVHPQaAt\\_yEALw\\_wcB](https://eacnur.org/blog/xenofobia-y-racismo-diferencias-y-como-afectan-a-nuestra-sociedad-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/?tc_alt=47342&n_o_pst=n_o_pst&n_okw=__c_52693938160&gclid=Cj0KCCQiA6NOPBhCPARIsAHAY2zDUKi7iPTeFuj-msP-T7uT_XgU9rUNAAurQ-FM-ZZWr6lqnfkxdVHPQaAt_yEALw_wcB)

Albes, C. (2017). *Adoptutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.

Barrére, M<sup>a</sup>. & Morondo, D. (2011). Subordinación y discriminación interseccional: elementos para una teoría del derecho antidiscriminatorio. *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 45, 15-42.

Barquín, A. (2010). Etorकिनен seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da? *Hik-hasi*, 143 (29-32).

Barquín, A. (2015). ¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante? *Educar*, 51 (2), 443-464. <http://doi: 10.5565/rev/educar.671>

Cear Euskadi. (2014). *Diccionario de Asilo*. Webgune honetatik berreskuratuta:  
<https://diccionario.cear-euskadi.org/discriminacion/>

Cardona, M<sup>a</sup>., Giner, A., & Chiner E. (2013). “Investigación e Innovación Educativa al Servicio de Instituciones y Comunidades Globales, Plurales y Diversas”. *Actas del XVI Congreso Nacional/II Internacional Modelos de Investigación Educativa de la Asociación Interuniversitaria de Investigación Pedagógica*. 2013ko irailaren 4-6a, Alicante.  
[https://www.uv.es/aidipe/congresos/Actas\\_XVI\\_Congreso.pdf](https://www.uv.es/aidipe/congresos/Actas_XVI_Congreso.pdf)

Dominguez, C., Sandoval, F., & Islas, P. (2021). Sustitución del término raza por etnia, un intento de buena voluntad fallido. *Revistas Unison*, 6 (2), 27-31.

Espino, M<sup>a</sup>., Casino, A., & Llinares, L. (2014). Familia, escuela y adopción internacional. La inclusión educativa. *Familia*, (48), 61-78.

Eusko Jaurlaritzak. (2018). Atzeritar jatorrizko eskolatzea EAeko eskola-sisteman: diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/211203/Atzeritar.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Garai, B., Lasarte, G. Tresserras, A. & Corres, I. (2022). El alumnado con trastorno de apego en el limbo escolar. Voces de las familias y profesionales que los y las acompañan. *Revista de Investigación en Educación*, 20 (2), 71-90.

Giménez, G. (2005). La cultura como identidad y la identidad como cultura. *Consejo Nacional de Cultura y las Artes. Mexico*, 1-25.

Goenechea, C. (2016). La escuela pública de la España Multicultural: de Privilegios y muros invisibles. *Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 85 (30.1), 111-119.

Enesco, I., Navarro, A., Giménez, M., Del Olmo, C. (1999). Génesis de la conciencia racial: un estudio sobre identificación y actitudes hacia el color de piel en niños de tres a once años. *Estudios de Psicología*, 20 (63-64), 3-20.

Maganto, C. (2005). Variables relacionadas con el proceso de adopción y problemas infantiles pre y post-adopción. *Sección temática adopción*, 19 (1), 121-143.

Marín Lucas, F. A. (2022). *Investigando y acompañando los procesos de escolarización del alumnado que ha experimentado adversidades en la infancia*. "Hurtzaroan adbertsitateak bizi izan dituzten umeen eskolaratze-prozesuak ikertzen eta laguntzen" UPV/EHUko Udako Ikastaroko aurkezpena. Uztailak 13-15, Donostia.

Marrodán, J.L. (2009). *Guía para el apoyo educativo de los niños con trastornos del apego*: Libros en red.

Monzón F. E. (2020). *La adopción de los niños por parientes*. [Doktorego tesia]. Universidad Nacional Pedro Ruiz Gallo, Facultad de Derecho y Ciencias Políticas, Lambayeque.

Mugica, J.J. (2012). *La discriminación de niños y niñas de condición adoptiva*. Gizarte Ekintza Sailaren aurkezpena. Otsailaren 12a, Bilbao.

- Ochando, G., Peris, S., Loño, J. (2007). Trastornos de conducta en niños adoptados. *Revista de psiquiatría infanto-juvenil*, 24 (2), 224-231.
- Ortiz M., Pumarejo M., Llorens H., Godreau I. (2009). Proyecto de estudios de las mujeres de la universidad de Puerto Rico en Carey. *Identidades*,(7), 5-35.
- Robledo, J. M., (2012). Cómo debe tratarse la adopción en la escuela. *Revista de educación e inspección*, (24), 1-11.
- Román, M., eta Palacios, J. (2011). Apego, adopción y escolaridad. *Padres y maestros*, (339), 5-8.
- Luciano, M<sup>a</sup>. (2012). Skinner y el desarrollo psicológico. *Apuntes de psicología*, 30 (1-3), 69-76.
- San Román, B. (2012). La adopción: adaptando la escuela a los nuevos tiempos. *Padres y maestros*, (339), 41-42.
- Terrén, E. (2002). El racismo y la escuela: clima, estructura y estrategias de presentación. *Migraciones*, 81 (102), 81-102

## 9. Eranskinak

1. eranskina: Gazte adoptatuei egindako elkarrizketak.

### A1- Informazio pertsonala

1. **Adina, nazionalitatea eta jaioterria. / Edad, nacionalidad y lugar de nacimiento.**  
20 urte, nazionalitate espainiarra eta Bulgarian jaioa.
2. **Zenbat urterekin etorri zinen Zumarragara? / ¿Con cuantos años viniste a Zumarraga?**  
2 urte eta erdirekin.

### Familia

1. **Zure guraso biologikoak ezagutzeko aukera izan duzu? / ¿Has tenido la oportunidad de conocer a tus padres biológicos?**

Nire jaioterria eta umezurztegia ezagutzeko aukera izan dut, baina ez dut nire guraso biologikoak ezagutzeko momentua aurkitu.

2. **Oraindik ezagutu ez badituzu, ezagutzea gustatuko litzaizuke? / ¿Si aún no has conocido a tus padres biológicos, ¿te gustaría hacerlo?**

Esan dudan bezala, ez ditut nire guraso biologikoak ezagutu eta ez litzaidake gustatuko ezagutzea. Alde batetik, bai nire adopziozko gurasoak eta bai ni, oso normalizatua izan dugu hitz egiten ari garen egoera; adoptatua naizela, hain zuzen ere. Gainera, nire ustez eta beti pentsatu dut, gurasoak, hezten laguntzen dizutenak direla, beraz, ez dut inoiz izan nire guraso biologikoak ezagutzeko grina. Bestetik, nire guraso biologikoen “paperean” jarrita, hurrengoa pentsatzen dut: haiek ni eduki zidatenean, egoera latzengatik (ekonomikoki, familiarengatik, gaixotasunengatik, etab.) adopzioan eman behar izan bazidaten; beraz, azken finean, niretzako etorkizun hoberena bilatzen ari zutela uste dut, bai niretzako eta bai haientzako. Orduan, ez zait bidezkoa iruditzen 20 urte geroago haien bizitzan berriz ere agertzea, murgiltzea eta ezagutzen ez ditudan pertsonen nolabaiteko azalpena edo justifikazioa eskatzea. Gainera, esan dudan bezala, bi aldeak nahiko deseroso sentituko ginatekeela uste dut, haiek ez didatelako hazten ikusi eta hainbeste urte eta gero lehenengo kontaktua izango litzatekeelako. Hori guztiagatik, nire errealitatea ez dena berreskuratzen saiatzea hoberena ez dela uste dut, ez dugu buelta askorik eman behar.

3. **Ba al dakizu ea zure adopziozko gurasoek, formakuntzarik izan zuten egoera berri hau aurrera eramateko? / ¿Sabes si tus padres adoptivos recibieron algún tipo de formación por adoptar a un niño?**

Ez dut informazio hori. Hala ere, ni adoptatua izan aurretik, nire gurasoek ez dakit oso ondo zer egin behar izan zuten, niri buruzko zein informazioa duten, etab.

**4. Zure adopziozko gurasoekin duzun harremana ona da? / ¿La relación con tus padres adoptivos es buena?**

Bai, nahiz eta dibortzizatuta dauden, biekin harreman oso ona dut. Gaur egun, nire amarekin bizi naiz, beti izan dut berarekin harreman estuena, baina nire aita eta anai txikiarekin (nire ama adoptiboaren sabelatik jaioa) oso ondo eramaten naiz.

**5. Nolakoa da zure etxean duzun egoera? / ¿Cómo es hoy en día la situación en tu casa?**

Oso ona. Alde batetik, esan dudan moduan, nire gurasoekin dudan harremana oso estua da eta betidanik adopzioaren gaia gogoan izan dugu eta normaltasunez jarduten dugu arazorik gabe. Bestetik, nire anai txikiari, jaio zenetik, haur adoptatua naizela esan diogu, nundik natorren, etab.

**6. Nola sentitu zinen etxean? Eroso eta babes sentitu zara une oro? / ¿Cómo te has sentido en casa? ¿Siempre te has sentido arropado y protegido?**

Betidanik oso ulertua, onartua, eroso eta babes sentitu naizela esan dezaket. Inoiz ez dut honen inguruan arazorik izan; beraz, zortea izan dudala uste dut.

**7. Zure guraso biologikoekin kontaktua berriz ere izatekotan, nolabaiteko atxikimendua izatea posiblea izango zela uste duzu? / ¿Si llegarás a mantener algún tipo de contacto con tus padres biológicos otra vez, crees que llegarías a tener apego hacia ellos?**

Ez, eta inongo dudarik gabe gainera; izan ere, haiek ez dira ezer niretzako, ez dute inongo garrantzirik nire bizitzan. Nahiz eta nire ama biologikoa eduki, nire adopziozko familia jaso zidaten momentuan, hori izan da niretzako nire familia, nire burbuinean “klik” modukoa egin zuen eta pertsona horiei aintzatesten utzi zuen.

## **Eskola**

**1. Nola gogoratzen duzu zure esperientzia? / ¿Cómo fué tu experiencia en clase?**

Egia esan, ez dut lehenengo momentutik oroitzapen oso argiak; izan ere, hemen Haur Hezkuntza hasi nintzenean, hemen Espainian, 3 urterekin izan zen. Hala ere, pozik esan dezaket, inoiz ez dudala arazorik izan, ez Bulgarian jaio eta hortik etorri izanagatik eta ez adoptatua izanagatik. Egia da ere aniztasun handiko eskola publiko batean ikasi nuela; beraz, han beste haur bat nintzen. Hori da nire ustez gehien babestu nauena; izan ere, gaur egun, nahiz eta egoera aldatu den, arrazakeria edozein iskinean dago.

**2. Irakasleek desberdin tratatzen zintuzten? / ¿Los profesores te trataban diferente?**

Ez, inoiz ez. Esan bezala, beste haur bat nintzen gelan eta eskolan eta ez dut haiengandik tratatu desberdinik antzeman.

**3. Nola tratatzen zintuzten zure klasekideek? / ¿Que tipo de trato recibías por parte tus compañeros?**

Oso ona. Bitxikeri moduan, esango dizut, Bulgarian erabiltzen den hizkuntza hitz egiten etorri nintzela, baina, 15 egunetan, jada euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten nuen ia primeran.

Orduan, honekin esan nahi dizudana da, hizkuntza oso azkar menperatu nuenez, Haur Hezkuntza hasi nuen lehenengo momentutik, pertsonekin komunikatu eta harremanak egin ahal izan nituela. Gainera, nire izaerarengatik, soziala/lagunkoia naizelako, ez dut arazorik besteekin hitz egiteko eta pertsona berriak ezagutzeko. Gainera, gehituko dut, inoiz ez zaizkidala hurrengo ideiak burura etorri: “gaizki begiratuko naute”, “ez ditut lagunik egingo”, “desberdina naiz”, etab.

**4. Inoiz klasekideren batek galderaren bat egin zizun zu gehiago ezagutzeko? Zure bizitzari buruz interesatu ziren? / ¿En algún momento alguno de tus compañeros te hizo alguna pregunta para conocerte mas? ¿Se interesaron por tu historia?**

Bai, noski baietz. Nire 20 urtetan beti galdera berdinak egin dizkirate: “nongoa zara?” eta “zure guraso biologikoak ezagutzea gustatuko litzaizuke?”. Nire ustez, nire kasuan, nire azalaren kolorearengatik (marroixka) da galdera hori egiten didatela eta azkenean, nahitaez erantzun behar duzu.

**5. Azkar integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te integraste rápido?**

Bai, dudarik gabe: eskolan, kalean, klasekide eta irakasleen artean, etxean... Hitz gutxitan, esparru guztietan.

**6. %100 integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te llegaste a integrar al 100%?**

Nire ustez, ez; izan ere, ez gara inoiz %100-era integratzen. Baina bai esan dezaket, betidanik besteekin hitz egitea, margotzea, bakarrik egotea, taldearekin egotea, etab. gustatu zaidala. Azken finean, Euskal Herriko edozein ume izan dezakeen haurtzaro eta gazteria izan dudala uste dut.

**7. Eskolan bazterkeriarik jasan duzu? / ¿Has sufrido algún tipo de exclusión en la escuela?**

Ez, inoiz ez. Gai horretan egia esan zorte handia izan dudala eta inoiz ez dut horrelakorik sufritu.

**8. Tokiz kanpo sentitu zara inoiz? / ¿Te has llegado a sentir fuera de lugar en algún momento?**

Ezta, ez kanpotarra izateagatik eta ez adoptatua izateagatik. Nire klasekideekin betidanik harreman ona izan dut eta ez didate inoiz baztertu.

**9. Inoiz sentitu zinen taldearengatik presionatuta? / ¿En algún momento te sentiste presionado por el grupo?**

Ez eta esango dizut zergatik. Esan dudan bezala, eskola publiko batean ikasi nuen eta nire gelan atzerritar asko gauden. Haien eta nire arteko desberdintasun bakarra, haiek oraindik bere jaioterriko hizkuntza eta ohiturak zituztela da eta ni berriz, jada hemengo hizkuntza nekien eta nire iragana ia ezabatuta nuen. Egoera honen aurrean, integratzailearen papera hartu nuela uste dut; hau da, ni lortu nuena haiek ere lortzea nahi nuen. Hori guztiagatik eta Euskal Herrian jaio banintz bezala sentitzen nintzelako, ez naiz taldearengatik presionatuta sentitu.

**10. Adopzioaren eta migrazioaren gaiak ikasgelan lantzen ziren ala “tabú” gaiak ziren? Nola? / ¿El tema de la adopción y la migración eran temas que se trataban en clase o eran temas “tabú”? ¿Como?**

Egia esan, ez dut oroitzen horrelako gaietarako buruz hitz egin izana, ez arrazakeriarik buruz eta ez adopzioari buruz. Baina, uste dut, gaur egun dugun egoerari begira, gu txikiak ginenetik orain arte egin dugun aurrera pausoa oso handia dela nahiz eta oraindik egiteko asko dagoen. Hala nola, gaur egun ikuspegi handiago ematen zaie ezaugarri hauek dituzten pertsonetara: adoptatua izan denari, atzerritarrei, gaixotasun desberdinak dituztenei, etab. Gaur egun geletan materiala aurkitu dezakegu (bideoak, argazkiak, berriak...).

**11. Nola uste duzu aurre egin beharko lukeela eskolak horrelako kasuei? Zer uste duzu ezarri/aldatu beharko litzatekeela? / ¿Cómo crees que debería afrontar la escuela este tipo de casos? ¿Que crees que se debería implantar/cambiar?**

Orokorrean, ez dut uste eskolak ezer berririk egin behar duenik; izan ere, nahiz eta haurra adoptatua izan, haurra da eta haur batek egiten dituen gauzak egin behar ditu, adoptatua izan ala ez. Hau da, adoptatua izanagatik, ez da besteengandik desberdindu behar. Laburki, ni irakaslea izango banintz, haur guztiei heziketa berdina emango nieke. Hala ere, hitz egiten ari garen gai honetara berriz ere bideratuz, gaur egun dauden laguntzak; hizkuntza irakasten adibidez, mantenduko nuke eta laguntza psikologikoa ezarriko nuke dudarik gabe. Izan ere, orain arte osasun mentalari ez diogu behar duen denbora eskaini. Azken horren harira, beste leku batean jaioak direla onartzen ez duten gazte asko ezagutzen ditut; hala nola, nire bikotea izan zena. Horrek, ondorio latzak ditu; haien burua ez onartzea, horri buruz ez hitz egitea, hau guztia “tabú” bihurtzea, etab. Beraz, bai uste dut eskolak dituen baliabideak mantentzea eta ahal den guztia ezartzea hau ekiditzeko.

**12. Zein dira zuretzako hutsune ohikoak gai honetan? / ¿En tu opinión, que es lo que falta / que echas de menos en este tema?**

Nire kasuan, ez ditut hutsunerik aurkitzen; izan ere, arazorik izan duen pertsona naiz. Egia da eskolan eta kalean arazoak izan ditudala, baina ez arrazistak zirelako eta adoptatua izateagatik baztertzeko zidatelako, baizik eta homosexuala izateagatik. Horregatik bai asko sufritu dut, baina gai horientzat inoiz ez.

**13. Aurreko galderarekin lotuta, zein ondorio ditu hutsune horiek zure ustez? / Ligado a la pregunta anterior, que consecuencias crees que acarrea los vacíos de los que hablábamos?**

Behar hauek ez asetzeak, haurrak hutsune eta falta askorekin heztea ondorio nabariena dela uste dut; atxikimendu falta, adibidez. Lehen hitz egin dugun traumak “sendatzen” eta lantzen ez baditugu, heldu bihurtzean, arazo horiek handiagoak bihurtzen dira, bola bat egiten da. Nire bikotea zenaren kasuan, txikitatik hori onartu ez zuenez, gaur egun onartu gabe jarraitzen du eta geroz eta zailagoa egiten zaio.



- 14. “Jarraipenik” izan zenuen eskola edo irakasleengandik zure eboluzioa ikusteko? / ¿Tuviste algún tipo de “seguimiento” por parte de la escuela o de los profesores para ver tu evolución?**

Ez, irakasleek ez zidaten ezer galdetzen. Ez dakit ezer arraroa ikusten ez zutelako edo eskolak jarraipen horiek egiten ez zituztelako, baina ez zuten horri buruz nirekin hitz egiten.

- 15. Gogoratzen duzu eskolan laguntza psikologikoa izan duzun? Beharrezkoa dela uste duzu? / ¿Recuerdas haber tenido apoyo psicológico en la escuela? ¿Crees que es necesario?**

Ez, inongo laguntzarik. Egia da “TDAH” nuelako, bai laguntza berezia nuela, irakasleek asko laguntzen zidaten etxeko lanak egiten, etab. baina gai horien inguruan ez. Baina, bigarren galderari erantzunez, bai uste dut oso beharrezkoa dela lehen hitz egin dugun guztiarengatik.

### **Arrazakeria**

- 1. Arrazakeri egoeraren bat bizi izan duzula esango zenuke? Edo mikro arrazakeria? / ¿Dirías que has sufrido alguna situación racista? ¿O micro racismo?**

Ez, inoiz ez. Lehen esan dudan bezala, nire azalaren kolorea marroixka da baina ez oso iluna, beraz, Latinoamerikakoa naizela pentsatzen dute askok eta nire ustez, horregatik da arrazakeria sufritu ez izanaren arrazoi nagusia. Hau da, ezaugarri berdintsuak ditugunez, ez zaie hainbeste baztertzen, baina aldiz, adibidez, beltzarana izango banintz, egoera desberdina izango litzatekeela uste dut; izan ere, azalaren kolorea oraindik ere nahiko gai potentea da.

- 2. Desberdin tratatu zaituzte noizbait, beste leku batean jaio izanagatik? Zure eskolan, kalean, zure familian (osaba-izebak, lehegusu-lehengusinak...) / ¿Te han tratado diferente por nacer simplemente en otro lugar? En tu colegio, en la calle, en el núcleo familiar (tíos, primos...)**

Ezta. Bai nire amaren eta bai nire aitaren aldeko familiak beti maitatu naute eta behar guztiak asetu dizkirate.

- 3. Zer egin du eskolak egoera honen aurrean? / ¿Que ha hecho la escuela ante esta situación?**

Ezer. Esan dudan bezala, ez zidaten jarraipenik egin ezta galdetu ere, orduan, arazoak egon ala ez ez zekiten etxeko egoera ona ala txarra zen.

- 4. Eskolaz gain, izan al duzu bestelako kanpo laguntzarik? Lagunak, familia... / ¿A parte de la escuela, alguien ajeno te ha apoyado al ver que sufrías esta situación? Amigos, familia...**

Ez dut horren beharra izan. Nik uste dut, hitz egiteko orduan azentua izango banu edo lehen hitz egin dugun ezaugarri fisikorik nabariak izango balitz, gehiago sufrirituko nuke, baina ez da nire kasua izan.

**5. Uste duzu adopzioaren barruan arrazakeria dagoela? / ¿Crees que hay racismo a la hora de adoptar?**

Nire ustez ez eta esango dizut zergatik. Nire ustez eta dakidanagatik, betidanik adoptatu egin dira beste kontinenteetako haurrak. Baina dena den, arrazakeria azalaren kolorean zentratzen dela uste dut: beltza, marroi iluna, marroi argia, txuria... Horrez gain, arrazakeria gurasoengan dagoela uste dut; hau da, gurasoak arrazistak badira ala ez, oso barneratuta duten ala ez, haien kultura zein ideiak dituzten, guraso horien familiak nola hezi dituzten edo zein hezkuntzan eskaini dieten...

**Osasun mentala**

**1. Ba al dago eragozpenik sortu dizuten galderarik edo komentariarik? / ¿Hay alguna pregunta o algún comentario que te haya podido molestar?**

Bai eta duela gutxi, nire auzoko bikote batekin gertatutako egoera bat kontatuko dizut. Arratsalde batean beraiekin hitz egiten ari nintzela, betiko galdera egin zidaten: “zu nongoa zara?”. Behin nire kasua azaldu niela, mutilak ez zuen ulertzen, nik nire adopziozko gurasoak biologikoak izango balira bezala kontsideratzea eta ez “benetan” direnak eta nire anaiarekin berdin. Berak esaten zuen, ez zuela ulertzen nire adopziozko gurasoei aita, ama eta anaia deitzea. Orduan, lehen esan dizudana azaltzen hasi nintzen: gurasoak haurra hezten dutenak direla. Baina nahiz eta behin eta berriz azaldu, ez zuen ulertzen; izan ere, beste familia batetik zetorrela esaten zion. Nire ustez, hori ulertzen ez dituzten pertsonak, mentalki oso itxiak dira eta ohiko familiak bakarrik onargarriak direla pentsatzen dute.

**2. Zer pentsamendu errepikatzen ziren zure buruan? / ¿Que pensamientos eran recurrentes en tu cabeza?**

Egia esan, zorionez, ez dira ohera joan aurretik logurea kendu didaten gaiak izan, ezta nire familiarekin bazkaltzen egon naizen bitartean bueltak ematen haztea egin didatenak. Egia da denok motxila bat dugula, baina gai horiek ez dira nire kasuan pisu handiena dutenak.

**3. Gogoratzen dituzun 5 emozio zerrendatu beharko bazenitu, zeintzuk izango lirateke? / ¿Si tuvieras que enumerar 5 emociones que recuerdes, cuáles serían?**

Poztasuna, jakin mina/intriga eta urduritasuna.

**4. Zuretzat egun adopzioa gai tabua al da? Hitz egiten al duzu zure ingurukoekin zure kasuari buruz? Zure ustez, zer harrera dute? / ¿Para ti el tema de la adopción es un tema “tabú”?**

Ez. Hala ere, esan dudan moduan, betiko galderak aspertzen naute baina erantzuten jarraitu behar dut; modu honetan ere, gaia geroz eta gehiago ezagutarazi egiten dugu. Aldi berean, etxean batez ere, egunero jarduten den gaia da eta behin eta berriz hitz egiten dugu horri buruz. Batez ere, nire ustez, hitz egiten ez bada, “tabú” bihurtzen da, baina gogoratzen badugu berriz, sua berpizten dugu.

**5. Gaur egun, adopzioaren ondorioz, harremanetan arazoak dituzula uste duzu? / ¿Hoy en día tienes dificultades en tus relaciones a consecuencia de tu adopción?**

Ez. Betidanik lagunak izan ditut, bai eskolan eta bai kalean eta inoiz ez dut arazorik izan besteekin harremantzeko; izan ere, nire egoerak ez dizkit oztoporik sortu.

**Haurtzaroa/Nerabezaroa**

**1. Zein da zure haurtzaroari buruz duzun oroitzapenik politena? / ¿Cual es el recuerdo mas bonito que tienes sobre tu infancia?**

Egia esan ez dut nire jaioterriko oroitzapen askorik, aurreko galderetan esan dudana bezala, 2 urte eta erdirekin Espainiara etorri nintzen eta oso momentu gutxi bizi izan nituen han hemen baino. Horregatik, nire oroitzapen politenak hemen direla esan dezaket.

**2. Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa? Aldaketa asko izan zenituen? / ¿Cómo recuerdas tu infancia? ¿Hubo muchos cambios?**

Lehen esan ez dudana zerbait, nire adopziozko gurasoen prozesu guztia filmatu zutela da. Hau da, egin zituzten bidai guztiak, nire eboluzioa, etab. grabatu egin zuten. Horregatik dakit Bulgariako hizkuntza hitz egiten nuela, nolakoa nintzen ni txikia nintzenean... Horregatik dakit zein nolako aldaketak izan nituen nire haurtzaroan. Logikoki, Bulgarian edo Espainian egotea aldaketa handia izan zen, baina ni ez nuen gehiegi nabaritu oso txikia nintzelako.

**3. Nolako zailtasunak izan zenituen txikia zintenean? / ¿Que complicaciones recuerdas haber tenido siendo pequeño?**

Bat ere. Sozietatearekin, familiarekin, eskolan, hizkuntzarekin, etab. ondo sentitu naiz beti.

**4. Zure egoera zehatzarengatik trauma edo “sekuela”-ren bat duzula uste duzu? / ¿Crees que tienes algún trauma / secuela por tu situación específica?**

Ondorioztatu dezakezun bezala, zorionez, ez dut traumarik gai honen inguruan. Egia da ere, hausnarketa egiten badugu, nire kasuan, iragana iraganean utzi dudala uste dut eta beti orainaldian eta etorkizunean pentsatzen nago, beraz, niretzako iragana ez da garrantzitsua.

**5. Gainerako haurren haurtzaro/gaztaro bera izan duzula uste duzu? Eta aukera berdinak? / ¿Crees que has tenido la misma infancia - juventud que los demás niños? ¿Y las mismas oportunidades?**

%100 bai.

**6. Nola oroitzen duzu hori guztia? Garai zaila izan zen? Zergatik? / ¿Cómo recuerdas tu todo esa etapa? ¿Fue difícil? ¿Por que?**

Ez zen niretzako zaila izan oso txikia nintzelako, baina nahiz eta egoera zailak bizi, niretzako oroitzapen politak izango lirakeela uste dut, nire bizitzaren parte direlako.

**A2 - Informazio pertsonala**

**1. Adina, nazionalitatea eta jaioterrria. / Edad, nacionalidad y lugar de nacimiento.**

22 urte, nazionalitate kolonbiarra eta Kolonbian jaioa.

2. **Zenbat urterekin etorri zinen Zumarragara? / ¿Con cuantos años viniste a Zumarraga?**  
6 urterekin.

### Familia

1. **Zure guraso biologikoak ezagutzeko aukera izan duzu? / ¿Has tenido la oportunidad de conocer a tus padres biológicos?**

Ez, ez dut aukerarik izan eta ez dut haiei buruzko oroitzapenik, hutsune modukoa dut. Egia da nire guraso biologikoen “flashback” batzuk ditudala baina oso gutxi dira eta haien aurpegiak ez ditut gogoratzen, argazkiak ikusten baditut soilik nire senide batzuk ezagutzen ditut.

2. **Oraindik ezagutu ez badituzu, ezagutzea gustatuko litzaizuke? / ¿Si aún no has conocido a tus padres biológicos, ¿te gustaría hacerlo?**

Bai, nire guraso biologikoak ezagutzea gustatuko litzaidake, batez ere, nire bizitzaren parte izan direlako. Niretzako iragana oso garrantzitsua da eta ez ditut ahaztu nahi. Jada, hori lortzeko egin behar dudana prozesua egiten hasi naiz eta erantzunaren zain gaude. Azkenean, bi kontinente desberdinak direlako, hango diputazioak topaketa gainditu beharko dute.

3. **Ba al dakizu ea zure adopziozko gurasoek, formakuntzarik izan zuten egoera berri hau aurrera eramateko? / ¿Sabes si tus padres adoptivos recibieron algún tipo de formación por adoptar a un niño?**

Nire gurasoek ni izan baino lehen, adoptatuko duten edozein gurasoek bete beharreko baldintzak azaltzen duten paper guztiak erakutsi zizkidaten. Hala nola, etxeko giroa nolakoa den, familia egonkorra bada, haur bat mantentzeko haien egoera ekonomikoa egonkorra den ala ez, etab. Horrez gain, proba psikologikoa ere “gainditu” behar izan zuten, proba indibidualak hain zuzen ere. Hori guztiaz gain, ez dakit formakuntzarik izan zuten ala ez.

4. **Zure adopziozko gurasoekin duzun harremana ona da? / ¿La relación con tus padres adoptivos es buena?**

Bai, oso ona. Guraso eta seme-alabak dituzten harreman guztiak bezala, gure momentu onak eta txarrak izan ditugu; izan ere, lehen esan dudana moduan, iraganen pentsatzen nabil une oro eta horrek ondorioak ditu. Baina nire gurasoen laguntzarekin momentu horiek gainditzeko joan naiz eta gaur egun, gure harremana inoiz baino hobea dela esan dezaket. Ez dut esan, baina ni baino helduagoa den arreba bat dut eta nire gurasoek heziketa eta arreba berdina eskaini dizkigute bioi.

5. **Nolakoa da zure etxean duzun egoera? / ¿Cómo es hoy en día la situación en tu casa?**

Oso ona, izan ere, nire gurasoak batera daude eta hori da gaur egun baloratzen dudana gehiena. Gai honi lotuta, adopzioari buruz edozein momentutan hitz egin dezakegu eta edozein galdera edo duda izan dudanean, bai nire gurasoak eta bai nire arreba prest egon dira erantzuteko. Gainera, nire gurasoek lehenengo momentutik adoptatua izan nintzela esan zidaten eta ez dute

inoiz izkutatu. Egia esan, edozein gaiari buruz hitz egin daitekeen giroan hazi naiz eta horrek, edozein egoera normaltasunez eramatea sustatzen du, adopzioa edo arrazakeria adibidez.

**6. Nola sentitu zinen etxean? Eroso eta babes sentitu zara une oro? / ¿Cómo te has sentido en casa? ¿Siempre te has sentido arropado y protegido?**

Bai, babes eta eroso sentitu naiz ia beti. Hala ere, egia da, batzuetan pentsatu dudala alde batera uzten nindutela, nahiz eta errealtatean ez gertatu. Nire ustez, horiek ideia intrusiboak dira eta nire intseguritatei esker neure buruak sortzen zituen eszenatokiak ziren. Aldi berean, nire egoerari buelta asko eman dizkiot eta hurrengo galderak egiten nizkion neure buruari: “familia honekin bat nator ala ez?” edo “maite naute ala ez?”. Egunerokoan sortzen diren galderak dira nahiz eta haiek galdera horien erantzunak argi adierazi, baina denborarekin ideia horiek ezabatzen joaten dira eta horrekin bizitzen ikasten duzu.

**7. Zure guraso biologikoekin kontaktua berriz ere izatekotan, nolabaiteko atxikimendua izatea posiblea izango zela uste duzu? / ¿Si llegaras a mantener algún tipo de contacto con tus padres biológicos otra vez, crees que llegarías a tener apego hacia ellos?**

Egia esan, ez dut uste atxikimendurik izango nukeenik; izan ere, lehen esan dudana bezala, 6 urterekin adoptatua izan nintzen eta ez dut haien aurpegiak gogoratzen, ez dakit nolakoa zen haiekin nuen harremana... Niretzako nire gurasoak hauek dira, ez Kolonbian daudenak.

## **Eskola**

**1. Nola gogoratzen duzu zure esperientzia? / ¿Cómo fué tu experiencia en clase?**

Nire kasuan, hango eta hemengo eskolak ezagutzeko aukera izan dut, nahiz eta aurretik esan dudana bezala, ez dut nire iragana osotasunean gogoratzen. Han denak berdinak ginen, ez zegoen desberdintasunik eta nire klasekideekin nuen harremana oso ona zen. Bitxikeri moduan, hango eta hemengo maila akademikoak oso desberdinak direla esango dizut, hemengoa aurreratuagoa nabaritzen dudalako. Gainera, nire kasuan, adoptatua izan baino lehen, 0 urtetik 3 urteetara, hiru etxe eta pertsonetik igaro nintzen harrera-etxera heldu nintzen arte. Han, 3 urtetik 6 urtera arte beste 5 haur eta bi helduekin bizi nintzen eta haiek ziren gure eskola eta beharrak ordaintzen zituztenak. Hemengo hezkuntzan izandako esperientziari dagokionez, ni Ikastolara joan nintzen eta han bezala, nire klasekideekin ondo eraman naiz eta gelako taldean sartzea lortu nuen; izan ere, nahiko berritsua naiz eta horri esker harreman estua sortzea lortu nuen.

**2. Irakasleek desberdin tratatzen zintuzten? / ¿Los profesores te trataban diferente?**

Orokorrean hemengo irakasleek ez didate inoiz desberdin tratatu, baina bai nabaritu nuen, ez dakit adoptatua edo kanpotarra nintzelako, lasaitasunez, poliki eta zintzotasunez hitz egiten zidatela, kristalez egina banengo bezala. Horrez gain ere, laguntza-gelara joaten nintzen, behar nuen errefortzua izateko. Hala ere, esan behar dut, oraindik txikia nintzenez, hurrengo urterako euskaraz hitz egiten banekiela.

**3. Nola tratatzen zintuzten zure klasekideek? / ¿Que tipo de trato recibías por parte tus compañeros?**

Egia esan zorte handia izan dut izan dudak klasekideengatik. Esan bezala, ikastolan ikasi nuen eta nahiz eta gelan atzerritar bakarra nintzen, oso babes eta eroso sentitu nintzen uneoro. Hala ere, egia da beti dagoela norbait jende berria eta kanpotarra desberdin eta gaizki tratatzen duena, baina orokorrean ez nuen arazorik izan nire gelakideekin; familia bat ginen eta lagun izatearen ideia edo kontzeptua oso barneratua zuten.

**4. Inoiz klasekideren batek galderaren bat egin zizun zu gehiago ezagutzeko? Zure bizitzari buruz interesatu ziren? / ¿En algún momento alguno de tus compañeros te hizo alguna pregunta para conocerte mas? ¿Se interesaron por tu historia?**

Momentuan bertan ez zidaten galderarik egin, oso txikiak ginen eta oraindik ez ziren galdera horiek sortu. Baina bai aurrerago, helduagoak ginenean, nire kuadrilako batzuek nire iraganari buruz zalantzak, galderak eta interesa adierazten hasi ziren, hala nola; “zure guraso biologikoak gogoratzen dituzu?”, “zure iraganari buruz zer gogoratzen duzu?”, “nolakoa zen bizitza han?”, etab. Edozein pertsonak izan ditzakeen zalantzak zituzten. Nire kasuan adibidez, auzo oso pobreak bizi nintzen baina nahiko lasaia zen beste lekuekin konparatuz.

**5. Azkar integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te integraste rápido?**

Bai, dudarik gabe: eskolan, kalean, klasekide eta irakasleen artean, etxean... Hitz gutxitan, esparru guztietan.

**6. %100 integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te llegaste a integrar al 100%?**

Denbora asko behar izan nuen %100 integratzeko; kurtso oso bat, hain zuzen ere. Esan dudak bezala, oso berritsu eta soziala nintzen txikia nintzenean eta horrek asko erraztu zuen harremantzeko egin behar den lanetan. Horri esker eta hizkuntza menperatu nuelako ere, lagun-taldean bikain integratu nintzen.

**7. Eskolan bazterkeriarik jasan duzu? / ¿Has sufrido algún tipo de exclusión en la escuela?**

Eskola barruan ez dut inoiz bazterkeriarik sufritu; izan ere, esan bezala, oso azkar egin nituen lagunak. Baina, bai beste eskolekin elkartzeko ginenean, txangoetan, adibidez, bai sufritu dut nolabaiteko arrazakeri eta bazterkeriak, komentarioengatik edota jokuetan ez zidatelako jolasten uzten.

**8. Tokiz kanpo sentitu zara inoiz? / ¿Te has llegado a sentir fuera de lugar en algún momento?**

Ez, ez kanpotarra izateagatik eta ez adoptatua izateagatik. Nire klasekideekin betidanik harreman ona izan dut eta ez didate inoiz baztertu.

**9. Inoiz sentitu zinen taldearengatik presionatuta? / ¿En algún momento te sentiste presionado por el grupo?**

Ez, inoiz ez. Behin integratuta, ez zeuden gure artean desberdintasunik existitzen, denok berdinak ginen eta denok haurrak ginen.

- 10. Adopzioaren eta migrazioaren gaiak ikasgelan lantzen ziren ala “tabú” gaiak ziren? Nola? / ¿El tema de la adopción y la migración eran temas que se trataban en clase o eran temas “tabú”? ¿Como?**

Egia esan, ez dut oroitzen horrelako gaiari buruz hitz egin izana, ez arrazakeriari buruz ez adopzioari buruz. Nire ustez, ez zen hitz egiten ez genituelako horrekin zerikusia zuten gaiak ukitzen, ez genuelako behar, ez zeudelako horrekin lotutako arazorik. Eta ez gu bakarrik, irakasleak ezta ez zuen ez adopzioaren ezta arrazakeriaren inguruan ezer esaten, baliteke esan dudanagatik.

- 11. Nola uste duzu aurre egin beharko lukeela eskolak horrelako kasuei? Zer uste duzu ezarri/aldatu beharko litzatekeela? / ¿Cómo crees que debería afrontar la escuela este tipo de casos? ¿Que crees que se debería implantar/cambiar?**

Nire kasuan, esan dizudan bezala, gelan ez zen gai hauei buruz hitz egiten eta gaur egun batez ere horri buruz hitz egitea oso garrantzitsua dela uste dut. Baina ez bakarrik hitz egin eta informatu baizik eta sustatu eta positiboki hitz egin. Hala nola, nik adibidez, programak eta jarduerak egingo nituzke haien artean nahasteko. Hau da, taldeak ez sortzeko (hemengo jendea hemengo pertsonekin eta kanpotarrak atzerriko pertsonekin) eta guztion artean ahalik eta interakzio gehiena izateko, eskoletan proiektu desberdinak sortuko nituzke. Honekin lotuta, nire gelan ez zeuden kanpotar gehiago baina beste kurtsoetan bai ikusi dut nola marokoarrak edo ijitoak baztertuta zeuden eta irakasleak zerbait egin arte bakarrik zeuden. Orduan hor ere ikusten da irakasleak paper garrantzitsua duela.

- 12. Zein dira zuretzako hutsune ohikoak gai honetan? / ¿En tu opinión, que es lo que falta / que echas de menos en este tema?**

Aurreko galderan aipatu dudana bezala, batez ere arrazakeria ekiditeko, gelan proiektu eta informazioa falta dela uste dut, baina horrez gain, psikologikoki haurrari lagunduko dion pertsona bat ere botatzen dut faltan eskoletan. Haurraren egoera psikologikoaz kezkatuko den pertsona bat edo gehiago egotea.

- 13. Aurreko galderarekin lotuta, zein ondorio ditu hutsune horiek zure ustez? / Ligado a la pregunta anterior, que consecuencias crees que acarrea los vacíos de los que hablábamos?**

Zuk haur bati ez badiozu laguntza morala, laguntza psikologikoa; hala nola, erabakiak hartzen, galduta sentituko da. Ez dut esaten haiek ezin dutela ezer egin, baina bai uste dut hain txikiak garenean, norbait behar dugula gu geu gehiegi ez galtzeko, hori izan daitekeelako beste ondorio bat. Beste hitzetan, bidelagunak izan behar ditu ahalik eta hoberen bizi ahal izateko.

- 14. “Jarraipenik” izan zenuen eskola edo irakasleengandik zure eboluzioa ikusteko? / ¿Tuviste algún tipo de “seguimiento” por parte de la escuela o de los profesores para ver tu evolución?**

Esan dudan bezala, psikologikoki ez dut jarraipenik izan, baina bai eskolako orientatzaileak nire notak zeintzuk ziren ikusten zituen eta oso baxuak baziren nirekin hitz egiten saiatzen zen. Hizkuntzari ere garrantzi asko ematen zion eta euskara ulertzen nuen ala ez galdetzen zidan edota zein puntu arte barneratuta nuen, baina, errepikatzen dut, bakarrik jarraipena akademikoa izan da. Hau da, ez zidaten etxeko egoerari buruz galdetzen, adibidez, ezta eroso sentitzen nintzen ala ez.

**15. Gogoratzen duzu eskolan laguntza psikologikoa izan duzun? Beharrezkoa dela uste duzu? / ¿Recuerdas haber tenido apoyo psicológico en la escuela? ¿Crees que es necesario?**

Ez; izan ere, eskolan, ez zegoen psikologorik, orientatzailea besterik ez.

### **Arrazakeria**

**1. Arrazakeri egoeraren bat bizi izan duzula esango zenuke? Edo mikro arrazakeria? / ¿Dirías que has sufrido alguna situación racista? ¿O micro racismo?**

Bai. Aurreko galderetan esan dizudan moduan, nire gelan ez dut arrazakeriarik bizi, baina bai kalean beste eskolako ikasleekin hainbat egoera arrazista bizi izan ditut. Adibide bat jartzearen, gogoratzen ditut hurrengo komentarioak: “txokolate”, “zer zaude hemen egiten”, “machupichu”, “wachupino”, “nahiago nuke zure arraza osoa hilko balitz”, etab. Gaur egun, lagunak gara eta gure harremana ona da (hori esan zuten pertsonekin) baina, komentario horiek min asko egin dezakete, nahiz eta zuk sufrimendu hori ez azaleratu, haurrentzako oso mingarria izan daiteke.

**2. Desberdin tratatu zaituzte noizbait, beste leku batean jaio izanagatik? Zure eskolan, kalean, zure familian (osaba-izebak, lehegusu-lehengusinak...) / ¿Te han tratado diferente por nacer simplemente en otro lugar? En tu colegio, en la calle, en el núcleo familiar (tíos, primos...)**

Ezta. Bai nire amaren eta bai nire aitaren aldeko familiak beti maitatu naute eta behar guztiak asetu dizkidate. Nire gurasoek beti esan didate lehenengo momentutik “onartua” izan naizela eta gaur egun hori pentsatzen dut, nahiz eta hasieran esan dudan bezala, askotan dudak agertzen dira baina gaur egun ez dut horrelako pentsamendurik.

**3. Zer egin du eskolak egoera honen aurrean? / ¿Que ha hecho la escuela ante esta situación?**

Ezer. Esan dudan bezala, ez zidaten jarraipenik egin ezta galdetu ere, orduan, arazoak egon ala ez, ez zekiten etxeko egoera ona ala txarra zen.

**4. Eskolaz gain, izan al duzu bestelako kanpo laguntzarik? Lagunak, familia... / ¿A parte de la escuela, alguien ajeno te ha apoyado al ver que sufrías esta situación? Amigos, familia...**



Ez dut horren beharra izan. Nik uste dut, hitz egiteko orduan azentua izango banu edo lehen hitz egin dugun ezaugarri fisikorik nabariak izango balitz, gehiago sufrituko nukeela, baina ez da nire kasua izan.

**5. Uste duzu adopzioaren barruan arrazakeria dagoela? / ¿Crees que hay racismo a la hora de adoptar?**

Ez, nire ustez ez dago arrazakeriarik adoptatzeko unean. Nik uste dut gurasoek benetan haur bat adoptatu nahi dutenean ez direla haurren ezaugarrietan fijatzen; hala nola, azalaren kolorea, ilea nolakoa duen, etab. Adibidez, bere iraganari buruz galdetzen badute, haurra hobeto ezagutzeko izango da eta ez aurreiritziak sortzeko. Azken finean haiek beste etorkizun bat emango diote eta bere ezaugarri fisikoak ez dute horretan eraginik izango edo ez luke izango behintzat.

### **Osasun mentala**

**1. Ba al dago eragozpenik sortu dizuten galderarik edo komentariarik? / ¿Hay alguna pregunta o algún comentario que te haya podido molestar?**

Normalean ez dut komentario txarririk entzun, baina, adibidez, badago jendea konfiantza gehiegirik gabe, hurrengo galdera egiten dizutenak: “zergatik izan zinen adoptatua?”, “zer gertatu zen?”. Galdera horiek ez dira errespetu faltak. baina horri erantzuteko, harreman estua egon behar dela uste dut, nire kasuan behintzat eta badago jendea hori jakin eta berriz ere hitz egiten ez dizutenak, “morboa” delako, jakin-min hutsa. Hau da, benetan pertsona baten iraganari buruz jakin nahi baduzu, lehenengo pertsona ezagutu, harremana sortu eta ondoren jakingo duzu galdetzen ari zarena.

**2. Zer pentsamendu errepikatzen ziren zure buruan? / ¿Que pensamientos eran recurrentes en tu cabeza?**

Gogoratzen dudana eta behin eta berriz pentsatzen nuena zen “nora eramango naute?”, hori zen niretzako beldurrik handiena. Bizitako guztiagatik, hainbat eskuetatik igaro behar izan nintzenez, berriz ere hori sufritu behar nuela pentsatzen nuen eta horren beldur nintzen. Horrekin batera, jakin-min handia nuen eta horregatik nuen beti galdera hori buruan.

Nire bidaiari buruz, hegazkinetik jaitsi nintzenetik etxera heldu arte nire gurasoei eskutik helduta egon nintzela gogoratzen dut. Eta behin eta berriz “non nago?” errepikatzen nuen.

**3. Gogoratzen dituzun 5 emozio zerrendatu beharko bazenu, zeintzuk izango lirateke? / ¿Si tuvieras que enumerar 5 emociones que recuerdes, cuáles serían?**

Beldurra, jakin-mina, poztasuna eta intriga.

**4. Zuretzat egun adopzioa gai tabua al da? Hitz egiten al duzu zure ingurukoekin zure kasuari buruz? Zure ustez, zer harrera dute? / ¿Para ti el tema de la adopción es un tema “tabú”?**

Niretzako ez eta etxean adibidez, nire gurasoekin edozein momentutan hitz egin dezakegun gaia da. Hau da, nik nire gurasoekin edozein gairi buruz hitz egin dezaket eta nola ni neu izan nintzen nire adopzioari buruz interesatu nintzena, neure gurasoek edozein zalantza argitzen lagundu didate.

**5. Gaur egun, adopzioaren ondorioz, harremanetan arazoak dituzula uste duzu? / ¿Hoy en día tienes dificultades en tus relaciones a consecuencia de tu adopción?**

Ez. Betidanik lagunak izan ditut, bai eskolan eta bai kalean eta inoiz ez dut arazorik izan besteekin harremantzeko; izan ere, nire egoera ez dizkit oztoporik sortu. Hala ere, nire harremanak ahalik eta gardenak izaten saiatzen naiz.

### **Haurtzaroa/Nerabezaroa**

**1. Zein da zure haurtzaroari buruz duzun oroitzapenik politena? / ¿Cual es el recuerdo mas bonito que tienes sobre tu infancia?**

Adopzio prozesu horretan, ni Espainiara ekarri baino lehen, nire adopziozko gurasoek han Kolonbian egon behar izan ziren 3 hilabetez, nirekin egoteko eta atxikimendu hori sortzen hasteko. Egun horietako batean, hiriaren zonalde batera joan ginen eta etxe partekatu batean instalatu ginen. Gurekin beste familia bat zegoen, gurasoak bere semearekin eta adoptatuko zuten neska batekin, hain zuzen ere. Kasualitatez, familia hori hemengoa da eta bere semea, nire koadrilakoa da. Egia esan mundua oso txikia da eta niretzako oroitzapenik politena da, hemengoa den ezagutu nuen lehenengo pertsona izan zelako. Gainera, adoptatu zuten neska horrekin ere harreman oso estua dut; azkenean, bioi aldi berean adoptatu zigutelako.

**2. Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa? Aldaketa asko izan zenituen? / ¿Cómo recuerdas tu infancia? ¿Hubo muchos cambios?**

Ez, egia esan nabaritu nuen aldaketa bakarra ingurua eta giroa izan zen. Esan dizudan bezala, nik auzo pobrea bizi izan nintzen eta hemen berriz ondo bizi naiz; auzo lasai batean hain zuzen ere. Kontuan hartu han Kolonbian, hemen “izkutatuagoak” dauden gauzak ikusten dituztela eta haien ideiak desberdinak izan daitezke.

**3. Nolako zailtasunak izan zenituen txikia zinenean? / ¿Que complicaciones recuerdas haber tenido siendo pequeño?**

Bat ere. Sozietatearekin, familiarekin, eskolan, hizkuntzarekin, etab. ondo sentitu naiz beti. Nire kasuan, arazoak ondoren etorri dira, helduagoa izan naizenean; izan ere, gaur egun, oso pertsona lotsati eta isila naiz, baina ez dakit lehen hitz egin dugun adopzioak eragindako arazoengatik izango den.

**4. Zure egoera zehatzarengatik trauma edo “sekuela”-ren bat duzula uste duzu? / ¿Crees que tienes algún trauma / secuela por tu situación específica?**

Lehen hitz egin dugun moduan, iraganera helduta bizi naizen pertsona naiz eta asko pentsatzen dut zergatik izan dudan bizitza mota hau, baina azkenean laguntzarekin ulertu

dudanez, trauma nuela esan dezaket baina jada aurre egin diodala uste dut. Izan ere, ez dut hainbeste horretan pentsatzen eta besteekin dudan harremanetan eta nire bizitzako beste alderdietan ez du ezertan eragiten.

- 5. Gainerako haurren haurtzaro/gaztaro bera izan duzula uste duzu? Eta aukera berdinak? / ¿Crees que has tenido la misma infancia - juventud que los demás niños? ¿Y las mismas oportunidades?**

Azkenean, badakit pertsona bakoitzaren bizitza bakarra eta desberdina dela, baina beste haurrek izan duten haurtzaroa eta nirea alderatuz, nirea nahiko desberdina izan dela esan dezaket. Izan ere, nire guraso biologiko eta adopziozko gurasoez gain, beste pertsonen eskuetatik ere igaro naiz eta horrez gain, beste kontinente batera eraman ninduten. Galdera honekin lotuta, nik uste dut, nahiz eta bizitzan horrelako egoerak sufritzen ditugun, batez ere nire kasuan adoptatua eta kanpotarra naizela, nahiz eta motxila bat izan, behin hau guztia onartzen duzula, eramangarria dela uste dut.

- 6. Nola oroitzen duzu hori guztia? Garai zaila izan zen? Zergatik? / ¿Cómo recuerdas tu todo esa etapa? ¿Fue difícil? ¿Por que?**

Aurretik esan dudana bezala, hasieran txikia nintzen, nahiko azkar egokitu nintzen nire errealitate eta bizitza berrira, ez nuen arazorik izan. Baina gero etorri ziren galderak eta zalantzak eta hori izan da garai zailena eta bitxia da, zeren ez da zaila izaten adopzioaren momentuan baizik eta ondoren, niri gertatu zaidan moduan.

### **A3 - Informazio pertsonala**

- 1. Adina, nazionalitatea eta jaioterria. / Edad, nacionalidad y lugar de nacimiento.**

22 urte, nazionalitate espainiarra eta Bulgarian jaioa.

- 2. Zenbat urterekin etorri zinen Zumarragara? / ¿Con cuantos años viniste a Zumarraga?**

3 urte eta 4 hilabeterekin.

### **Familia**

- 1. Zure guraso biologikoak ezagutzeko aukera izan duzu? / ¿Has tenido la oportunidad de conocer a tus padres biológicos?**

Bai, aurren, uda honetan nire ama ezagutzeko aukera izan dut. Bulgariara joan ginen, nire adopziozko gurasoak eta ni nire ama biologikoa ezagutzera. Egia esan oso esperientzia aberasgarria izan zen, benetan berarekin egoteko beharra nuelako. Oraindik nire aita ezagutzea falta zait, baina ez dakit ahalko dudana; izan ere, nire guraso biologikoak bananduta daude.

- 2. Oraindik ezagutu ez badituzu, ezagutzea gustatuko litzaizuke? / ¿Si aún no has conocido a tus padres biológicos, ¿te gustaría hacerlo?**

Esan dudan moduan, nire ama jada ezagutu dut eta gure abandonuaren zergatia ere zein den jakin dut, beraz soilik nire aita ezagutzea falta zait. Nire aita Alemanian bizi da.

- 3. Ba al dakizu ea zure adopziozko gurasoek, formakuntzarik izan zuten egoera berri hau aurrera eramateko? / ¿Sabes si tus padres adoptivos recibieron algún tipo de formación por adoptar a un niño?**

Egia esan, ez dakit formakuntzarik izan duten ala ez.

- 4. Zure adopziozko gurasoekin duzun harremana ona da? / ¿La relación con tus padres adoptivos es buena?**

Familia guztiak bezala, gure denboraldiak ditugu, askotan haserretzen gara baina harremana nahiko normala dela esan dezaket. Batez ere nire kasuan, beti amarenera jotzen dut ia beti; izan ere, ez dut konfiantza gehiegirik aitarekin. Aldi berean, ez dakit nire irudimena den ala ez, baina askotan, familian batez ere ez dut nire lekua aurkitzen. Adoptatua zarenean eta gainera kanpotarra, ideia asko daude zure buruan eta gurasoekin komunikatzeko arazoak ditudala nabaritzen dut, ez dago kontaktu askorik. Hala ere, nire gurasoak dira eta maite ditut, baina nire egoera ez da besteena bezalakoa.

- 5. Nolakoa da zure etxean duzun egoera? / ¿Cómo es hoy en día la situación en tu casa?**

Esan dudan moduan, eguneroko egoera ez da hoberena; izan ere, komunikazio eza, konfiantza eza eta bestelako gatazkak; hala nola, nire intseguritateak, asko oztopatzen du harreman ona izateko.

- 6. Nola sentitu zinen etxean? Eroso eta babes sentitu zara une oro? / ¿Cómo te has sentido en casa? ¿Siempre te has sentido arropado y protegido?**

Bai sentitu nahiz eroso eta babes; izan ere nire gurasoak beti egon dira edozein gauza gertatzen bazitzaidan edo edozein gauza behar baldin banuen. Badakit haiek asko maite nautela eta nik haiei ere eta nahiz eta gure desberdintasunak ditugun, asko babesten saiatu dira txikitatik.

- 7. Zure guraso biologikoekin kontaktua berriz ere izatekotan, nolabaiteko atxikimendua izatea posiblea izango zela uste duzu? / ¿Si llegarás a mantener algún tipo de contacto con tus padres biológicos otra vez, crees que llegarías a tener apego hacia ellos?**

Kontatu dizudan moduan, nire amarekin berriz ere kontua izateak, berriz ere atxikimendu hori sortzea ahalbideratu du. Hau da, orain, nire amarekin egunero hitz egiteko aukera dut eta sortzen ari garen komunikazio eta harreman izugarria da.

## **Eskola**

- 1. Nola gogoratzen duzu zure esperientzia? / ¿Cómo fué tu experiencia en clase?**

Hasteko, eskolako jendearekin nuen harremana ez zen hoberena, txarra zela esan dezaket. Ez nituen lagun askorik eta gela barruan bazterkeria sufritu nuen. Beraz, laburki, eskola inguru ez

segurua bezala gogoratzen dut eta egia esan, oso pozik bukatu nuen eskola garaia, han dena utziko nuelako eta sufrimendu hori han gelditu zelako.

**2. Irakasleek desberdin tratatzen zintuzten? / ¿Los profesores te trataban diferente?**

Egia esan, haiek ez zituzten nire gelakideek esaten zizkidaten gauzak esaten, baina bai desberdin tratatzen ziguten. Batez ere, akademikoki, gogoratzen dut nire anaiari, beste lagun batzuei eta niri beste gela batera eramaten gintuztela eta han beste etxekolan batzuk egiten genituela. Gainera, hizkuntzaren gaia asko kostatzen zitzaidan eta asko lagundu behar zidaten, lau hizkuntzak asko nahasten nituelako, Bulgariakoa, gaztelania, euskera eta ingelesa; hain zuzen ere. Gainera, irakasleek ere ez zuten pazientzia nirekin, asko kostatzen zitzaidan kontzentrazioa mantentzea eta gauzak ulertzea eta haiek ahalegin gutxiena egiten zuten ni ondo ikasteko.

**3. Nola tratatzen zintuzten zure klasekideek? / ¿Que tipo de trato recibías por parte tus compañeros?**

Esan dudana bezala, nire gelakideek nire ezaugarriengatik desberdin tratatzen zidatela onartu behar dut: komentarioak, bazterkeria, etab. sufritu bainuen. Laburki, gelako “liderrak” eta haien gurasoak izan ziren erabaki zuenak niri desberdin tratatzea. Honekin esan nahi dut, ez dela bakarrik haurren errua baizik eta gurasoena ere badela askotan.

**4. Inoiz klasekideren batek galderaren bat egin zizun zu gehiago ezagutzeko? Zure bizitzari buruz interesatu ziren? / ¿En algún momento alguno de tus compañeros te hizo alguna pregunta para conocerte mas? ¿Se interesaron por tu historia?**

Egia esan ez dut ondo gogoratzen galderarik eta interesik bazuten ala ez, baina gaur egun adibidez, ditudan lagunek bai galdetzen dizkidate nire bizitzari buruzko gauzak edo zalantzak. Hala nola, nire amari buruz, nire etorkizuneko ideiei buruz, nire iraganari eta adopzioari buruz, etab. Polita da galdera horiek entzutea; izan ere, interes hori ez dut eskolako lagunengandik ezta irakasleengandik nabaritu.

**5. Azkar integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te integraste rápido?**

Egia esan asko kostatu zitzaidan gelan integratzea; izan ere, adi egoteko arazoak nituen, batez ere nire abandonuaren traumarengatik. Beti egin behar izan dut besteek baino ahalegin gehiago gauzak ulertzeko eta egiteko eta hori ere integratzeko oztopoa izan zen, besteek aurrerago errez egiten zuten bitartean, niri gehiago kostatzen zitzaidalako, lan bikoitza laburbilduz.

**6. %100 integratu zinela uste duzu? / ¿Sientes que te llegaste a integrar al 100%?**

Denbora asko behar izan nuen integratzeko eta hala ere 100% integratu ez nintzela pentsatzen dut. Gainera, nahiz eta oso soziala nintzen, asko kostatzen zitzaidan lagunak elkarriketetan sartzea; hau da, bi lagun hitz egiten bazeuden, lehenengo ondo azaldu behar zidaten zeri buruz zeuden hizketan, bestela ez nuen ulertzen zeri buruz hitz egiten ari ziren. Horrek ere, lagunak

aldentzea sustatzen zuen, inork ez duelako nahi gauzak behin eta berriz azaldu. Azkenean, beste leku batera joaten nintzen.

**7. Eskolan bazterkeriarik jasan duzu? / ¿Has sufrido algún tipo de exclusión en la escuela?**

Aurreko galderetan esan dudan moduan, bai, eskola barruan bazterkeria sufritu dut. Ez bakarrik ahoz, baizik eta begiradekin ere baztertzen ninduten.

**8. Tokiz kanpo sentitu zara inoiz? / ¿Te has llegado a sentir fuera de lugar en algún momento?**

Bai, noski. Aurreko galderan esan dudan bezala, nire gelakideen artean elkarriketak sortzen zirenean eta ez nuenean ezer ulertzen, ez hizkuntzarengatik baizik eta gaiarengatik, lekuz kanpo sentitzen nintzen, horregatik joaten nintzen beste leku batera.

**9. Inoiz sentitu zinen taldearengatik presionatuta? / ¿En algún momento te sentiste presionado por el grupo?**

Batzuetan soilik. Hala ere, askotan nire gelakideek nitaz ahazten ziren eta ez zidaten kasurik egiten.

**10. Adopzioaren eta migrazioaren gaiak ikasgelan lantzen ziren ala “tabú” gaiak ziren? Nola? / ¿El tema de la adopción y la migración eran temas que se trataban en clase o eran temas “tabú”? ¿Como?**

Egia esan, ez dut oroitzen horrelako gaiari buruz hitz egin izana, ez arrazakeriari buruz ez adopzioari buruz. Nire ustez, ez zen hitz egiten ez genituelako horrekin zerikusia zuten gaiak ukitzen. Eta ez gu bakarrik, irakasleak ezta ez zuen ez adopzioaren ezta arrazakeriaren inguruan ezer esaten, baliteke esan dudanagatik.

**11. Nola uste duzu aurre egin beharko lukeela eskolak horrelako kasuei? Zer uste duzu ezarri/aldatu beharko litzatekeela? / ¿Cómo crees que debería afrontar la escuela este tipo de casos? ¿Que crees que se debería implantar/cambiar?**

Nire kasuan, esan dizudan bezala, gelan ez zen gai hauei buruz hitz egiten eta gaur egun batez ere horri buruz hitz egitea oso garrantzitsua dela uste dut. Baina ez bakarrik hitz egin eta informatu baizik eta sustatu eta positiboki hitz egin. Hala nola, nik adibidez, programak eta jarduerak egingo nituzke haien artean nahasteko. Hau da, taldeak ez sortzeko (hemengo jendea hemengo pertsonekin eta kanpotarrak atzerriko pertsonekin) eta guztion artean ahalik eta interakzio gehiena izateko, eskoletan proiektu desberdinak sortuko nituzke.

**12. Zein dira zuretzako hutsune ohikoenak gai honetan? / ¿En tu opinión, que es lo que falta / que echas de menos en este tema?**

Aurreko galderan aipatu dudan bezala, batez ere arrazakeria ekiditzeko, gelan proiektu eta informazioa falta dela uste dut, baina horrez gain, psikologikoki haurrari lagunduko dion pertsona bat ere botatzen dut faltan eskoletan. Haurraren egoera psikologikoaz kezkatuko den pertsona bat edo gehiago egotea.

- 13. Aurreko galderarekin lotuta, zein ondorio ditu hutsune horiek zure ustez? / Ligado a la pregunta anterior, ¿que consecuencias crees que acarrea los vacíos de los que hablábamos?**

Seguru aski, hutsune horiek asetzen ez badira, haurrak asko sufrutuko du. Hala nola, traumak izango ditu eta etorkizunean zuzen zuzenean eragina izan dituen egoerak izango ditu.

- 14. “Jarraipenik” izan zenuen eskola edo irakasleengandik zure eboluzioa ikusteko? / ¿Tuviste algún tipo de “seguimiento” por parte de la escuela o de los profesores para ver tu evolución?**

Psikologikoki ez dut jarraipenik izan, baina bai eskolako orientatzaileak nire notak zeintzuk ziren ikusten zituen eta oso baxuak baziren nirekin hitz egiten saiatzen zen. Hizkuntzari ere garrantzi asko ematen zion eta euskara ulertzen nuen ala ez galdetzen zidan, baina, bakarrik jarraipena akademikoa izan da. Hau da, ez zidaten etxeko egoerari buruz galdetzen, adibidez, ezta eroso sentitzen nintzen ala ez.

- 15. Gogoratzen duzu eskolan laguntza psikologikoa izan duzun? Beharrezkoa dela uste duzu? / ¿Recuerdas haber tenido apoyo psicológico en la escuela? ¿Crees que es necesario?**

Ez; izan ere, eskolan, ez zegoen psikologorik, orientatzailea besterik ez.

#### **Arrazakeria**

- 1. Arrazakeri egoeraren bat bizi izan duzula esango zenuke? Edo mikro arrazakeria? / ¿Dirías que has sufrido alguna situación racista? ¿O micro racismo?**

Bai. Aurreko galderetan esan dizudan moduan, nire gelan arrazakeria bizi dut. Adibide bat jartzearen, gogoratzen ditut hurrengo komentarioak: “niño chocolate”, “zer zaude hemen egiten”, etab. Gaur egun, komentario horiek entzuten baditut, ez dit gehiegi molestatzen; izan ere, gauza horiek esaten duten pertsonak, oraindik helduak izateko asko falta zaiela uste dut. Baina egia da txikia zarenean, komentario horiek min asko egin dezaketeela, nahiz eta zuk sufrimendu hori ez azaleratu, haurrarentzako oso mingarria izan daiteke.

- 2. Desberdin tratatu zaituzte noizbait, beste leku batean jaio izanagatik? Zure eskolan, kalean, zure familian (osaba-izebak, lehegusu-lehengusinak...) / ¿Te han tratado diferente por nacer simplemente en otro lugar? En tu colegio, en la calle, en el núcleo familiar (tíos, primos...)**

Bai, bai eskolan eta bai familia barruan. Nire gurasoek beti maitatu naute eta horregatik oso pozik nago, baina egia da familia barruan komentarioak eta begiradak nabaritu ditudala.

- 3. Zer egin du eskolak egoera honen aurrean? / ¿Que ha hecho la escuela ante esta situación?**

Ezer. Esan dudana bezala, ez zidaten jarraipenik egin ezta galdetu ere, orduan, arazoak egon ala ez, ez zekiten etxeko egoera ona ala txarra zen.

- 4. Eskolaz gain, izan al duzu bestelako kanpo laguntzarik? Lagunak, familia... / ¿A parte de la escuela, alguien ajeno te ha apoyado al ver que sufrías esta situación? Amigos, familia...**

Nirekin beti egon direnak nire gurasoak izan dira, batez ere nire ama. Haiek izan dira niri laguntzeko prest eta egoerei erantzuna emateko prest egon direnak eta hori bera egin dute. Beraz, gurasoak prest egon diren bakarrak izan direla esan dezaket; izan ere, esan dudan moduan, eskolak ez dut ezer egin.

- 5. Uste duzu adopzioaren barruan arrazakeria dagoela? / ¿Crees que hay racismo a la hora de adoptar?**

Ez, nire ustez ez dago arrazakeriarik adoptatzeko unean. Nik uste dut gurasoek benetan haur bat adoptatu nahi dutenean ez direla haurren ezaugarrietan fijatzen; hala nola, azalaren kolorea, ilea nolakoa duen, etab.

### **Osasun mentala**

- 1. Ba al dago eragozpenik sortu dizuten galderarik edo komentariarik? / ¿Hay alguna pregunta o algún comentario que te haya podido molestar?**

Esan dudan moduan, lehen aipatu ditudan comentarioak, momentu horretan asko kaltetu ninduten; izan ere, txikia nintzen eta ez nuen ulertzen zergatik entzun behar nituen horrelako gauzak. Baina, gaur egun entzutekotan, ez dut uste horretan asko pentsatuko nukeenik; izan ere, nik uste dut haiek dutela arazoa eta ez ni. Haiek dira eboluzionatzen ez dutenak eta ez ni.

- 2. Zer pentsamendu errepikatzen ziren zure buruan? / ¿Que pensamientos eran recurrentes en tu cabeza?**

Gogoratzen ditudan ideiak haiek dira: “zer gertatuko da nirekin?”, “nork zainduko nau?”, “zergatik gertatu zait hau niri?”, “zergatik abandonatu naute?”, etab. Batez ere, konturatzen bazara, abandonuarekin zerikusia zituzten galderak egiten nizkion neure buruari, ez nuelako onartzen abandonatu zidatela. Gaur egun egia da gutxi gora behera onartu dudala, baina oraindik ere nire ama ezagutu baino lehen, neure buruan bueltaka zegoen galdea zela onartu behar dut.

- 3. Gogoratzen dituzun 5 emozio zerrendatu beharko bazenitu, zeintzuk izango lirateke? / ¿Si tuvieras que enumerar 5 emociones que recuerdes, cuáles serían?**

Haserrea, tristura, segurtasun eza, amorrua eta poza.

- 4. Zuretzat egun adopzioa gai tabua al da? Hitz egiten al duzu zure ingurukoekin zure kasuari buruz? Zure ustez, zer harrera dute? / ¿Para ti el tema de la adopción es un tema “tabú”?**

Niretzako ez eta etxean adibidez, nire gurasoekin edozein momentutan hitz egin dezakegun gaia da. Hau da, nik nire gurasoekin edozein gairi buruz hitz egin dezaket eta nola ni neu izan



nintzen nire adopzioari buruz interesatu nintzena, neure gurasoek edozein zalantza argitzen lagundu didate.

**5. Gaur egun, adopzioaren ondorioz, harremanetan arazoak dituzula uste duzu? / ¿Hoy en día tienes dificultades en tus relaciones a consecuencia de tu adopción?**

Bai, asko gainera. Nik adibidez lagun bat galtzen dudanean, hurrengo ideiak etortzen zaizkit burura: “zergatik abandonatu nau?”, “bera ere abandonatuko nau?”, “seguru aski haserre gaudelako utzi egingo nau”, etab. Azkenean, trauma bat duzunean eta sendatuta gabe dagoenean, zure eguneroko egoeretan eragina du, eta nire kasuan, abandonua, harremanetan. Nire kasuan, beste pertsona batengatik aldatzea eta baztertzea da dudak beldurrik handiena.

### **Haurtzaroa/Nerabezaroa**

**1. Zein da zure haurtzaroari buruz duzun oroitzapenik politena? / ¿Cual es el recuerdo mas bonito que tienes sobre tu infancia?**

Dudarik gabe, adoptatua izan nintzen momentua da oroitzapenik politena. Hau da, baditut neure buruan hainbat segundu, non nire aita eta nire ama umezurtegiaren atea irekitzen duten eta niregana etortzen diren niri besarkatzera. Izugarria izan zen eta hori da gehien markatu zidana; izan ere, haiek izan ziren hortik atera zidatenak.

**2. Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa? Aldaketa asko izan zenituen? / ¿Cómo recuerdas tu infancia? ¿Hubo muchos cambios?**

Bai, asko. Lehenengoa, esan dizudan bezala, umezurtegitik ateratzea, guraso berriak izatea, leku berria ezagutzea, eskolako arazoak, hizkuntza desberdinak, gainera bat baino gehiago, etab. Aldaketa asko izan ziren denbora motzean baina poliki-poliki onartzen joaten zarela uste dut.

**3. Nolako zailtasunak izan zenituen txikia zinenean? / ¿Que complicaciones recuerdas haber tenido siendo pequeño?**

Uste dut asko errepikatuko naizela, baina laburki, integratzeko, hizkuntzak ikasteko eta sozialki komunikatzeko zailtasunak, sortutako traumak, arrazakeria, etab.

**4. Zure egoera zehatzarengatik trauma edo “sekuela”-ren bat duzula uste duzu? / ¿Crees que tienes algún trauma / secuela por tu situación específica?**

Bai, nik txikitatik argi nuen trauma bat nuela; izan ere, nire adopziozko ama pedagoga da eta berak gai honi buruz asko ikertu duenez, uste dut bere esker asko ikasi dudala traumari buruz. Trauma del apego; hain zuzen ere, diagnostikatuta dut gainera. Nahiz eta sendatu daitekeen, prozesua oso motela da, baina lanarekin lortu daiteke.

**5. Gainerako haurren haurtzaro/gaztaro bera izan duzula uste duzu? Eta aukera berdinak? / ¿Crees que has tenido la misma infancia - juventud que los demás niños? ¿Y las mismas oportunidades?**

Azkenean, badakit pertsona bakoitzaren bizitza bakarra eta desberdina dela, baina beste hurrek izan duten haurtzaroa eta nirea alderatuz, nirea nahiko desberdina izan dela esan dezaket. Gainera, nire ustez, haur baten lehenengo urteak umezurtegi batean igarotzeak edo kalean igarotzeak, ez du zerikusirik, batak traumak eta oroitzapen itsusiak ekarri ditzakeelako eta besteak seguruenik kontrakoak. Nire ustetan, gure kasua oso latza da eta oso gogorra, abandonua ez luke inor bizi behar.

**6. Nola oroitzen duzu hori guztia? Garai zaila izan zen? Zergatik? / ¿Cómo recuerdas tú toda esa etapa? ¿Fue difícil? ¿Por que?**

Oso zaila izan zen niretzako. Oso momentu zaila izan zen, txikia nintzelako eta neure buruan nituen galdera guztiak erantzutea nahi nuelako. Baina esan dizudan moduan, nire gurasoen laguntzarekin ere, geroz eta hobetu sentitu nintzen.

**2. eranskina:** Guraso adoptiboei egindako elkarrizketak.

**G1 - Informazio pertsonala**

**1. Zenbat haur adoptatu zenituen? / ¿Cuántos niños adoptaste?**

Haur bakarra adoptatu nuen.

**Adopzio prozesua**

**1. Nolakoa izan zen adopzio prozesua? / ¿Cómo fue el proceso de adopción?**

Nire ustez, adopzio prozesua ez dago batere ondo prestatua. Zeren, normalean topatzen duzuna adopzioa eta gero, zerbait gogorragoa da. Nik uste dut, psikologoak sartzen direla baina ez dutela kontenplazten gaiaren garrantzia. Hala ere, uste dut ikusita zein zaila den eta gizarteak zein gutxi babesten dituen eta eskolak zein ez jakituna den, gurasoak prestatuago joan behar lirateke. Nik faltan botatzen dut ama adoptiboa bezala, gizartean izango duen bazterkeriari buruzko informazioa. Izan ere, normatik ateratzen den orok, baztertzen du gizarteak. Nire kasuan, erabakia politikoa izan zen, betidanik pentsatu dudalako haur asko daudela guraso biologikorik gabe. Prozesuari dagokionez, Kolonbiako zerbitzu sozialak oso onak zirela deskubritu nuen eta horregatik hara joatea erabaki genuen. Neurriak oso onak izan ziren; izan ere, guraso adoptiboak daudenean, guraso biologikoak azaldu daitezke eta hori kontrolatu behar da. Baina mutikoaren aldetik, oso gogorra izan zen; izan ere, haurra dolu batean dago eta kontzientea zen egoeraz. Gainera, leku aberats batera joango zela esan zioten eta gero errealitatea ez da imajinatzen dugun bezala, inoiz. Gainera, Kolonbian harrera etxeak daude soilik, haurrarekin egoteko.

**2. Zer baldintza eskatzen dituzte adoptatzeko orduan? / ¿Que requisitos piden a la hora de adoptar?**

Alde batetik, buruz ondo egotea eta ez dute beti asmatzen; nahiz eta haiek ahalegintzen dira psikologoak ekartzen eta zu ondo zaudela demostratzen. Eta bestetik dirua; izan ere, zuk dirua behar duzu eta asko gainera. Adibidez, nire semea psikologora doa, terapiara eta diru asko behar da ez delako denbora laburrean dena konpontzen. Nire semea adibidez, betidanik egon da terapian, baina niri interesatzen zaidana ondo egotea da eta ez zenbat diru gastatzen dudana. Batez ere, atxikimenduari buruz asko zekien psikologo bat bilatu nuen eta orain arte hor dago eta hor jarraituko du nik uste betirako. Izan ere, trauma handia dute eta horrekin errekonziliatzen jakin behar dute, desoreka handia dute abandonua bizi izan dutelako eta nire ustez, guztiak joan beharko liriateke terapiara. Bestetik eta diruaren bidetik jarraituz, akademikoki ere diru asko gastatu dut, akademietan; hain zuzen ere. Eskolak ez daude prest haur hauei heziketa prestatua eskaintzeko ezta laguntzeko. Nik beti esaten dut egoera honetan dauden haur bat izateak lau haur “normal” izatea bezala dela.

**3. Trabarik izan duzu adoptatzeko unean? / ¿Tuviste alguna pega a la hora de adoptar?**

Ez eta orain ezta. Eta are gehiago, uste dut nire bizitzan egin dudana gauzarik politena izan dela. Gainera, gero zuk ikusten dituzu horrelako erronkaren aurrean zure sufrimenduak ikusten dituzu; hau da, zuretzako ere polita da ikusteko non dituzun zure miseriak eta non zure zuloak. Hortik handitzen zara zu, egunero, miseriekin pixkana handitzen zara eta konektatzen ikasten duzu.

**4. Adopzioaren tramitea egin duen elkarteak jarraipenik egin al dizu? / ¿Has tenido algún tipo de seguimiento por parte de la asociación que hizo el trámite de la adopción?**

Nik adibidez ez naiz hortan, elkarteekin eta harremanetan egon, nik oso libreki egin ditut gauzak. Hala ere, pena dut han hobeto egongo nintzatekeela uste dudalako, faltan botatzen dut baina nire arazo pertsonalengatik ez dut hortan sartu izan nahi. Hori oso lagungarria da eta sare asko mugitzen da eta gaur egun egia esan faltan botatzen dut; izan ere, haur hauek geroz eta helduagoak izan, geroz eta arazo handiagoak etorriko dira.

**5. Zalantzarik izan zenuen? / ¿Dudaste alguna vez?**

Ez, inoiz ez.

**6. Prozedura bitartean, guztia bertan behera uztea pentsatu zenuen noizbait? / ¿Durante el propio proceso, pensaste en algún momento plantarte y dejarlo?**

Ez. Nahiz eta ez preparatu askoz ere okerragoa izan zitekeen, izan zitekeen oso biolentoa edo edozein gauza. Adibidez, berari gertatzen ziona da eta hori terapeutak esan zidan, hainbeste maite nau, berak nahiko duela nik bere lekuan jartzea eta sentitzen duena nik ere sentitzea. Eta sentimenduak onak edo txarrak izan daitezke, baina txarrak baldin badira gero mila muxu emango dizkizu. Hori egiten du patroiak jarraitzen dituztelako.

## **Eskola**

**1. Eskola zutaz edo zure seme/alabaz galdetu edo interesatu zen? / ¿La escuela te preguntó o se interesó por ti y por tu hijo/hija?**

Hasteko, eskola ez daki zer egin haur hauekin eta hauek dituzten desajusteak ikaragarriak dira. Gainera, eskolarekin komunikatzeko denbora asko behar da eta gainera arriskuarekin, zeren normalean bullying-a sufritzen dute, beraz, lana bikoiztu egiten du eskolak. Bullying-a batez ere arraroak direlako izaten da, beraz, arraroak dira kalean, eskolan, familian... Arraroak direla esaten dugunean, adoptatuak eta kanpotarrak direlako da, baina azalaren kolorea oso desberdina baldin bada arazo gehiago egoten dira, horrek ez du batere laguntzen. Laburki, eskolak ez daki zer egin, nahiz eta irakasle asko prestatuta dauden, oso zaila izango da hauekin lan egiten jakingo duen irakasle on bat aurkitzea. Nire semeak adibidez bi aurkitu ditu bere bizitza osoan eta nire galdera da, zergatik haiek badakite haur hauek tratatzen? Ez dakit, enpatia, interesa, formazio bat egin dutelako... Beste guztiek tratatu dute edozein pertsona izango balitz bezala.

**2. Uste duzu klaseko irakasle/ikasleek zure seme/alabaren jaioterriari buruzko interesa azaleratu dutela? / ¿Crees que en clase los profesores y los alumnos se han interesado por el lugar de nacimiento de tu hijo/hija?**

Ez gehiegi. Bera beti lagun baztertuekin elkartu da, hau da, bera bezalakoak diren lagunekin egon da. Batxilergoa berarentzat denboraldi oso txarra izan zen; izan ere, bere gelako ikasleek ez zeuden batxilergo bat egiteko prest eta bera bai, orduan bakar bakarrik gelditu zen. Hala ere, aurrera jarraitu zuen.

**3. Noizbait izan duzu arazorik eskolarekin? / ¿Has tenido algún problema con la escuela por esta situación?**

Nire senidea zena, nire semearen eskolaren zuzendaria izan zen eta nahiz eta arazoak egon ziren, hori laguntza handikoa izan zen nire semearen ikasketak aurrera jarraitzeko. Esan dizudan moduan, irakasle formatuak behar dira eta hori da niretzako arazorik larriena, ez jakitea nola egoera hauek nola aurrera eraman.

**4. Zein motako laguntzak eskaini beharko lituzke eskolak adoptatzen dituzten gurasoei? / ¿Que ayudas crees que debería ofrecer la escuela a los padres que adoptan?**

Nik uste dut, gure semei landuta nahikoa dela. Hau da, niri interesatzen zaidana, nire semea emozionalki ondo egotea da; izan ere, gero badakit lana aurkitu duela, edozein gauzan.

**5. Egoera hauen aurrean, zer gauza egitea falta zaizkio eskolari? / ¿Que cosas crees que le falta hacer a la escuela en este tipo de casos?**

Sufritzen dagoen ikaslea detektatzeko gai den irakasle bat izatea, bidelagun izango den irakaslea egotea, harrera egingo duena eta horrez gain, curriculumean ikusiz, formakuntza bat izan eta egoera hauen aurrean zer egin behar den ikertu behar duen irakaslea gelan egotea. Nik egingo nukeena batez ere emozionalki lantzea izango zen; hau da, ez hainbeste

akademikoki, oinarritzko matematika, irakurri eta idatzi eta gutxi gehiago. Baina batez ere, emozional eta sozio-emozionalki indartu eta 12 urtekin indarrarekin atera DBH-ra pasatzeko. Izan ere, haienezako basamortua da eta irakasle erreferenteak beharko dituzte.

### **Familia/Egokitzapena/Atxikimendua**

**1. Nolakoa izan zen egoera berri honen hasiera? / ¿Cómo fue el principio de toda esta nueva situación en casa?**

Nire familiak uste dut oso harrera ona egin ziola, senarraren familia berriz, harreman gutxiago dituenetz, igual desberdina izan zen. Baina babes handia izan duela uste dut eta gainera berak familia asko maite du, lagunak baina gehiago nik uste. Hala ere, baditu beste bi arreba biologiko eta beraiekin bikain konpontzen da.

**2. Nolakoa izan zen familia artean egokitzapen-prozesua? / ¿Cómo fue el proceso de adaptación en la familia?**

Egia esan nire familiarengatik prozesua oso erraza izan zen eta ondo konpondu ginen, baina, aitaren aldetik, osasun arazoak daudenez, nahiz eta harrera ona ere egin, desberdina izan zela esan dezakegu. Hala ere, bera oso maitatua sentitu da beti.

**3. Nolakoa da etxeko egoera? / ¿Cómo es la situación en casa?**

Nirekin bizi da, bueno, biek bizi da eta asteburuetan baserrira joaten gara. Hala ere, nahiz eta banandua egon nire senarra izan zenarekin bizitzen jarraitzen dut, beraz hori esan nahi du harreman oso ona dugula. Laburki bai bere aitarekin eta bai nirekin harreman oso estua du eta kalitatezko denbora igarotzen dugu.

**4. Nolakoa da gaur egun zure seme-alabarekiko harremana? / ¿Cómo es la relación con tu hijo/hijo hoy en día?**

Esan dizudan moduan, oso erlazio polita eta osasuntsua dugu eta ez bakarrik nirekin, bere aitarekin baita eta egia esan hori da alderik onenetarikoa.

**5. Zure ustez, adopziozko ama izatearen esperientzia eta ama biologikoa izatearena oso desberdinak dira? / ¿Crees que la experiencia de ser madre adoptiva es muy diferente a la de ser madre biológica?**

Nik uste dut ez dela berdina. Nik adibidez ez naiz ama biologikoa baina nire senarra izan zena bai, orduan berak hitz egin beharko luke. Berak esaten duena da, atxikimendua desberdina dela, batez ere abandonatuak daukatelako atxikimendu desantolatua eta izugarritzko zailtasunak harremanak sortzeko. Orduan, guk egiten ari garena da bigarren atxikimendu sano bat eskaini. Senarrak esaten duena da maitasuna eta harremana berdina dela biologikoekin eta adoptatuekin. Baina diferentzia da, lan gehiago ematen dutela; hala ere, besteek ere lana ematen dute. Baina hauek adibidez, ez dira autonomoak eta lan gehiago egin behar dute.

**6. Uste duzu adoptatua izan den haur batek atentzio gehiago behar duela adoptatua ez den haur batek baino? / ¿Crees que un niño adoptado necesita mas atención que un niño que no lo ha sido?**

Bai noski, dudarik gabe. Atxikimendu arazoak dituztelako. Zuk zure ereduarekin lortu behar duzu konfiantza eta harreman segurua eskaini; izan ere haiek abandonuarengatik, ez dute besteetan konfiantzarik. Abandonuari beldur pila dute, batez ere nire semeak, neskekin, beldur ikaragarria du eta lagunekin berdin-berdin. Berak behar du atentzioa eta gauzak behin eta behin azaltzea eta gauzak gogoratzea.

**7. Zure ustez, egokitzapen-prozesuan bereizten al dira atzerritik edo Espainiatik datozen haurrak? / ¿Crees que en el proceso de adaptación se distinguen los niños que vienen del extranjero o de España?**

Argi dagoena da, gu oso arrazistak garela. Nik baditut familiarrak beste lekuetako pertonekin semeak izan dituztenak eta harremanak eta ume horiek sufritu dute nahiz eta guraso bat hemengoa izan eta beste kanpotarra izan. Nire semeak arrazakeria ere sufritu du eta New York-era joan zenean adibidez, oso gustura sentitu zen eta hemen berriz, ez, eskolan adibidez, “puto negro” deitu diote behin baino gehiagotan. Gainera ere aipatu behar da, adoptatuak eta kanpotarrak diren haur hauek trantsizio modua egiten dutela, izan ere, nahiz eta kanpotik beltzaranak izan, barrutik ez dute zerikusirik bere azalak adierazten duenarekin. Orduan, beraien identitatea berriz sortu behar dute, trantsizio modua da. Azkenean, onartzea besterik ez zaie gelditzen, terapia eta diru asko; hain zuzen ere.

### **Osasun mentala**

**1. Nolabaiteko laguntza psikologiko/terapia eskuratu zenuen adopzio aurretik/bitartean/ondoren? / ¿Obtuviste algún tipo de ayuda psicológica/terapia antes/durante/después de adoptar?**

Bai badago prestakuntza bat adoptatu baino lehen, psikologora joaten zara eta gauzak azaltzen dizkizute baina ez gaituzte hainbesterako prestatzen. Nik serioagoa egingo nuke; hala nola, eramango nuke jada adoptatu duen jendea eta haiek esperientziak kontatzea, ez gogor-gogorrek baina bai errealitatea pixka bat kontatzea.

**2. Zein alderditan lagundu diozu gehien zure seme/alabari? / ¿En que ámbitos has ayudado más a tu hijo/hija?**

Alde batetik, lehen esan dizudan moduan, ekonomikoki asko lagundu dugu, partikularretara eta terapiara joateko; hain zuzen ere. Terapia ere oso laguntza handia izan da niretzako ere, nire semea ulertzen lagundu izan didalako eta nire beldurra pixka bat lasaitzeko; izan ere, nik beti beldurra izan dut noizbait nire semeak bere buruaz beste egiteko, suizidioa. Haiek oso bakartiak dira eta oso bakarrik ibiltzen dira eta hori ama batentzako oso gogorra da.

**3. Haurren istorioak epe luzerako pisu handia duela uste duzu? / ¿Crees que pesa mucho la historia previa de los niños a largo plazo?**

Bai noski, begira nire semearen esperientzia. Esan dizudan moduan, bera terapian dago oso txikia zenetik, eta terapeutak dio bizi osoa egon beharko dela dituen zailtasunak sendatzen eta horiek onartzen. Beraz, bai, sortutako traumak eta motxila hori asko eragiten du epe luzerako.

**4. Komentario mingarriak entzun behar izan zenituen prozesu egin baino lehen/bitartean/ondoren? / ¿Recibiste comentarios ofensivos a raíz de adoptar?**

Nik ez, baina badakit gizarteak ez duela horrelako egoerak onartzen. Gizartea oso gaixorik dago eta gaixorik dagoenez, haur hauek gehiago sufritzen dute, ez dakitelako haien lekua topatzen.

**5. Prozesu honetan sentitu dituzun 5 sentimendu zerrendatu beharko bazenu, zeintzuk izango lirateke? / ¿Si tuvieras que enumerar 5 sentimientos que has sentido en este proceso, cuáles serían?**

Ezjakintasuna, sufrimendua, ikasketa handia, maitasuna eta gizarte gaixotuta.

**6. Zer gustatuko litzazuke jakin izana adoptatu aurretik? / ¿Que te gustaría haber sabido antes de adoptar?**

Lehenengo galderan esan dizudan moduan, etorriko zitzaidan sufrimendua guztia, nahiz eta nire semeak momenturik politenak eman dizkidan.

**G2, G3 - Informazio pertsonala**

**1. Zenbat haur adoptatu zenituzuen? / ¿Cuántos niños adoptasteis?**

Bi haur adoptatu genituen.

**Adopzio prozesua**

**1. Nolakoa izan zen adopzio prozesua? / ¿Cómo fue el proceso de adopción?**

BIAK: Aurretik egin genituen hainbat prozesu, hau da modu mekanikotik saiatu ginen baina ez zuen funtzionatu. Orduan hasi ginen ikusten zein herrialdetan adoptatu genezakeen eta hor egitea erabaki genuen nahiko garbia eta azkarra zelako. Gu bi ume nahi genuen batera egoteko eta zuzenean bi ekartzeko, kasu honetan bikiak. Arrazakeriaren aldetik, guk izan ginen arrazistak izan ginen lehenak; izan ere, hain ilunak zirenez, pentsatu genuen gizarte honetan arazoak izango zituztela. Orduan han geundenean, zalantzak izan genituen, itxuragatik, ijitoen eta errumanoen ezaugarriak zituztelako. Hemen ikusten da gure aurreiritziak zeintzuk diren eta guk ere gure barruan dugun arrazakeria. Behin ezagutu genituela, haiekin egonda, pentsamenduak hasten dira; izan ere, behin baino gehiagotan ukatu zituzten beste familiak eta horrez gain, hor ez uzteko, adoptatzea erabaki genuen azkenean.

**2. Zer baldintza eskatzen dituzte adoptatzeko orduan? / ¿Que requisitos piden a la hora de adoptar?**

BIAK: Guk esan genuen, haur osasuntsuak genituela, berdin zitzaigun neskak ala mutilak, bi nahi genituen eta osasuntsuak nahi genituen, haien artean lotura bat izateko.

**3. Trabarik izan duzu adoptatzeko unean? / ¿Tuviste alguna pega a la hora de adoptar?**

BIAK: Bai, esan dizudan moduan, izan genuen aurreiritzi bakarra, azal iluna eta ijito-errumanoen ezaugarriak zituztela da, baina ez guk arazoren bat genuelako, baizik eta bagenekigulako hemen asko sufrutuko zutela. Gainera, esango dizut, guk Errusia aldean adoptatu nahi genituela, baina gero konturatu ginen familiek benetan haurrak utzi eta gero berriz ere bueltatu nahi zutela, haien haurraren bila. Orduan, kontuz ibili behar ginen mafiekin.

**4. Adopzioaren tramitea egin duen elkarteak jarraipenik egin al dizu? / ¿Has tenido algún tipo de seguimiento por parte de la asociación que hizo el trámite de la adopción?**

BIAK: Bai, segimendu bat egon zen, psikologoekin eta jarraipena lau urtez izan zen baina gero ez ziguten ezer gehiago galdetu eta ez ezer.

**5. Zalantzarik izan zenuen? / ¿Dudaste alguna vez?**

BIAK: Ez, oso argi genuen haur biologikoa eduki ezin bagenuen adoptatu nahi genuela. Hala ere, berriz ere adoptatu beharko banu, beste modu batean egingo nuke eta beharrak eta nahiak haurraren enfokatuko nuke eta ez ni eta nire senarrak behar genituen beharretan. Hau da, gu izango gara guraso erdi profesionalak eta guk eman behar diogu harrari eta ez hurrek guri. Nik uste dut ere, adopzioa idealizatuta genuela eta ez genekigun zer zen benetan adoptatzea.

**6. Prozedura bitartean, guztia bertan behera uztea pentsatu zenuen noizbait? / ¿Durante el propio proceso, pensaste en algún momento plantarte y dejarlo?**

BIAK: Kontatu dizuguna, puntu horretan bai izan genuen zalantza, baina bestela ez.

## **Eskola**

**1. Eskola zutaz edo zure seme/alabaz galdetu edo interesatu zen? / ¿La escuela te preguntó o se interesó por ti y por tu hijo/hija?**

BIAK: Gure semeek eskola publikoan ikasi zuten, baina lehenik eta behin haurtzaindegira joan ziren, baina, gero konturatu ginen gurekin denbora gehiago igaro behar zutela. Haiek, alde batetik, haien hizkuntza zen bulgaroa han hasi baitziren bulgaroz hitz egiten. Baina, gero etorri zirenean, euskeraz eta erderaz hitz egiten hasi ginen, orduan nahasketa bat zutela esan behar dugu. Guk ez genekigun oso ondo zer egin eta azkenean, nahasketa bat egitea erabaki genuen; hala ere, ulertzen zuten baina oso gaintetiko. Bestetik, atzerapen batekin hazi ziren eta guk ez genekigun. Haiek D eredu natura izan zuten eta giroa desberdina zen, oso familia euskalduna bertaratzen ziren eta guk uste genuen han egonda, gehiago edo hobeto integratuko zutela. Gainera, oso klasiztak ziren, bakarrik euskaldun zaharrak edo guraso biak hemengoak zirenak, etab. Nahiz eta hasieran lagunak izan, hamaika urtetik aurrera lagunak galtzen hasi ziren eta batez ere amen erruarengatik, urtebetetzeak, etxea gonbidapenak, etab. egiten hasi



ziren eta ez zituzten gonbidatzen. Gero institutuan berdin-berdin, lagunik gabe gelditu ziren eta nahiz eta besteek taldea mantendu zen, haiek kanpoan gelditu zen. Haiek garapena motela zuten eta gainera batek errepikatu zuen, orduan denak azkarrak baziren, hauek atzean gelditzen ziren, gauza asko ez zituzten ulertzen, orduan ezin ziren 100% integratu. Eta ez hori bakarrik, nire semeetako bati taldetik bota zuten gay zelako eta hori ama bezala imajinatu, asko sufritu dugu. Gainera, bakardadean sufritzen zuten haiek eta ez zuten azalerazten. Horrekin batera, nire semeetako bati, “chocolate” deitzen zioten. Bera esponjarekin igurtzen zuen bere azala eta txuria izan nahi zuela zioen, bere gelakideak bezala. Asko sufritu zuen, adarra jotzen zioten bere ikaskideak.

**2. Uste duzu klaseko irakasle/ikasleek zure seme/alabaren jaioterriari buruzko interesa azalatu dutela? / ¿Crees que en clase los profesores y los alumnos se han interesado por el lugar de nacimiento de tu hija/hija?**

BIAK: Adibidez, irakasleek egoera hauek ikusten nik ez dut oroitzen zerbait egiten zutenik, igual zerbait bai baina oso gutxi, nik ez nuen ekintzarik ikusi. Nahiz eta teorikoki arrazistak izan behar ez garela jartzen duen, gero praktikan ez da horrela. Hala ere, txikiak zirenean bai interesatzen ziren, haurtzaindegian adibidez, asko maite zituzten. Bitxikeri moduan, Haur Hezkuntzan ekintza bat proposatu zen: ama biologikoaren argazki bat eraman haurdun zegoen bitartean. Nire kasuan ez naiz ama biologikoa, orduan fitxa ezin genuen egin, nahiz eta hasieratik semeei esan gu guraso adoptiboak ginela, oztopo bat izan zen guretzako. Nire ustez, horrelako ekintzak gehiago kontrolatu beharko zirela; hala ere irakaslea larritu zen. Zuhaitz genealogikoaren momentua heldu zenean, ni eta nire senarraren familiari buruzkoa egin genuen baina ez da erreala azkenean. Gainera, esan behar dizut, nire semeetako batek bere ama biologikoa ezagutu duela, baina bestea adibidez ez du ezagutu nahi. Nik uste dut beldur dagoela tapoia irekitzeko eta ez duelako gehiago sufritu nahi.

**3. Noizbait izan duzu arazorik eskolarekin? / ¿Has tenido algún problema con la escuela por esta situación?**

BIAK: Errendimenduarekin jarraituz, irakasle batzuk bai ulertzen zituzten haien arazoak baina beste askok ez. Gainera, beraiek gaitasun mentala eta intelektuala mugatua dute, orduan, logikoi pentsatzeko ez dute balio eta ez dira besteen berdinak. Hauek dituzten beharrak eta hutsuneak ez dira besteek izan dezaketeenak bezalakoak: abandonoa, adoptatuak, garapen mentala... Gainera, ez zituzten maitasunez tratatzen eta orduan, egoera geroz eta gehiago okertzen zen. Gainera, honen ondorioz, haien autoestimua oso baxua zen, ez zituztelako besteek bezalako nota onak ateratzen eta horregatik ere baztertuak sentitzen ziren intelektualki ez zirelako hain azkarrak. Baina errepikatzen dizut irakasleek ez zirela batere enpatikoak eta ez ziren gure lekuan jartzen eta ez zituzten guk eskaintzen genizkien estrategiak erabili nahi.

**4. Zein motako laguntzak eskaini beharko lituzke eskolak adoptatzen dituzten gurasoei? / ¿Que ayudas crees que debería ofrecer la escuela a los padres que adoptan?**

BIAK: Nire ustez, gure gizartean sustraituta dagoen gaia da eta nire ustez, benetan egin behar dena da, ikusarazi umeei txikitatik denak daukagula eskubidea gure artean desberdinak izateko. Baina zaila da familiak ez baldin badutelako etxean hori lantzen, tapatzen du eskolan egiten dena. Nik programa bat egingo nuke eta gure gizartearen osagarri bat desberdintasuna dela adierazi haurrei. Eskolak hasteko gurekin hitz egin beharko luke, kooperazio bat egon eskola eta familien artean. Askotan, nik uste dut ez gaituztela entzuten, eta askotan haiek pentsatzen dute guraso adoptiboak asko babesten ditugula, ez diegula autonomia garatzen uzten... Ez dutela autonomia garatuko gainean bagaude, baina ez dute ulertzen bidelaguna behar dutela, etxekolanekin laguntzen, ikasten...

**5. Egoera hauen aurrean, zer gauza egitea falta zaizkio eskolari? / ¿Que cosas crees que le falta hacer a la escuela en este tipo de casos?**

BIAK: Eskolaren gairekin jarraituz, tratu txarra irakasleen eta ikasleen partetik sufritu dutela zin egiten dizut. Lehenik eta behin falta zaie ikasle hauei ulertzea eta begirada aldatzea. Eta bigarrenik, estrategiak bilatzea, erritmoa, ohiturak, etab. kontuan hartzea eta laguntzen saiatzea behintzat. Adibidez, desregulatzen diren ikasleak, kanporatuak izan beharrean, irakasle bat haien ondoan haien emozioak erregulartzen izango balute dena oso desberdina izango zen. Eta batez ere, teorian dagoen guztia praktikan jartzea.

### **Familia/Egokitzapena/Atxikimendua**

**1. Nolakoa izan zen egoera berri honen hasiera? / ¿Cómo fue el principio de toda esta nueva situación en casa?**

BIAK: Hasteko, txakurra erosi genuen esaten duelako asko laguntzen duela terapeutiko moduan.

AMA: Familian nik uste dut hasieran, nahiz eta beltzaranak izan, onartu zituztela uste dut, baina, arraro ikusten zituzten, nire familian nahiko klasistak direlako. Nire familian ia denak dira oso jakitunak, oso azkarrak, politak, etab. Gainera, akademikoki porrot egin zutenean, kirolariak ez zirela ikusita, atzean gelditzen zirela ikusita, arazoak izanda, geroz eta gehiago aldentzen ziren. Hala ere, harreman gehiago dute nire amarekin, denbora asko igaro dute berarekin, beti izan dituzte oso mimatuta.

AITA: Nire familiarekin ez dute harremanik. Nire kasuan, bietako batekin oso harreman txarra izan nuen bolada baten. Nire familiako senideek bai saiatu dira maitatzen eta ez mespresatzen, baina, gaur egun ez daukate harreman askorik. Familiarengandik ez dut uste bazterkeriarik sentitu dutenik, akademikoki bai, baina senideetatik ez. Nik adibidez, adoptatuak bezala ikusten ditut eta biologikoak izango balira, beste harreman bat izango nuke haiekin; hau da, honekin esan nahi dut, beti dagoela pentsamendua edo ideia arrazista gure

barruan, nahiz eta gu adopziozko gurak izan. Gogoratzen dut adopzio prozesuan esaten genuela: “guk nahi dugu gure itxura dituzten haurrak adoptatzea”; izan ere, beti dago mesfidantza puntu bat, kasu honetan, ijito-errumanoak izateagatik. Nahi gabe hortan pentsatzen dut askotan, hau da, laguntzen saiatzen zara baina beti dago pentsamendu hori. Gainera, poztasunik ematen ez dituztenez, gure motibazioa ere asko jaisten da. Hala ere, onartzen ditugu diren bezala.

**2. Nolakoa izan zen familia artean egokitzapen-prozesua? / ¿Cómo fue el proceso de adaptación en la familia?**

AITA: Alde batetik, pazientzia asko behar da. Bietako bat emozioak ez ditu kontrolatzen eta biolentziara jotzen du. Beraz, zure pazientzia erregulartzen ikasi behar duzu eta horrelako egoerak kontrolatzen hasi behar zara. Gauzarik txarra probokazio horietan sartzea zen, haiek garrasi hastea eta ondoren gu ere erantzuteak, egoera txarragoa izatea lortzen genuen. Hauekin ez du funtzionatzen gu helduagoak izatea eta errespetua guztiz galtzen da horrelako egoerak ematen direnean.

AMA: Beraz, ikasi behar izan dugu limiteak jartzen eta estrategiak bilatzen. Etapa asko igaro ditugu eta nik uste dut, hasiera batean ez genuela ulertzen, gero onartu dugu eta ikasi dugu hoberena dela ez erantzutea eta aldentzea. Momentuan ezin da beraiekin hitz egin baina gero bai, lasaiago daudenean hain zuzen ere. Emozionalki arazoak dituen, gorroto asko du eta amorru asko azaleratzen du, orduan gurekin ordaintzen dute. Diruarekin ere arazoak daude, asko ateratzen direnez, kanpoan egoteko beharra dutenez, dirua behar dute, festetarako batez ere eta lan egiten ez dutenez, burrukan egoten gara maiz.

**3. Nolakoa da etxeko egoera? / ¿Cómo es la situación en casa?**

BIAK: Bietako bati gertatzen zaiona da, brote psikotikoak ematen dizkiola. Gainera, ez da gauzetaz enteratzen talde dinamika denean, bera indibidualki funtzionatzen baitu eta nahiz eta kognitiboki atzerapen bat duen, oso pertsona langilea da, mugan dago baina asko kostatzen zaio. Bestea berriz, jarrerarekin dauka arazoa, kontrola, etab. Biak egonda daude psikiatrian eta han egin zieten probekin, diagnostikatu zieten biei “transtorno de apego”. Orduan etxeko egoera hau guztiarekin imajinatu, guk ere asko sufritzen dugu eta askotan egoera ez da hoberena. Hau guztia asko eragiten du harremanetan, gainera, hainbeste desoreka dute, emozioengatik, autoestimuaengatik, etab. guretzako ere oso frustrantea dela guraso bezala gauza bat hasi eta bukatzen ez dutela ikusten dugunean.

**4. Nolakoa da gaur egun zure seme-alabarekiko harremana? / ¿Cómo es la relación con tu hijo/hijo hoy en día?**

AMA: Ni adibidez betidanik alderdi akademikoan egon naiz buru belarri. Haiekin oso zorrotza izan naiz eta gaur egun onartu dut ez direla nik nahi izan dudana bezala. Gaur egun ez naiz hain kritikoa eta horrekin batera, psikologo eta terapeuta moduko papera egiten dut. Izan

ere, beti etortzen dira niregana zerbait gertatzen zaienean edo zerbait behar dutenean. Modu horretan harreman oso ona dugu eta denbora asko igarotzen dugu batera.

AITA: Bai, nik harreman txikia dut haiekin eta oso gutxi hitz egiten dugu. Gehiago arduratzen naiz, elikagaietaz eta osasuntsu jan dezaten. Ez naiz hainbeste arduratzen Beatriz egiten duen moduan.

**5. Zure ustez, adopziozko ama izatearen esperientzia eta ama biologikoa izatearena oso desberdinak dira? / ¿Crees que la experiencia de ser madre adoptiva es muy diferente a la de ser madre biológica?**

AITA: Bai zure sabeletik jaiotako umea ez da berdin adoptatua den semea bezalakoa. Gainera, nahiz eta oso gazte adoptatu genituen, bi urte igaro ziren eta hori denbora asko da. Adibidez, guri asko lagundu diguna da beste familien esperientziak entzutea da. Azkenean, esaten den esaldia bezala: “problema de muchos, consuelo de tontos”. Sexu arazoak, drogak, etab. ez ditugu onartzen, ezta haien jarrera eta zergatik ordaintzen duten modu horretan. Hau da, zergatik nahiz eta zuk ahalegin guztiak egin, zergatik egiten duten egiten dutena.

AMA: Gainera, han, atxikimendua ez zutela ikusteko aukera izan genuen. Hau da, negar egiten zutenean adibidez, inork ez zituzten besoetan hartzen eta beraz, haiek atxikimendu hori ez dute izan hain garrantzitsu diren urte horietan. Hala ere, maitasunarekin ez da dena konpontzen. Guk adibidez, laguntza bila egon ginenean, terapeutara eramanez genuen eta gu ere haiekin egon ginen. Hori ere ona da zuri ere perspektiba aldatzen dizulako. Gainera, psikiatrak hiru hilabete behin ematen dio zita eta bestela, dirua gastatu behar duzu eta pribatu batera eramanez. Hori ere oztopo bat da diruduna ez den jendearentzako.

**6. Uste duzu adoptatua izan den haur batek atentzio gehiago behar duela adoptatua ez den haur batek baino? / ¿Crees que un niño adoptado necesita mas atención que un niño que no lo ha sido?**

AITA: Atentzio kualifikatua behar dute nik uste. Hau da, tratuan, adibidez, oso sensibleak dira eta justiziaren aurrean asko oldartzen dira eta era berean, beti defendatzen dute biktima. Gainera, harremanetan ere hori ikusten da, bikotea izan dutenean bietako batek eta bikotea utzi duenean, abandonua sentitu du eta inor maite ez duela esan du behin baino gehiagotan.

AMA: Horrez gain ere, helduengan, adibidez, ez dute konfiantzarik, jaso duten heziketa eta bizitako abandonuarengatik hain zuzen ere. Gainera ere, atzean egotea behar dute; hau da, haiek oinarritzko lana egiten dute etxean eta behi eta berriz esan behar zaie gauzak egiteko. Eta abandonuaren gaiari buruz, nire senarra esan duena, panikoa dute abandonuari eta bakarrik gelditzeari.

**7. Zure ustez, egokitzapen-prozesuan bereizten al dira atzerritik edo Espainiatik datozen haurrak? / ¿Crees que en el proceso de adaptación se distinguen los niños que vienen del extranjero o de España?**

AITA: Bai, noski. Guk ezagutzen dugu kasu bat, non gurasoek adopzio nazionala egin zuten eta sekulako diferentzia da, oso ona esan nahi dut Berriz, ekialdeko herrialdeetatik etorritako haurrekin, arazo asko izan dituzte. Izan ere, alkohol asko dago eta gizartea oso desberdina da. Txinatarrek, adibidez, akademikoki oso ondo baina gero harremanak sortzeko nahiko zailak izaten dira.

**8. Zuen ustez, arrazakeria al dago adoptatzeko unean? / ¿En vuestra opinion hay racismo a la hora de adoptar?**

AMA: Bai, horregatik Errusian adopzio asko egon ziren baina denak ilegalak. Gainera, lehen, gure belaunaldian ez zeuden hainbeste beltzaran, adibidez, orduan etapa desberdinak direla uste dut. Baina nik bai ulertzen dut zuk arrazakeri hori sufritzeak izugarritzko gorrotoa sortzen duela.

AITA: Bai, zuk nahi dituzu politak eta osasuntsuak izatea soilik, ez dakit arrazakeria den ala ez. Gure garaian adibidez, gure artean ginen arrazistak eta beste kanpotarrak exotikoak ziren soilik.

### **Osasun mentala**

**1. Nolabaiteko laguntza psikologiko/terapia eskuratu zenuen adopzio aurretik/bitartean/ondoren? / ¿Obtuviste algún tipo de ayuda psicológica/terapia antes/durante/después de adoptar?**

AITA: Aurretik eta bitartean ez. Tertuliak gure kabuz egin genituen, baina hori ondoren izan zen beste familien esperientziak eta gurea elkarbanatzeko asmoz. Baina diputazioak ez digu ezertan lagundu.

AMA: Egia da ziurtagiri bat atera behar izan genuela eta hori guztiei ez diete ematen. Adibidez, elbarritasuna baldin baduzu seguru aski ez dizuete emango nahiz eta zure bikotea osasuntsu egon. Nire ustez, askotan, nahiz eta haurra ez eman, fabore bat egiten dela uste dut; izan ere, imajinatu horrelako haur bat izatea eta gainera bikote elbarritua.

**2. Zein alderdietan lagundu diozu gehien zure seme/alabari? / ¿En que ámbitos has ayudado más a tu hijo/hija?**

AITA: Ni beste era batean ikusten nuen egoera. Hala nola, parkera eramaten nituen nire semeak eta nahiz eta parkean haur problematikoekin egon lasaitasuna sentitzen nuen haiek beste haurrekin sozializatzen zutelako.

AMA: Ni akademikoki lagundu diedala esango nuke eta hori izan da akatsenatariko bat, zeren ni zentratzen nintzen besteak bezala izateko eta hori izan zen akats handiena, konparatzea. Etxekolanak eta azterketa behin berriz egiten eta ikasten, sufrimendu handia dago hor atzean da. Eskolaz kanpoko ekintza guztietara apuntatzen genituen eta gero konturatzen zara hauek parkean egon beharko liratekeela eta ez hor denbora guztian okupatuta. Gainera, bi izanda lan gehiago da, batekin nahikoa da.

**3. Haurren istorioak epe luzearako pisu handia duela uste duzu? / ¿Crees que pesa mucho la historia previa de los niños a largo plazo?**

AITA: Mina hor daukate eta hori ez da inoiz sendatuko, ikasi behar dute horrekin bizitzen.

AMA: Bai, betirako, bizitza osorako. Orfanato horretan bizi zuten guztia bizitza guztirako izango da: tratu txarrak, adibidez. Gaur egun, argirik gabe ezin dute lorik egin eta zinturoia jartzeko ez dago modurik.

**4. Komentario mingarriak entzun behar izan zenituen prozesu egin baino lehen/bitartean/ondoren? / ¿Recibiste comentarios ofensivos a raíz de adoptar?**

AITA: Bai; hala nola, “jo, pues ya te lo pueden agradecer de por vida”, “ze zorte ona izan duten”. Horrek esan nahi du karitate obra bat egingo bazenu bezala. Nik modu horretan oso kritikoa naiz. Nik uste dut lehenengo haur horren amari lagundu behar zaiola eta hala ere ezin bada ezer egin, orduan bai adopziora emango lirateke baina amak asko sufrituko du eta lehenengo laguntza eskaini behar da.

AMA: Edo, “pero como se te ocurre adoptar?” “¿tú sabes dónde te metes?”. Baina, bai, egia da esaten duzuna, adopzioan hasi ginenean ez genuen horretan pentsatzen.

**5. Prozesu honetan sentitu dituzun 5 sentimendu zerrendatu beharko bazenu, zeintzuk izango lirateke? / ¿Si tuvieras que enumerar 5 sentimientos que has sentido en este proceso, cuáles serían?**

BIAK: Amorrua, tristura, maitasuna, umorea, intseguritatea eta damua.

**6. Zer gustatuko litzaizuke jakin izana adoptatu aurretik? / ¿Qué te gustaría haber sabido antes de adoptar?**

BIAK: Dena. Hala nola, zer da guraso adoptiboa izatea, guraso adoptiboen esperientziak entzutea (errealak eta gardenak), nola dauden ume hauek eskoletan, informazioa instituzio aldetik ere, zer gertatu daitekeen aurreikustea. Eta pixka bat azaltzea eraginak eta ondorioak zeintzuk diren hauek dira.